

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-04-08
EGUBAKOITZA
460. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM



Motxila 21en kontzertua Elgetan

Bihar egingo dute, Marea taldeko 'Kutxi' eta Barricadako 'El Drogas' lagun dituztela | 32

Aitor Mendizabal, lau t'erdiko Soraluze sariko finalera iritsi da | 28



127 langabe gehiagorekin amaitu dugu martxoa | 5



Maiatzaren 2an irekiko dituzte barruko igerilekuak Arrasaten | 12



AEK-ko kide eta lagunak Arrasaten, Korrika 17 heltzeko zain.

MIREIA BIKUÑA


BERGARAKO ORDEZKARITZA ITXI ETA ARRASATERA EROANGO DU GOIENAK

Goienak Bergarako egoitza itxi egingo du gaur eta Arrasatekoan batuko da Bergarako lantaldea. Hala, astelehenetik Goienak ez du bulegorik izango Bergaran. | 17

Badator, badator, hemen da Korrika!

- ▶ Eguenean, hilak 14, iritsiko da Debagoienara eta 73 kilometro egingo ditu
- ▶ Elgetatik sartuko da 05:08an eta 14:54an joango da Leintz Gatzagatik | 4

"Gehiengoa abertzalea izanda ere, erakundeetan ez da hori islatzen"



Pello Urizar | EAKo idazkari nagusia | 8

SINADURAK

- Erraustegirik ez!** | 6 LARRAITZ UGARTE
- 12 | Limosnarik ez** HORAZIO ARGARATE
- Leku diren lekuak** | 16 MAIALEN MADARIAGA
- 20 | Bar Guria** OLATZ OSA
- Orain da momentua** | 26 ANDERE ARRIOLABENGOA
- 40 | Ez entzuteko aparailua** IDOIA ETXEBERRIA

PREST

m

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK

Enpresagintza Fakultatea

IRUN **APIRILAK 9** larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORIATZA **APIRILAK 14** osteguna, 18:00

ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!



Itsasoa ez badator Debagoienera...

... Debagoiena joango da itsasora: hori pentsatuko zuten ozeanoa maite duten bailarako hainbat lagunek. Itsasoarekin lotutako lan edo zaletasunak dituzte



Ambar elkarteko urpekariak. Olatz Lazkano elkarteko kidea da.

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Debagoieneko haranetaraino ere ailegatu da kresalaren eta itsasoaren zeruertza zabalaren erakarpena. Itsas-animaliak maite dituzten zientzialariak, urpean arrantza egiten ikasi duten barrualdeko herritarak, portu berriak amets dituzten belauntziko patroiak, edo bost ozeanoak zeharkatu dituzten kapitain pilotuak ere. Horiek guztiak eman ditu gure barrualdeko ibarrak.

Horiengan guztiongan, itsasoak duen erakartzeko eta amets eragiteko indarra handia da. Hala, zetazeoak babesteko Ambar elkartean boluntario dabilen Olatz Lazkanok onartzen digunez, itsasotik urrutiko dagoenean haren

falta igartzen du; bestetik, Jose Luis Abuin arrasatearrak 10 urte darama belauntzi baten jabe izaten, bazkide batekin, eta ahal duen guztietan irteten da nabigatzera. "Ni masajista naiz, lau pareta artean lan egiten dut, eta belauntzian irtetea, itsasoa, justu horren kontrakoa da", kontatzen digu.

Denetarako, baimen beharra

Baina itsasoa dagoeneko ez da askatasun osoaren sinonimoa; hala, kapitain izandako Javier Egidazu arrasatearrak esaten digu gaur egun kapitainak ez duela "lehenengo askatasuna"; lehen Iparrizarrak, ilargiak, mareek eta korronteek zuten tokia gaur egun "lurreko bulego handi batek" hartu du, lehorretik hartzen direlako itsasontzia kontrolatzeko erabakiak, berak dioskunez.

Eta ekintza guztietarako –nabigatzeko, belauntzi baten zein txalupa baten; urpean igeri egiteko; arrantza egiteko...– gaur egun ikasketa batzuk egin behar dira, eta dagokion titulua edo baimena atera.

Bi motatako ikasketak daude: ekintza profesionali dagozkienak eta ekintza ludikoei dagozkienak. Profesionaletan, Pasaian dago eskola nautiko ezagunenatariko bat; eta EHUren eskola Portugalen dago. Ekintza ludikoetarako –edozein motatako ontzia gobernatzeko baimena ateratzeko– ere horietan egin daitezke ikasketak, eta non egin ere aukera zabalagoa dago: Bilbon, Donostian, Hondarribian... Bestalde, urpean igeri egiteko baimenerako ikasketak ematen dituzte Mutrikun edo Getarian, adibidez.



MIREN ARREGI

JAVIER EGIDAZU

Eskola zaharreko itsas-kapitain arrasatearra

Arrasatearra da Javier Egidazu, eta Gatzagan bizi da, baina itsasoa izan du lanbide eta bizileku ere, denbora luzean. Izan ere, 20 urte zituenean itsaso lanean hasi zen. Mundu osoko itsasoetan ibili ondoren –merkantzia-ontzietako eta gas-ontzietako kapitaina izandakoa da–, orain Pasaian portuko pilotua da. Miren Arregi kazetariak elkarrizketatu zuen Goiena telebistarako.

Txikitan zuen itsasoarekiko erreferentzia bakarra osaba zela diosku; hark erakusten zizkion filmetatik eta argazkietatik piztu zitzaion itsasoarekiko grina. Gero, Portugaletera joatea erabaki zuen, hango Nautika Eskolara, itsas-kapitain ikasketak egitera. Eta eskolatik, itsasora: "Pilotu atera nintzen lehenengo; petrolio-ontzietan, gero merkantzia-ontzietan, gas-ontzietan...". Baina nonbait hori nahikoa ez, eta eskolara bueltatu zen beste bi urte, kapitain titulua ateratzeko. "87an irten nintzen kapitain, eta hainbat barkutan ibili nintzen. Gasa

garraiatzen, barku handietan, urte askotan ibili naiz". Eta baita mundu osoan ibilitakoa ere: Pertsiar Golkoan, Afrika mendebaldean, Australian, Karibe aldean... Orain Pasaian dabil, hango portuko gidari.




Egidazuren ontzia, Pasaian.

"Gaurko barkuak bulego handiak dira, lurretiko kontrolpean"

aldatu dela dio: "Lehen zailtasuna zen barkua kokatzea: itsas zabalean, izarrei begira eta egiten zen. Gero eguraldia-eta kontuan hartu behar ziren. Gaur egun, barkuak dira bulego handiak, beti lurrean dagoen kontrol baten menpean. Teknikazioak ekarri duen pobrezia bat da; jaitsi egin da bizi-kalitatea barkuan. Izan ere, gaur egun, kapitain batek ez dauka lehenengo askatasuna bere erabakiak hartzeko. Lan merkatu hori orain merkeagoa egin da. Eta, bestalde, europarrak itsasotik aldentzen ari gara", esaten du.

estetika zentroa
angela

ORDUTEGI BERRIA
09:00 – 20:00
Eguerdian ere zabalik!



IÑAKI FERNANDEZ**Urpean harrapatutakoa, hori da arrain goxoena**

Bere esanetan, gurean "gero eta gehiago" dira itsaspeko arrantza egiteko zaletasuna dutenak. Izan ere, behin probatuta, zaila da bertan behera uztea, Iñaki Fernandez arrasatearrak dioenaren arabera: berak dagoeneko 23 urte darama itsaso azpiko arrantza egiten.

Zaletasuna zelan piztu zitzaion kontatzen digu: "Txikitatik erakarri izan nau arrantzak, eta gida-baimena atera nuenean, kostaldera joaten hasi nintzen. Egun baten, Zarautzen nengoan, nire kainaberarekin, eta hara non ikusten ditudan mutiko koskor batzuk itsasora salto egiten; bada, bi minututan, txoko (sepia) mordo batekin irten zuten. Orduan esan nion nire buruari, neuk ere hau egin behar dut!"

Esan, eta egin: ekipamendua segituan erosi zuen eta ikasten hasi zen.

Hasieran, azaltzeko zaila

Gerora, inguruko jende gehiagori ere "kutsatu" zion denbora-pasa hori, baina "hasieran, barrualdekoak izanda, zaila da etxean azaltzea uretan sartu behar zarela zure hobby-a egiteko". Baina gerora, eskertu ere egin diote: "Sekulako aldea dago guk harrapatzen ditugun arrainen eta dendan erosten direnen artean", esaten digu. Berak ere beldurra gainditu behar izan zuen: "Hasieran, itsasertzetik urruntzeak beldur pixka bat ematen du, bai".

Neguan, itsasautsi inguruan ibiltzen dira, eta udan, 17-20 metro sakon ere bai. Txalupan joaten dira haraino. "Muxar handiak,

lupiak, txelbak (doradak), itsas aingirak... arrantzatzen ditugu", Iñakiren hitzetan.

Merezi duen inbertsioa

Zaletasun garestia den galdetuta, Iñakik esaten digu "zaletasun guztiak adina" dela: gero eta material hobea erosten joan da bera, baina gustura egin du inbertsio hori.



Ale ederra!

"Bi minutuan, umeak arrain mordo batekin irten ziren itsasotik"

IÑAKI FERNANDEZ



OLATZ LAZKANO

OLATZ LAZKANO**Izurdeen eta baleen artean, lehorrean baino poziago**

Baleen, izurdeen eta euskal uretako bestelako itsas-animalien inguruan lan egiten du boluntario gisa Olatz Lazkano arrasatearrak. Orain geldialditxo bat egin du, ama ardurak betetzeko, eta "desiratzen" dago itsasoko lanera bueltatzeko. Debagoiendarra izan arren, kostaldeko gertatzen zaien bezala, itsasotik urruti dagoenean "faltan igartzen" duela onartzen digu. "Lankideek kontatzen dutena ez entzutea gurago dut, inbidia ematen didalako", komentatzen du.

Txikitik, gurasoekin oporretan joaten zenean, dagoeneko urpean ibiltzen zen, hoditxoarekin. Gerora, Biologia ikasi zuen. "Orduan jakin nuen Ambar elkarte zegoela, baleekin eta izurdeekin lan egiten zuena, eta horko kide egin nintzen. 22 urte nituen".

Bilbo-Portsmouth ferrya

Ambar elkartearen helburua da itsas-fauna babestea, ikerketak eginez eta animalioi babesteko ekintzak bultzatuz. Besteak beste, zetazeoak, pinnipedoak eta itsas-dortokak begiztatu egiten dituzte. Baita irteerak egin ere, eta dibulgazio lana egin horietan joaten zen jendearekin. Lazkanok azaltzen digu beste proiektu garrantzitsu bat: "Urteetan beste proiektu bat: Bilbo-Portsmouth ferrya hilean behin ibiltzen zen; bada, han joan eta ikusten genituen animaliak zenbatu eta haien zentsua egiten genuen".



Itsaspean.

"Herrikook ez zekiten euskal kostan baleak eta izurdeak zeudenik"**Kostaldea eta barrualdea, gertuago**

Herrikideei hasieran "arraro egin zitzaizkien jakitea hemen badaudela izurdeak eta baleak; pentsatzen zuten kanpoan bakarrik zeudela". Lazkanoren esanetan, Ambarren bitartez egiten den dibulgazio lanak hutsune hori betetzen lagundu du.

Oro har, baina, "kostaldekoen eta barrualdekoen artean ez dago elkar ez ezagutzerik dagoeneko; distantziak ez dira handiak gaur egun".

Belauntzian ibili nahi duzu?

Jose Luis Abuin arrasatearrak belauntzia dauka Hondarribian, bazkide nafar batekin. "Karabana erostea moduko da: bertan bidaia dezakezu, lo egin...", dio.

Euskal kostaldean ibiltzen dira: "Bi edo hiru orduko irteerak egiten ditugu, Hondarribian bertan, edo Donibane Lohitzuneraino joaten gara, gero Donostiara... Joan den udan, Coruñaraino joan ginen. Egin dugun bidaia luzeena izan da".

Bere esanetan, "bigarren eskuko belauntzia erosita, mantenua norberak eginda... ez da bereziki garestia".

Bi bazkideok eurekin bat egin nahi duen jende gehiagoren bila dabilta. (Jose Luis Abuinen telefonoa: 639 02 47 14).



Jose Luis Abuin, belauntzian. | J.L.A.

Tituluak ateratzeko ikasketak**HERRI BAKOITZEAN**

Garai baten, kostaldeko herri guztietan marinel-eskolak zeuden marinel ikasteko.

**PROFESIONALIZAZIOA**

Gaur egun, hainbat ikastetxetan egin daitezke ikasketak; EHUK, adibidez, Portugaleten dauka eskola. Bi titulazio mota daude: merkataritza-ontzien kapitain titulazioa eta itsas-arrantza-rako titulazio profesionalak.

DENBORA-PASARAKO

Kirol-ontziak gobernatzeko titulazioaren ikasketak hainbat akademiatan egin daitezke. (Argibideak: www.euskadi.net).

www.mondragon.edu/gep**Lanerako gertu!****MGEP**
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**¡Etorriko zarela jakinarazi!**
943 71 21 91
e-mail: aarriaran@eps.mondragon.edu**GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012**

Informazio jardunaldiak Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUAK
apirilak 14 (osteguna)	18:00	5001 Gela	<ul style="list-style-type: none"> Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa Industri Ekipareen Mantentzeak.

Kontsulta pertsonalak: 943 71 21 91 • E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu

Hamaika ekitaldi han eta hemen Korrikari ongi etorria egiteko

- ▶ Elgetatik iritsiko da Korrika eguenean, hilaren 14an, goizean goiz
- ▶ la Debagoiena osoa zeharkatu eta 73 km egingo ditu Korrikak gurean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Korrika datorren eguenean, apirilaren 14an, helduko da gurera eta giroa berotzeko hamaika ekitaldi antolatuta dituzte ibarreko txoko guztietan. Korrikaren Debagoieneko antolatzaileek dena gertu dute euskararen aldeko festari ongi etorri jendetsua egiteko. Aste bukaeran, esaterako, ibarreko herri gehienetan izango da ospakizunen bat. *Euskalakarri* da Korrikaren leloa. Izan ere, euskara maite duena, ikasten eta erabiltzen duena euskalakarria da. Herritar guztiak euskalakarri izango diren Euskal Herria da Korrikaren azken helmuga.



Orain dela bi urteko Korrikaren irudi bat. | GOIENA

Patxi Uribarreni omenaldia

Korrikaren 17. ekitaldiak Euskaltzaindia omenduko du; 1919an sortu zenetik euskararen egitura linguistikoa eta gramatikala erakitzekeo lan etengabea egin du, eta 1968an euskara batuaren arauak zehazten hasi zen. Horrez gain, ezin ahaztu euskalkien alde egindako lana: ondare hori jasotzen asmatu du, besteak beste dialektologiari buruzko hainbat ikerketa eta *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a argitaratu dituelarik.

Hori dela eta, eguenean bertan Patxi Uribarren euskaltzain aramaiorra omenduko dute Arrasa-

KORRIKA DEBAGOIENEAN

- ▶ Elgeta 05:08
- ▶ Angiozar 05:41
- ▶ Bergara 06:26
- ▶ Antzuola 06:59
- ▶ Deskarga 07:31
- ▶ Udana 09:28
- ▶ Oñati 10:14
- ▶ Elorregi 11:06
- ▶ Arrasate 11:25
- ▶ Aramaio 12:24
- ▶ Aretxabaleta 13:29
- ▶ Eskoriatza 13:48
- ▶ Leintz Gatzaga 14:27
- ▶ Muga 14:54

teko ekitaldian, 18:30ean, plazan. Aramaioko Etxaguen auzoan jaio-takoa, joan den maiatzaren 28an euskaltzain oso izendatu zuten Uribarren haren jaioterrian. *Zirelako gara, garelako izango dira* sarrera-hitzaldia egin zuen Patxi Uribarrenek egun hartan.

EGITARAUA

GATZAGA

APIRILAK 9

19:00 30 urte Gatzaga konpontzen.

ESKORIATZA

APIRILAK 8

16:30 Jolasak herriko plazan.

17:30 Tenderete herriko plazan.

17:00-19:00 Material salmenta.

20:00 Alaia Martinekin eta Uxue Alberdiren bertso afaria kultura etxean.

ARETXABAETA

APIRILAK 14

12:00 Material salmenta herriko plazan.

17:00 Jon Urbieta DJ: musika eta dantza.

18:00 Txokolatada. Eraman edalontziak.

19:00 Kantu pintxo poteoa.

ARAMAIO

APIRILAK 8

17:00-20:00 Material salmenta plazan.

18:30 Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen emanaldia Sastiña aretoan.

19:00 Dantzak plazan.

21:00 Basurde pintxoak eta ardoa plazan.

22:30 Malatu Iturrieta sagardotegian.

APIRILAK 9

17:00 Umeendako tailer eta jolasak plazan.

18:00 Erraldoi eta buruhandiak, gaiteroekin.

18:00 Ain-1 musika taldea Arkupen.

19:00 Txistorra eta ardoa plazan, trikitilariarekin alaituta.

20:00 Bertso afaria Miren Amuriza eta Unai Iturriagarekin Uratzalde elkartearen.

ARRASATE

APIRILAK 10

19:00 Sekula Bai Amaia antzokian.

APIRILAK 12

17:00 Merienda plazan.

17:30 Jolasak plazan.

18:00 Konpartsa txikia kaleetan.

18:30 Omenaldia Patxi Uribarren euskaltzainari plazan.

19:00 Material salmenta Kulturaten.

19:00 Euskarazko film laburrak. Kepa Errasti zuzendariarekin solasaldia.

19:30 Elvis Caino DJ plazan.

22:00 Gose eta Anger gaztetxean.

APIRILAK 14

10:00 Mendi irteera gidatua.

12:00 Material salmenta Bedoñan, trikitilariarekin.

12:00 Material salmenta Amaia antzokian.

OÑATI

APIRILAK 9

12:00 Material salmenta plazan goiz eta arratsalde herriko hainbat puntutan.

18:00 Korrika txaranga poteoa.

22:00 Kontzertuak herriko taldeekin Ona taberna kanpoan.

APIRILAK 13

17:30 Korrika txikia herriko plazan eta ondoren txokolatea jana. Amaitzeko trikitilariak eta Oñatz dantza taldearen emanaldia.

17:30 Jolasak plazan.

ANTZUOLA

APIRILAK 8

22:00 Klakson eta Los Viernes al Ron gaztetxean.

APIRILAK 9

21:00 Kantu afaria Olalde elkartearen.

APIRILAK 10

18:00 Haurrendako film emanaldia Torresoroan.

APIRILAK 12

18:00 Zer egin? hitzaldia Larraitx Madinabeitia Emuneko kidearen eskutik.

APIRILAK 13

12:00 Korrika txikia

BERGARA

APIRILAK 8

22:00 Kantu afaria Artatsen.

APIRILAK 10

18:00 Txokolate jana eta karaokea Angiozarren.

APIRILAK 13

11:00 Korrika txikia Angiozarren.

15:20-17:00 Korrika txikia, jolasak eta txokolatada San Martin plazan.

ELGETA

APIRILAK 8

22:00 Kontzertua gaztetxean.



GOIENA

Hamaikabateko debagoiendarrak

Maite Etxaniz izango da H1leko Deba Urola barrutiko zerrendaburua eta Batzar Nagusietako presidente izateko hautagaia. Hautagai debagoiendarrak hauek dira: Amaia Inza eta Carmelo Lezeta, Oñatiko eta Eskoriatzako zinegotziak gaur; Miguel Angel Delgado aretxabaletarra, zinegotzi eta Etxebizitza eta Lurralde Antolamendurako sailburuorde izandakoa; eta Bergarako Kontxi Irizar zinegotzi ohia eta Bittor Gorrotxategi, egun H1leko Batzar Nagusietako kidea.

Baketik: lehentasun etikoei buruzko V. gogoeta-jardunaldiak

E.M. | BERGARA

Baketik zentroak egungo lehentasun etikoei buruzko V. gogoeta-jardunaldiak antolatu ditu Arantzazun astebururako. Aurtengo gaia bizikidetzaren berradiskidetzea da, eta hizlariak hauek izango dira: Juan Jose Ibarretxe, lehendakari ohia; Margarita Robles, Botere Judizialaren Batzorde Nagusiko bokala; Mario Zubiaga, EHUko Zientzia Politikoetan doktorea; eta Juan Pablo Fusi, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Historia Garaikidean katedraduna. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, "euskal gizartearen bizikidetzarako ahalegin serioa

zabaltzen ari da, indarkeriarik gabeko epe berria. Baina zatiketa politikoei eta zauri askok zabalik eta berradiskidetzea bizikidetzaren etorkizuneko ardatz estrategikoa da".

Mahai-inguru publikoa bihar

Jardunaldiak gaur, egubakoitza, 13:00etan hasi eta bihar, zapatua, amaituko dira, 13:00etan. Gaur arratsaldeko saioa eta bihar goizekoa atekatu izango dira; bertan, lau hizlariet gain, 25 gonbidatuk hartuko dute parte. Zapatuan, goizez, 11:30ean, mahai-inguru publikoa izango da. Saio guztiak Arantzazuko Gandiaga Topagunean izango dira.

Naturaguneak eta mendiko kirola aztergai Arantzazun

E.M. | BERGARA

Espainiako mendi federazioetako ordezkariak eta naturagune babestuetako kudeatzaileek Oñatin egingo dute bi urtean behin egiten duten mintegia. Bi testu aztertuko dituzte orain: *Mendiko lasterketak naturagune babestuetan eta Nola uzartu mendiko kirolak eta erabilera tradizionalak*. Oñatiko kultura etxean izango da irekiera gaur, 19:00etan. Rafa Uribarren diputatua, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea eta Joan Garrigos Espainiako Mendi Federazioko presidentea izango dira han.



Arrasateko hainbat eragile, astelehenean Kulturaten egindako agerraldian. | TXOMIN MADINA

Manifestazioa egingo dute gaur Arrasaten, legeztatzea eskatzeko

Politikagintza aro berri baten atarian dagoela nabarmendu dute deitzaileek

T. MADINA - M. BITERI | ARRASATE

Arrasateko Eusko Alkartasunak, Alternatibak, Aralarrek, ezker abertzaleak, Gorripideanek eta LAB eta ESK sindikatuek deituta, manifestazioa egingo dute gaur arratsaldean Arrasaten, *Eskubide zibil eta demokratikoen defentsan, legalizazioa orain!* lelopean. 19:00etan abiatuko da Seber Altube plazatik.

Manifestazioa deitzeko astelehenean egindako agerraldian aipatu zuten, Euskal Herriko politikagintzan "nabarmena" da aro berri baten aurrean gaudela; dena dela, honako hau ohartarazi zuten: "gatazka inoiz konponduko bada, alderdi guztiek izan behar dute jarduera politikoa baldintza berdinetan egiteko eskubidea". Gauzak horrela, Alder-

dien Legea bertan behera uztea eskatu zuten.

Sorturen sinesgarritasuna

Era berean, gaur egun dagoen botere banaketa falta salatu zuten; horien esanetan, "ezker abertzaleari politika egiteko eskatu badio ere, gero ez diote bere jarduera politikoa era normal batean egiten uzten". Hala, esan zuten Sor-

tu alderdiak bere estatutuetan Alderdien Legea bere osotasunean bete arren, Sorturen sinesgarritasuna ari direla epaitzen. Horren harira, ohartarazi zuten ilegali-zazio egoerak ez diola bakarrik ezker abertzaleari eragiten, Euskal Herri osoari baizik.

Manifestazioa deitu dutenen esanetan, "itxaropentsu egoteko arrazoiak ditugula uste dugu. Konfrontazio, ezadostasun, ezinikusi eta ezin elkar ulertuen ilunabarra atzean utzi, eta elkar-lana, errespetua eta adostasunaren egunsentiarri bide emateko garaia da". Horren harira, nabarmendu zuten Euskal Herria bakea eta normalizazioa ekarriko duten baldintza demokratikoak behar direla.

Lurraldebusko autobus aldaketak doan dira orain

M.B. | BERGARA

Apirilaren 1a ezker, doan dira Lurraldebusko autobus aldaketak. Gaur egun 13 konpainia daude Lurraldebusen barruan, eta, orain arte, aldaketa konpainia bereko autobusen artean egiten zuten erabiltzaileak soilik baliatzen ziren abantaila horretaz. Orain, helmugara heltzeko konpainia ezberdinetako autobusak hartu behar izanez gero, aldaketak doan dira; bidaia bakoitza ordaindu beharrean, bakarria ordaintzen da, guztien artetik garestiena. Aldaketa, hori bai, 45 minutuko epearen barruan egin behar da.

Ordainketa txartelarekin

Bidaiariak orain arte moduan egin behar dute ordainketa txartelarekin, eta sistema bera arduratzen da bidaia guztien artetik garestiena bakarrik kobratzeaz.

Gipuzkoako Diputazioak jakinarazi du funtzionamendu berri horrek 387.000 bidaiatara ekarriko dituela onurak. Urtean 288.000 euroko defizita eragingo du eta Diputazioak hartuko du bere gain.

Debagoienak ere 127 langabe gehiagorekin amaitu zuen martxoa

Enplegu zerbitzu publikoen eta Langairen errolden desfaseagatik igo da

M.B. | BERGARA

Debagoienean ere gora egin zuen langabeziak martxoan: 127 langabe gehiagorekin amaitu zen hilabetea. Espainiako enplegu zerbitzu publikoek eta Langaik zituzten bi erroldak alderatu dituztenean aurkitu duten akatsa da igoera horren arrazoia. Orain arte 7.500 langabe estatistika ofizialetik kanpo zeudela ohartu da Jaurilaritza, eta horiek gehitu behar izan ditu. Horrek handituko du langabezia tasa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Gurean, Elgeta izan da langabe kopuru bera mantentzea lortu duen herri bakarria. Otsailean eta martxoan 47 lagun zeuden lan barik. Gainerakoetan, esan bezala, gora egin du tasak. Antzuolan, 86 langabe izatetik 93 izatera pasa da; Aretxabaletan, 287tik 307ra, Arrasaten, 1.289tik 1.325ra; Bergaran, 579tik 808ra; Eskoriatzan, 191tik 199ra; Leintz Gatzagatik, 5etik 6ra; eta Oñatin, 382tik 388ra.

Aramaion 31 langabe

Aramaioak, oster, 31 langaberekin amaitu zuen martxoa: 17 gizonezko eta 14 emakumezko. Hori horrela, 3.204 lagun daude

HERRIZ HERRI

HERRIA	LANGABEAK	EHUNEKOA
Antzuola	93	%10,22
Aretxabaleta	307	%9,51
Arrasate	1.325	%11,45
Bergara	808	%11,26
Elgeta	47	%9,55
Eskoriatza	199	%9,57
Leintz Gatzaga	6	%4,51
Oñati	388	%7,018
GUZTIRA	3.173	%10,24

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAK

DATUA

49

LANGABE GEHIAGO BERGARAN

Otsailetik martxora bitartean, Bergaran handitu da gehien langabezia. Orain 49 langabe gehiago ditu.

egun gurean lan barik. Langabezia tasari dagokionez, otsailean bezala, Arrasateko altuena; hain justu ere, %11,45. Bergara gertu dago, %11,26rekin. Kontrako aldean, Leintz Gatzaga da langabetu gutxien dituzten herria: 6. Hango tasa %4,51 da. Jarraian, Oñati dator 388 langabetuekin eta %7,18ko tasarekin.

Eskumenaren ondotik

Esan bezala, orain arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan bi langabe errolda nagusi zeuden: alde batetik, Espainiako enplegu zerbitzu publikoak zuen zabalena (lehen, INEM); eta bestetik, Langai Laneratzeko Euskal Zerbitzuak langabe zerrenda propioa zuen. Euskal Autonomia Erkidegoak enplegu politika aktiboen eskumena jaso eta gero, bi datu baseak alderatu dituzte, eta Lanbidek ondorioztatu du Espainiako zerbitzuek ez zituztela kontuan hartu Langain izena emanda zeuden 7.500 lagun. Langabe horiek Langain izena emanda zeuden, baina ez INEMen.

Hori dela eta, langabezia tasa %10,84tik %11,04ra igo da esandako hiru herrialdeetan; 152.956 pertsona daude lan bila.

Arantzazu bisitatzeko mendi-irteera egingo dute domekan

Arantzazuko Adiskideak elkar-teak joan den urtean martxan jarritako mendi-irteeren programaren bigarren aldia hasiko da etzi, domeka. *Larrez larre* bezala ezagutzen den ibilbide erraza egingo dute, eta Arantzazuko Santutegia hoteletik irtengo da. Txangoak hiru ordu iraungo du eta 300 metro igotzen dituen 8,5 kilometroko luzera du.

Helburu bikoitza du horrek: batetik, mendi-irteeretan parte hartu nahi duten guztiei domeka atseginak igarotzeko aukera eskaintzea; eta, bestetik, Arantzazuko ingurua hobeto ezagutzen laguntzea.

Itziarko gau ibiltarira joateko autobusa jarriko dute

Apirilaren 30an, zapatua, egingo dute aurten Itziarko gau ibiltaria, *Fededun gaur* ere lelopean. 43 kilometro luze inguru den ibilbidean parte hartu nahi dutenek jakin dezatela autobusa jartzeko asmoa dagoela, eta 943 79 79 86 telefono zenbakian emango dutela horren gaineko informazioa.

Betiko moduan, Donostia-k Ondarretako zabalean egin dute egun horretarako hitzordua, 20:00etarako, Igeldo herrira abiatzen den bidegurutzean. 06:30ean amaituko da, Itziarko Santutegian esango den mezarrekin.

vibike
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

ZABALIK

LARRAITZ UGARTE
'http://goiena.net/iritzia/'



Erraustegirik ez!

Bazen behin herrialde bat erraustegirik nahi ez zuena. Bazen behin erraustegi bat egiteak euren osasuna kalteko zuela eta eraikuntza munstro horrek zio ekonomikoei erantzuten ziela uste zuen jende masa kritikoa. Herrietan, jendartean, profesio talde ezberdinen aurrean eta herri-erakundeen aurrean erraustegiaren ondorioak azaldu eta moratoria bat eskatzeko helburuarekin antolatuta zen jende multzo geroz eta handiago hau, lan eskerga eginez.

Hainbat udalerritan erraustegiaren aurkako kontzientzia piztu eta zaborraren bilketa selektiboari ekin zioten atez ateko sistema martxan jarritz, herritarrok hondakinak birziklatzen baditugu erraustegirik behar ez dugula erakutsiz, eta moratoriaren epea amaitzean erraustegiari behin betiko uko egitea beste erremediorik ez egonik. Eta halaxe, herri hauek %86 birziklatzen da, besteetan birziklatzen den %26ren aurrean.

Halere, herria ez da inozoa eta dantzari jarri zen, Zubietan flash mob erraldoi bat eginez, 2.000 gipuzkoarrek moratoria eskatzen zuten bitartean. Lady Gagaren doinupeko flash mob hunkigarria, herriaren indarrak errealtatea alda dezakeela erakusten diguna. Herriak Lemoiz geratu zuen eta erraustegia ere geratuko du agian.

Lemoiz ona eta beharrezkoa zela zioten horiek orain Fukuyamakoarena present izanik ez dute gauza bera aurrez aurre esateko ausardiarik izango, baina erraustegiaren beharra justifikatzeko baliabideak onartzen ari dira. Oñatin, esaterako, iragan astean 5. edukiontzia aldeko hautua egin dute PNV, PP, PSOE, ARALAR eta H1ek, edukiontzi honen erabilerak hondakinak guztiz bereiztea eta erabateko birziklapena lortzen ez duela gauza agerikoa den arren. Zer esan nahi digute alderdi hauek: Japonian bezala ezer ez dela gertatzen gertatzen den arte? Eta hala bazan eta ez bazan sar dadila gure ateetako kuboetan!

USTEAK USTE

IBAN ARANTZABAL | 'iarantzabal@goiena.com'


Informazioa libre

Seguruenik belaunaldi kontua da. Gogora dator kit unibertsetateko maisu-maistren jokamoldea, bakoitza bere kaxoian ikerketak gordetzen. Edo museo retro horietakoren bat, argazkiak ez ateratzeko eskean, koadroei flashik ez botatzeko. Ez dut ulertzen. Azkena, Gerediagako Jon Irazabali Gerra Zibileko argazkiez: "Italiatik iritsi berriak gara eta ez dugu momentuz erabakirik hartu. Akaso liburu bat aterako dugu, akaso ez. Ez dakigu erabakia gure eskuetan dagoen ere". Pena da. Lehenengo bururatuko zitzaidana izango zen erretratuok sarean jartzea denon eskura eta lizentzia egokiekin. Hori bai, neuk ere ez dakit zeinen eskuetan dagoen hori egitea. Akaso, geurean.

"Herriaren indarrak errealtatea alda dezake"

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Emakume gutxi eta gaizki irudikatuak zineman

Mikel Garcia
'http://argia.com/erredakzio-mahaia/mikel-garcia/'

Kazetariok ez omen diegu emakumezko autoreei galdetu behar ea zergatik egiten dituzten emakumeak protagonista dituzten obrak, gizona ez diegula galdetzen zergatik duten gizona protagonista euren lanetan. Baina badirudi, hainbat gairi emakumezkoek heltzen ez badiete, ez dituela inork plazaratuko. 2009ko apirilean aurkezturiko *Cine y género en España. Una investigación empírica* (Zinema eta generoa Espainian. Ikerketa empirikoa) liburuaren arabera, 2000. urtetik 2006ra Espainiako Estatuan egin diren filmetan, behin bakarrik agertu da erabaki transzendentea hartzen duen emakume protagonista bat: *Yoyes*-en, E'Tako kideari buruz Helena Tabernak zuzenduriko filmean. Ikerketak argi uzten du: zinema munduan, ekoizleen artean %15

dira emakumeak, %10 gidoilarien artean eta %7 zuzendaritzan. Emakume zuzendariak %50 direnean primerakoa izango dela uste du Helena Tabernak, munduaren ikuspegia bi aldeetatik etortzea mesedegarria delako. Gizonak eta emakumeak begirada desberdinak al ditugu ba? Begirada pertsonalitatearen arabera dela ihardetsi dit, baina gizonak gizonekin egin duten moduan, emakumeak askotan emakumeengan jarriko dutela begirada, hobeto ezagutzen dituztelako. "Berdintasunaren alorrean mundua oraindik demokratikoa ez denez, ezin da gehiago zehaztu, bai nik eta bai zuk estereotipo asko ditugu jasoak begiradari buruz, zein modutan azaldu behar duten zineman emakumeak eta gizonak. Emakume zuzendari gehiago iristea beharrezkoa da, begirada desberdin gehiago jasotzeko, mundu aberasgarriagoa sortzeko".

Aipatu ikerketa ez da soilik kopuruz mintzo. Aztertutako filmak edukiekin ere kritikoa ageri da, pertsonaiekin nahiz ikuspegiaren monopolio maskulinoa nabarmena dela ondorioztatuz, eta emakumez ematen den irudia aldir, estereotipatua. Bestelakoak dira

zinegile nafarraren pertsonaia: emakume indartsuak, buruaskiak, familia aurrera ateratzen dutenak, ekintzaileak... "Alegia, ezagutzen ditugun modukoak, ez? Nire inguruan bai behintzat, gehienak horrelakoak dira". Garrantzitsua litzateke emakume zuzendariak soilik ez, gizon zuzendariak ere klixetatik aske dagoen irudia ematea emakumez. "Liburua irakurrita harrigarria da zein planteamendu matxista darabilten zuzendariak, inkontzienteki agian, eta beharbada jabetu ere ez gara egin pelikula ikusterakoan. Zergatik ikusi behar ditugu zineman gizon burusoil eta tripandiak emakume gazte eta ederrekin? Imajinario maskulinoan funtzionatuko du agian, baina ni ez naiz horrekin identifikatzen eta sinestea ere kosta egiten zait", Tabernaren gogoeta.

Kaleratu berri dudan eta hainbat zinegileri egindako elkarrizketak biltzen dituen *Zeluloidezko begiradak* liburuak pasarte da goikoa. Argiaren 2272. zenbakian, liburuak beste hainbat pasarte jaso ditut *Eraso politikoak istorio deserosoi* erreportajearen (zinemaren eta politikaren arteko harremanaz).

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibua Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Munduriano, Zorrotza Martin, Itxaso Bereizbar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com


ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurjaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Elgetako Intxortako Lehoiak Peñaren inaugurazioa

Eloy Marteatxe

(Athleticen Peñen Agrupazioaren lehendakariordea)
Arrasate

Zuen peñaren aurkezpen ekitaldira Athletic Clubeko Peñen Agrupazioko ordezkari moduan joateko ohorea izan nuen.

Aurkezpen egunean pertsonalki esan nizuen, baina orain jendearen aurrean adierazi nahi dizuet nire zorionak eta nire esker ona lerro hauen bitartez.

Ez da holako egokiera batean tokatzen zaidan parada bakarra, holako ekitaldi askotan izan bainaiz, eta bakoitza berezia izaten da.

Oraingoan, Elgetako herri txiki eta politean izan da eta giputza naizen aldetik emozioak sakonagoak ziren oraindik.

Nola ez baloratu zuek, Intxortako Lehoiak Peñakook, egindako ahalegina ekitaldiko xehetasun guztiak behar bezala zaintzeko.

Ageri-agerian zegoen: bandera zuri-gorriak herrian zehar, baita udaletxean ere, neska-mutiko askoren elastiko zuri-gorriek eragindako emozio zirrarragarria, Athleticen aldeko giro orokorra.

Eta ezer ez zen utzi azalean, dena zegoen ondo antolatuta.

Honek guztiak oso ondo erakusten du zer den eta zer islatzen duen gure Athleticen, baita Gipuzkoan ere.

Gabeziak, hutsegiteak... ez dira zuen erantzukizun, xehetasun horiek zaindu behar dituztenenak baizik.

Bihotz-bihotzetik, eskerrik asko, Intxortako Lehoiak Peñako lagunoi, gogor egin eta zuen Intxorta mendi heroikotik botatako "Aupa, Athletic!" tsunami zuri-gorria bezala Euskal Herriko txoko guztietara zabalduko da.

Zer moduz, guraso hori?

Ixabel Agirresarobe

(Usurbilgo ama bat)
Usurbil

Ni hiru semeren ama naiz, gurasoa alegia, eta beste guraso batzuei laguntza eskatzen dizuet galdera bati erantzuna emateko.

Denok dakigu ez dela bide erraza gure seme-alaben heziketa.

Beraien etorkizuna gure eguneroko borroka da eta horrexegatik asko arduratzen gaitu eguneroko zereginak.

Esate baterako: eskolako lanak, bertako eta etxeko jarrera, aisialdia...

Hamaika amorrazio, neke eta kezka izaten ditugu, baina emaitza onak ere jasotzen ditugu.

Beraz, borroka honek merezi duela ados gaude, ezta?

Badaude beste zeregin batzuk, non ez den inoiz borroka bat izan.

Gure haurrak gaur

egunekoak esan nahi dut, jaino orduko zaborraren arazoa ez dute arazo ikusten.

Badakite zein edukiontzitan bota zabor bakoitza eta gure herrian atez ateko sistema martxan jarri denetik, zer esanik ez.

Berdin du zein lagunen etxera joaten diren, denek berdin bereizten baitute.

Aitona-amonen etxean ere berdin.

Izan ere, gustua ematen dit nire semeek zein erraz egiten duten zeregin hau ikusteak.

Badakite etxeko erosketak egiterakoan etxetik poltsa eramanez gero zabor gutxiago sortzen dutela.

Badakite, baita ere, ogia erosterakoan bere zorroa eramanez behar dutela eta ikusten naute arraina edo okela erostera joaten naizenean fianbrera bat eramanez dudala eta arrain usainik ez dela geratzen etxeko zaborretan.

Hala, gure etxean zaborra geroz eta gutxiago osatzen zaigu.

Horixe da, baita ere, gure helburua.

Baina, ordea, erraustegi bat jartzeko bada, erregaia beharko du funtzionatzeko; hau da, zaborra, bestela ez dauka-eta izateko arrazoirik.

Orduan, zer esan behar diet nire semeek, ez bereizteko zaborra horren txukun?

Ez kezkatzeko erosketak egiterakoan zenbat plastikozko poltsa behar ditugun?

Zaborra sortu egin behar dela?

Ez al da hobe zaborra murriztea eta osasuna zaintzea?

0+

Jaione Isazelaia

Bergara

Azken egun hauetan, orain dela hogeita hamar urte baino gehiago nirekin gaueskoletan ibilitako bi ikaslerekin elkartu naiz, bata puntako ingeniaria eta bestea amama egindako etxekoandrea, eta ez bata ez besteak ez dute lortu euskaraz ganoraz berba egiterik.

Ingeniariak esan zidan seme-alabei "indioak bezala" hitz egiten diela eta ulertu ere, gauza asko ulertzen dituela.

Askok poztu ninduten haren lorpen horiek; izan ere, hizkuntza dominantea erraztasunez menderatzen duen hiztunak nekez onartzen du "indioak bezala" hitz egitea, deserosoa ez ezik, a ze komunikazio galera!

–irudituko zaio, seguruenik. Nire ikasle ohi honi esfortzu horrek merezi duela iristen bazaio, bejondeigula!

Gaueskolek lortu dute gure hizkuntzarentzat hiztun berri bat, hiztun totela, noizbehinkako hiztuna, baina hiztuna.

Baina gehien poztu ninduen etxekoandrea izan zen.

Aurreko igandean elkartu nintzen berarekin familiako bazkariaren ondoren.

Hark ez du tutik ere hitz egiten.

Geure bizitzaren berri elkarriz eman ondoren, gaueskolako kontuak ekarri genituen gogora –tira, arratsaldeko gaueskolak ziren, etxekoandreen ordutegira moldatutako gaueskolak–.

Les dejaba a las niñas en

la ikastola y me iba a aprender euskera– zioen.

No aprendiste mucho... –alaba zirikatzaileak aldamentetik.

Pero vosotras sí que aprendisteis– amak, zentzu osoz.

Bere ama euskararentzat zero positiboa izan dela esan nion, berak oso gauza garrantzitsuak egin dituela euskararen alde, baina ez dut uste ulertu zidatenik.

Zer gara hiztunak euskararentzat?

Euskal hiztun gehienak euskararen erabiltzaile gara, guretzat euskara komunikazio tresna da.

Badira beste euskal hiztun batzuk hizkuntzarekin sortu egiten dutenak, hizkuntza egin egiten dutenak, idazleak, bertsolariak, abeslariak, hizkuntzalariak... beraiek osatzen dute hizkuntzaren bihotza.

Badira ere euskara ikasteak merezi duela erabaki dutenak, ikasi dutenak eta ikasten ari direnak, euskararen hiztun komunitatea handitu ez ezik aberastu egiten dutenak.

Eta badira, baita ere, "zeroak", euskaraz hitz egiten ez dutenak, euskaraz sortzen ez dutenak, ikasten ez dutenak...

Hala ere, zero hauek, positiboak direnean, mesede itzela egiten diote euskarari.

Gaueskoletan ibili eta ikasi ez dutenak, beraien umeak *en euskeraz* ikasteko ahalegina egin dutenak, ikastolei sorreraren bultzada eman zietenak, erbestetik etorri eta euskara hautatu dutenak... zenbat zero positibo euskararen alde aritutakoak!

Guztiei, bihotzez, eskerrak!

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 0513



Baterako ekintza bat proposatzen dugu eraiki behar diren bi jarduera unitateetarako, eskailera eta igogailu bakarrekin.

Prezioak: etxebizitza balorazioaren baliokideak. 150.000 €-tik 247.000 € arte (trastelekua barne).

Informazioa:
943 71 47 46



6 ETXEBIZITZAREN SUSTAPENA LEINTZ GATZAGAN Rosario kalean

	MOTA	AZALERA ERAIKIA	LOGELAK
1	Duplexa	117 m ²	4
1	Duplexa	103 m ²	3
2	Etxebizitza	90 m ²	3
2	Etxebizitza	70 m ²	2

10 m² inguruko 6 trasteleku erdi-sotoan

Pello Urizar | Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia

"Gure apustuarekin bat egiten duten herritar asko daude alderdi politikoetan ez daudenak"

- ▶ Bilduren apustua sakona eta epe luzekoa dela dio EAko idazkari nagusiak
- ▶ "Emitza oso onak espero ditugu eta Gipuzkoan lehen indarra izan daiteke Bildu"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Ezker abertzalearekin eta Alternatibarekin sinatutako akordio estrategikoa dela eta protagonismo handia hartu du EAk azkenaldian. Bildu koalizioaren gainean aritu gara EAko idazkari nagusi Pello Urizarrekin.

Bildu koalizioa aurkeztu berri duzue. Noiz izango dituzue zerrenda guztiak itxita?

Apirilaren 18rako. Kasu batzuetan, egun batzuk lehenago.

Zapatuan Bilduren hautagaien aurkezpen ekitaldia daukazu Kursaal-en. Han izango dira Debagoieneko alkategaiak ere?

Bai, han izango dira hemengo hautagaiak ere. Akaso, ez denak, ordea. Hautagai guztien aurkezpena ez da izango, toki batzuetan zerrendak erabat itxi barik daudelako.

Bilduk Hego Euskal Herriko erakunde guztietan aurkeztuko ditu zerrendak?

Bai, hori da gure asmoa, erakunde guzti-guztietan aurkeztea. Jakina, udal baten edo bestean, baliteke ez aurkeztea, esate baterako Leintz Gatzagan eta haren moduko herri txikietan. Luzera begirako dinamika da EA, Alterbatiba eta ezker abertzalekoen arteko elkarlana, eta toki konkretuetan gerta daiteke ez aurkeztea, berez herritarren plataformak aurkeztu izan ohi direlako. Herri ekimen horiek aintzat hartu eta errespetatu egingo ditugu.

Zerrendak osatuko dituzue EAkook, Alternatibakoek eta independenteek. Azken hauek ezker abertzale ingurukoak izango dira?

Berbak berak esaten du independenteak zer diren. Eta udal eta foru hauteskundeetan, bereziki, alderdi eta koalizio guztiok erabili izan ditugu independenteak. Izan ere, ohikoa da alderdietara hurbiltzen ez den jendea udal hauteskundeetan hurbiltzea. Herri erakundeetara gerturatzeko dinamika logikoak dira horiek. Gure apustuarekin bat egiten duten herritar asko daude alderdi politikoetan ez daudenak.

Ze alderditakoak izango dira zerrendaburuak?

Planteamendua da ahalik eta zerrenda pluralenak osatzea eta alkategaiak aukeratzekoan ere aintzat hartzea aniztasuna. Hori da gure apustua.

Baina independenteak izango dira zerrenda gehienetako buruak?

Denetik egongo da.

Bailarako alkategai batzuen izenak ematerik bai?

Ez. Formak zaindu behar dira eta, lehenik, hautagai guztiek jaso



Pello Urizar, Goienako egoitzan, Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

behar dute herrietako batzarren onespina. Ni, orain, ezin naiteke izenak aipatzen hasi. Gauza guztiek dute beren erritmoa eta horiek errespetatu behar dira.

Zu zeu Bilduren zerrendetan joango zara Arrasaten?

Komenigarria da herritar guztiek, gutxienez, agintaldi bat ematea udalean, herrigintzan murgil daitezen eta herriaren alde udaletik lan egitea zer den jakin dezaten. Sei urte eman ditut orain arte Arrasateko Udalean eta gustuko dut lan hori, baina unea ailegatzan

"Komeni da herritar guztiek, gutxienez, agintaldi bat ematea udalean"

"Gehiengoa abertzalea izanda ere, erakundeetan ez da hori islatzen"

denean argituko dut berriro aurkeztuko naizen edo ez.

Bilduren zerrendetan doazenez giza eskubideen aldeko kodigo etiko bat sinatuko dutela entzun da.

Halaxe da, bai. Gure borondatea ez da legez kanporatuen esparru hori zabaltzea, baizik eta indar subirano eta ezkerrekoak erakundeetara eroatea. Hautagaiak kode etiko bat sinatuko dute.

Estatuko fiskaltzak luparekin begiratuko ditu zerrendak...

Luparekin baino gehiago, mikroskopioarekin begiratuko dituzte.

Baina guk gauzak garbi ditugu eta ez dut ikusten arazorik alde horretatik.

Hauteskundeetara aurkezteko Sorturen edo ezker abertzalearen B plana ez dela azpimarratu duzue behin eta berriro.

Argi eta garbi utzi dugu hori. Sortu legezko izango balitz, koalizioan eskubide guztiekin eta garden parte hartzeko aukera izango luke. Gu ez gabiltza ezer ezkututzen.

Bilduren ezaugarriak edo ardatz ideologiko nagusiak zeintzuk dira?

Batetik, jendartearen gehiengo zabal batek bere burua identifikatzen du autodeterminazio eskubidearen eta erabakitzeko eskubidearen aldeko. Eta, bestetik, bere burua ezkerreko dauka. Baina ikusten dugu hori ez dela erakundeetan islatzen. Eta gure helburua da erakundeak tresna bezala erabiltzea Estatuarekin lehia demokratikoan aritzeko. Era berean, gobernu guztiek darabilte formula bertsuak krisiari aurre egiteko: formula neoliberalak. Krisia sortu zutenak zigortu beharrean, nomina batekin kontrolatuta gaudenon bizkarrera erori da krisiaren ondorioak ordaintzea. Horri buelta eman gura diogu Bildun.

Ze emaitza espero dituzue?

Emitza oso onak. Eta ahalik eta alkatetza gehien. Gipuzkoan aukera daukagu lehen indarra izateko. Eta beste herrialde batzuetan bisagra lanak egin ditzakegu. Oso kontuan hartzeko indar politikoa izan gaitezke. Erakundeek aldatetarako tresna izan behar dute.

Nafarroa Bai baino gehiago izan daiteke Bildu Nafarroan?

Gure lehia ez da Nafarroa Bairekiko. Hori kaltegarria izango litzateke. Gure aurkari politiko nagusia UPN da eta, ondoren, PSN. Izan ere, Nafarroan aldaketa politikoa gertatzea da helburua.

Posible da?

Orain zailago, abertzaleak zatituta aurkeztuko garelako. Abertzaletasunak ez dauka gehiengoa Nafarroan, eta, artean, zatituta aurkeztuko gara. Baina euskal kulturari eta euskarari horrenbeste kalte eragin dion gobernuaren kolorea aldatu beharra dago.

Sortu legezkatzea eskatzeko manifestazioa deitu duzue egubakoitzeko Arrasaten. Zergatik?

Nazio mailako mobilizazioak egin dira eta herri mailan ere beharrezkoak direla uste dugu.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.

943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

DUELA 10 URTE

2001-04-04

Fun Lovin' Criminals Bergaran

New Yorkeko hiruko ezagunak 800 pertsona inguru erakarri zituen bergarako Jam aretora. Askotariko estilo nahasketa da talde horren ezaugarria, eta gurera momentu hartan laugarren diskoa, *Loca*, kaleratu eta hilabetera etorri ziren.

Makarra edo golfo ospea zuten taldeko kideek, baina Bergarara apal eta jator etorri ziren: bukaeran, musuak eta garagardoak oparitu zizkieten aurreko lerroetakoei.



Fun Lovin' Criminals. | GOIENA

2001-04-02/03

Korrika 12, Debagoiengan

Aurten bezala, bi txandatan pasa zen duela bost ediziotako Korrika gure ibarretik. Hilaren 2an, urte hartan astelehena, 21:00 inguruan Bergaran sartu zen, eta ondoren, Antzuolatik irten. Hilaren 3an, aldiz, 00:30ean Oñatitik sartu zen berriz ere. Elgeta eta Aramaio kenduta, ibarreko gainerako herri guztietatik pasa zen. Gau eta goizalde partean izan arren, oso harrera eta parte-har-teberoa izan zituen.

DUELA 5 URTE

2006-04-05

Erromesaldia Arantzazura

Ia bi aste lehenago, ETak su-ete-na iragarri zuen, eta horrek itxaropena ekarri zuen Donostiako elizbarrutiak antolatuta, urtero Arantzazura egiten den erromesaldira. *Kristau elkarreak berritzen* izan zen pankartaren leloa, eta, besteak beste, Juan Mari Uriarte gotzainak eta Jaurlaritzako Miren Azkaratek eroan zuten.

ARRASATE

HERRITARRAK

Jose Luis Azkarate 'Zelaitxo' 1944ko uztailean etorri zen mundura arrasatear hau, eta, Ferrerías kalean jaio zen arren, Zigorrolan bizi da aspalditik. Erretiratuta dago, baina ez du geldi egoteko astirik. | TXOMIN MADINA

"12 urterekin, neu baino handiagoa zen tronboia jotzen nuen bandan"

Musika eta kirola, horiek biak dira orain dela ia 67 urte Arrasaten, Ferrerías kalean, jaiotako Jose Luis Azkarateren bi pasioak. Mondrako lehendakari ohia, urtero parte hartzen du zarzuelan eta Txorbela otxoteko kide ere bada.

Ferrerías kalean jaio eta hazitakoa zara. Nolakoa zen orduan Arrasateko kaleko giroa?

54. zenbakian bizi ginen gu, azken etxean, eta lehen, autorik ez zen ibiltzen han. Umetan, gurea zen eskolara joan eta jolas egin: *mata-perros*, txapekin, aterkietako barillekin egindako geziekin, beste kaleetakoekin gerrak, futbolekin... Gaur egun kalean ez dago ezer, baina orduan, emakumeek bankuak kalera ateratzen zituzten eta gauean berbetan egoten ziren, kritika eraikitzailea egiten.

Orduetik hona duzu musikarako zaletasuna?

12 urterekin hasi nintzen. Etxean, aita eta bost anaiak, denak ibili gara bandan. Solfeoa ikasi eta urtebete inguru pasa nuen Justo Munarrizekin ikasten. Handik urtebetera sartu nintzen bandan, 12 urterekin tronboia jotzen; neu baino handiagoa zen tronboia! Gero, fliskornoa jotzen hasi nintzen; baina, soldadutzara joan, eta banda utzi nuen.

Zarzuelan ere hasiera-hasieratik zaude.

Halaxe da, eta oso gustura nago. Azken eguna izaten da onena: entseguak zailak dira, eta estreinaldian eta gainerako emanaldietan ere urduri zaude barrutik... Baina, amaitzean, *pax christi!*

Eta orain dela bizpahiru urtetik hona, Txorbela otxotean ere bazaudu.

Lagun batzuek esan zuten hemen galduta zeudela otxoteak, eta ea Arrasaten sortuko genuen bat, eta halaxe izan zen. Lehen gauza izena aukeratzea izan zen; Arra-



Jose Luis Azkarate Zelaitxo. | TXOMIN MADINA

"Ez dut ahotsa zaintzeko truku berezirik, berezkoa dut"

"Presidentea izan edo ez, Mondrak galtzeak berdin egiten du min"

saten orbelari txorbela esaten zaio eta hortik hartu genuen izena. Lehenengo, zapatuetan entseztzen genuen; ondoren, domeketan; eta azkenean, egubakoitzetan entseztzen dugu. Hamabi-hamahiru gara, eta han ez du inork hutsik egiten!

Oker ez banago, orain suediera ikasten zabilzate...

Otxotearekin elkartrukeak egiten ditugu, eta ekainaren 10ean Suediako talde bat etorriko da; ordu-rako lauzpabost kantu ari gara suedieraz ikasten. Emanaldi asko izan ditugu kanpoan: Sos del Rey Catolicon, Granadan, Donostiako Aquariumean... Herrian bertan ere abestu genuen, San Frantziskon, eta eliza bete egin zen!

Ahotsa zaintzeko trukurik badaukazu?

Ez, berezkoa dut. Esaten dute arrautzak-eta jan behar direla, baina ez dut halakorik egiten.

Musika bai, baina kirola ere oso gustuko duzu, batez ere futbola... Zenbat partidu ikusiko zenituen?

Uf... Mondra taldearen gehienak, eta gero gazteenak, kadeteenak... Eta Realarekin ere denak; andrearekin, gainera, baita bere garaian umeekin ere. Joan den domekan haserre etorri ginen Anoetatik, Reala ez nuen ondo ikusi.

Mondrako presidente ere izandakoa zara. Presidente moduan, ezberdin ikusten da?

Ez. Presidente izatea proposatu zidatenean, esan zidaten ez nuela ezer berezirik egin behar, argazkietarako-eta zela... Baina Mondrak galtzen duenean, presidente izan edo ez, min bera egiten du.

Mondrak ala Realak, zeinek irabaztea nahiago?

Hori da hori galdera! Irabaz dezatela biek. Bien zale amorratua naiz.

NIRE HERRIAN

ZERBITZU ASKO DITUGU

Gauza asko daude gustatzen zaizkidanak. Hasteko, zerbitzu asko dago: Mondragon Unibertsitatea, ospitale berria, kooperatibak, lantegiak... Mugimendu musikala ere handia da: Arrasate Musikal, abesbatzak... Horretaz gainera, zenbait lekutan ditugun lorategiak ere ez dira nolanaikoa!

APARKALEKU FALTA DAGO

Zigorrola auzoan bizi naiz gaur egun, eta han, normalean, ez dut aparteko arazorik izaten aparkatzeko orduan. Baina erdigunean autoa uzteko orduan bai, orduan kosta egiten da autoa aparkatzea, zaila izaten da oso. Biteriko aparkalekua ere hor dago, baina ez dakit zergatik den itxia, nik irekia egingo nuke.

Nola ikusten duzu Mondra aurretik?

Ez dakit etxean zer gertatzen den... Galdu edo berdin egiten dute, baina kanpoan hobeto ari dira jokatzeko. Hala ere, gehiago gustatzen zait gaztetxoak ikustea, gazteak, kadeteak, baita emakumeak ere.

Kirola ikusi bai, baina egiten duzu?

Astero hiru aldiz frontenisean jokatzen joaten gara lau lagun. Han ibiltzen gara, jo eta su! Eta gero, indarrak berreskuratzeko, elkartera joaten gara afaltzera. **Hori ere esan digute, elkarrean otordu ederrak prestatzen dituzula.**

Tira, ederrak... Niri tokatzen zait beti egitea. Nire espezialitatea zein den? Arbigarak! Menestra ere nahiko ona egiten dut; paella, olagarroa... Etxean, emaztea badago, hark egiten du; baina tarteka ni ere ibiltzen naiz sukaldian.

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

Arlabango Plan Berezia martxan jartzeko abiapuntua, ur depositua

- ▶ Gatzagaingo ur depositu berriraino ponpatu beharko dute ura herritik
- ▶ Martxoaren erdialdean hasi zituzten lanok eta abuztu erdialderako amaitzea da asmoa

EDU MENDIBIL | LEINTZ GATZAGA

Eibar-Gasteiz autobideko lanaren erruz, ur hornidurarekin zituzten arazoak areagotu egin ziren Leintz Gatzagan. Horren lekuko, Eusebio Villar alkateak emandako datuak: "Orain dela hiru bat urte 60 m³ (60.000 litro) ekarri behar izan genituen Gatzagaingo ur deposituraino hiru txandatan. Irail aldera izaten dira arazo handien urarekin, eta aspaldian izan da sikate bat edo beste. Kontuak kontu, Diputazioaren bidez, ur-bilatzaile pare bat ibili izan da inguruan eta haietako batek zera esan zigun iaz, posible zela egunero 8.000 litro ateratzea hainbat iturburutatik. Baina kantidad hori ez da nahikoa herriaren beharretarako, eta, beraz, Ur Partzuergoarekin batera, depositu berria jartzeko erabakia hartu zen azkenean".

Gatzagainen, oraingo deposituaren inguruan jarriko dute depositu berria eta lanak hasita daude dagoeneko. Izan ere, haraino ponpatu egin beharko dute ura herritik. Martxoaren erdialdean hasi zituzten lanok eta egunotan Arrate eta Okondoko baserrien inguruan jardun dute Erga SL enpresako langileek. Hasiera baten, lanak abuztu erdialdean amaituko dituzte. Aurrekontua 617.000 euro inguru da. Leintz Gatzagako Udalak 167.000 euroko ekarpena egingo du. Gainerakoa Diputazioko Landagipuzkoa 32 egitasmoaren laguntzarekin ordainduko da.

Maroto basoko iturburutik iristen da ura Arlabanera gaur, baina, esan bezala, uda partean



Gatzagaingandik gertu jarriko dute ur depositua eta haraino ura ponpatuko dute behin lanak amaitutakoan. | E.M.

bereziki ez da nahikoa. Gabezia hori betetzera dator depositu berria, 120 m³-ko edukiera izango duena.

Aisialdigunea eta natura

Arlabango Plan Berezirako funtsezkoa da ur depositu berria. Besteak beste, aisialdirako gunea eta nekazaritza-turismoko jarduerendako tokia aurreikusten ditu aipatutako planak. Babestu beharreko guneak ere (Aizkorri-Aratz parkean sartutako lurrak tartean) jasotzen dira. Behin plana abian jarritakoan, Jakion enpresa Gaztainuzketa ingurura eroatea da asmoa. Gaur egun Gatzagako San Migel plazan dago Jakion, baina azpiegitura hobek eskaini nahi zaizkio dagoeneko hamar urtetik gorako ibilbidea duen enpresari.



Arrate eta Okondoko baserrien artean hasitako lanak. | E.M.



Eusebio Villar alkatea, Arlabango Plan Berezikoko planoekin, udaletxean. | E.M.

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

AROSZTEGIA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ALTZARI DENDA

San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak



Barruko igerilekuak Aste Santu ostean zabalik

Maiatzaren 2a dute, oraingo, irekitze data, baina ahalegina egiten dabilta apirilaren 26rako zabaltzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Ia hamaika hilabeteren ostean, atzera ere zabaldu behar dituzte Arrasateko barruko igerilekuak. Maiatzaren 2a da, oraingo, data segurua, baina kiroldegiko ordezkariak ahaleginak egiten dabilta data hori apirilaren 26ra aurreratzeko. Datozen egunotan jakinaraziko dute hori.

Edozelan ere, jakinekoa dena da joan den urteko ekainean hasi zituzten obrak (ezusteko eta guzti) bukatzeaz daudela.

Sakonera eta inpermeabilizazioa

Bi konponketa handi egiteko itxi zituzten barruko igerilekuak: igerilekuen sakonera txikitu eta igerilekuak inpermeabilizatu. Baina obrak egiten zebiltzala, ezustean ikusi zuten igerilekuen sabaiaren egoera oso kaskarra zela, arrisku-tsua. Eta sabaiak konpondu behar horrek eragin du igerilekuko obrak orain arte luzatzea.



Igerilekuak garbitzea eta urez betetzea falta da orain. | U.M.

Igerilekuen sakonerari dagokionez, obra egin ostean 1,80 m. da igerilekuaren gehieneko sakonera; erdian 1,60 m. ditu eta izkitan 1,20 m. Obra egin aurretik, berriz, 1,80-2 m. inguru zen sakonera. "Batetik, erabiltzaileei lasaitasuna ematen die sakonera txikitzeak eta bestetik, metro kubiko ur asko aurrezten da, eta, jakina, baita ere, ur hori berotzeko prozesuan", adierazi dute kiroldegiko ordezkariak.

Ikastaroak eta abonua

Igerilekuak zabaltzeaz bat, bertako ikastaroak abiaraziko dituzte, maiatzaren 2an. Eta eman daiteke izena horietan parte hartzeko; kiroldegian egin behar da hori.

Era berean, bonu-sisteman aldaketak izango dira. Batetik, igerilekuko bonuak egin daitezkeelako. Bestetik, zonalde lehorretik bonu plusera pasatu ahal delako. Eta azkenik, udako bonua ere atera ahal delako. "Bonuen prezioak urtea bukatzeko falta den denboraren arabera aplikatuko ditugu", diote kiroldegitik.

BONUAK

BONU MOTAK PREZIOAK

Igerilekuko bonua

Umeak 48,60 euro

Helduak 81,55 euro

Familiarra 130,15 euro

Lehorretik bonu plusera

Umeak 24,40 euro

Helduak 40,75 euro

Familiarra 65,10 euro

Udako bonua

Umeak 36,10 euro

Helduak 61,15 euro

Familiarra 97,55 euro

DATUA

1,80

METRO

Igerilekuko sakonera txikitu ostean, 1,80 metro da gehieneko sakonera. Ur eta berotze sisteman aurrezte handia ekarriko du.

IGERILEKUKO IKASTAROAK

Haurtxoen igeriketa

Maiatzaren 2tik ekainaren 10era

Umeen igeriketa

Maiatzaren 2-20/maiatz. 23-ekain 10

Helduen igeriketa

Asteleheneretik ostegunera

Aquagyma

Asteartean eta ostegunetan

Literaturzaletasuna saritugura du AED elkarteak

U.M. | ARRASATE

70 literatura lanen artean aukeraketa egin ostean, epaimahaiak 14 neska-mutiko eta gazteren lanak nabarmendu ditu AEDren literatura lehiaketako finalista izan daitezen (ondoko laukian).

Sari banaketa gaur zortzi egingo dute, apirilaren 15, 18:00etan, Kulturategi areto nagusian. Aurten Miren Agur Meabe idazle lekeitiarra izango dute gonbidatu berezi, bere idazle esperientziaren kontakizuna egin eta gazteen literaturarekiko sugarra piz dezan.

Datorren urtean 25. aldia

Urriari abiarazi zuen AEDk aurtengo lehiaketa, 24. edizioari dagokiona. LHko 6. mailatik hasi eta 23 urte bitarteko gazteek parte hartu dute. 33 bertso-paper, 20 ipuin, 15 poesia lan eta bi komiki aurkeztu zituzte. Arizmendi ikastolaren eta Institutuaren laguntza eskertu gura du AEDk.

FINALISTAK

IPUINA

► Maria Oses

► Alazne Zuazubiskar

► Maialen Gallardo

► Garazi Romero

► Maddi Labayen

POESIA

► Garazi Romero

► Jon Iraola

KOMIKIA

► Aitor Gonzalez

► Aritz Irigoien

BERTSO PAPERAK

► Jone Perez

► Marixe Ruiz de Austri

► Ane Zuazubiskar

► Arantazu Letona

► Asier Delgado



Langai ondoko plazapea egoki ikusten du Osakidetzak parkingarako. | U.M.

Udala gertu ospitaleko parkingari lekua egiteko

U.M. | ARRASATE

Arrasateko Udala gertu dago ospitalegunean lur azpiko parkinga egiteko lurzorua uzteko. Hala zehaztu du asteon, Osakidetzak aurkeztutako proiektuaren harira.

Hain justu, Osakidetzak Langai ondoko plazapea ikusten du egoki 118 lekuko aparkalekua eraikitzeko.

Txandaka funtzionatuko luke parking horrek; 08:00etatik 15:00etara izango luke derrigorrezko ordutegia eta solairu bakarra izango luke. Kostua, berriz, kontuan hartzekoa: 1.932.921 euro.

Inork ez du bere gain hartzen

"Arrasateko Udala gertu dago lurzoru hori uzteko, baina arazoa da Osakidetzak ez duela proposamenik aurkeztu, bidegarritasun plana bakarrik aurkeztu dute. Hau da, Osakidetzak ez du esan bere gain

hartuko duenik aparkaleku hori eraikitzea", adierazi dute Arrasateko Udaleko Hirigintza Sailatik. Izan ere, eta labur esanda, Arrasateko Udalaren iritzia da Osakidetzak bere gain hartu beharko lukeela parkinga eraikitzea. Baina, eta behin eta berriro oraingo Udala Gobernuak azpimarratu izan duen moduan, ospitale berriaren proiektuan dago arazoaren jatorria, ospitaleak ez zuelako planteatu irtenbiderik aparkalekuen arazoarendako.

NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE



Limosnarik ez

Ba ote dago gure artean inork "krisi" hitza, oraindik orain, aipatu ez duenik? Hitz madarikatua denok erabili dugu. Bizi ere, krisialdia denok bizitzen ari gara, baina ez denok neurri berean. Zoritxarrez, langileen eta txiroen arteko elkartzasunerako

aukera paregabea izan zitekeena erakunde publikotik jaso ahal deza-kegun dirulaguntzen lorpenaren lehiaketa bihurtu dugu.

Iñigo Lamarka Arartekoak ohartarazi gaitu: beharrean aurkitzen diren atzerritarrek dirulaguntza publikoak Euskal Herrian jaino garenok baino gehiago ez dituztela jasotzen, bestelakoak iruditu eta esaten baditugu ere.

Gurean, dirua barra-barra eta dirulaguntzak oparoak izan diren neurrian, atzerritarrek onartu ez ezik, deitu eta haien bila ere joan gara. Orain, beraietaz aprobetxatu ondoren, hemengoak ez direla azpimarratzen dugu. Horra hor, kapi-

talentzako inongo mugarik jartzen ez dituen gizarteak pertsonak beraien jabegoaren neurria lur eremu batean edo bestean finkatzen ditu. Produktzioa jaitsi eta lan sariak desagertu edo gutxitu direnean ez da garaia ondasunak banatzeko?

"Mondragon" izenpean jabetza sozialaren aldarrikapena eta errealitatea munduan zehar zabaldu da. Eta, akatsak agerian badaude ere, ukatu ezin dugu kooperatibek gizakia enpresaren ardatza izateko ahaleginak egiten dituztela. Guregana etorri diren eta gurekin bizi diren atzerritarrek kooperatibistak izatera ailegatu dira?

DATUA

118

APARKALEKU

Osakidetzaren arabera, ehundik gora aparkaleku behar dira ospitalegunean.

Badatoz antzerkia hezkuntza adierazpen gisa lantzeko saioak

Eskola-antzerkiaren jardunaldien 21. edizioa datorren astean abiatuko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ikasleen artean antzerki zaletasuna hezkuntza adierazpen gisa lantzeko helburuz, Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailek, Prebentzio Sailarekin batera, 2010-2011 ikasturterako ere antolatu dituzte eskola-antzerkiaren jardunaldiak. Egitasmoan parte hartuko dute Arrasate Institutuko eta Arizmendiko ikastolako Gaztelupe eta Almen guneetako ikasleek. Jardunaldiek 21 urte beteko dituzte aurten.

Jarduera Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleei dago zuzenduta eta hiru fasetan gauzatu da ekimena. Lehen fasean DBHko ikasleek lau obra antzeztuko dituzte LHko 4., 5. eta 6. mailako ikasleen aurrean. Antzezlan horiek apirilaren 12an eta 13an izango dira. Bigarren fasean ikasleek antzerki talde

DATUA

69

IKASLE AKTORE LANETAN

69 ikasle ariko dira aktore lanetan. Ikusle moduan, berriz, ehundaka ikasle.

profesionalen obrak ikusiko dituzte, maiatzaren 3an, 10ean eta 16an. Honako hauek dira obrak, hurrenez hurren: Paraiso taldearen *Txirulari magikoa*, Gorakada taldearen *Ogro txikia* eta Dar Dar produktioak taldearen *Etzi*. Lehen bi obratan emandako bi egingo dituzte -10:30ean eta 14:45ean-. *Etzi* antzezlanak, ordea, saio bakarra izango du, 10:30ean. Azken obra hori, gainera, pre-

bentzio ikuspegitik landuko dute unitate didaktiko moduan. Azkenik, hirugarren fasean LHko 6. mailako ikasleak eta antzerkia irakasgai moduan duten Amaia antzokiko instalazioak ezagutuko dituzte, modu didaktikoan. Bisita gidatu horiek maiatzaren 25ean eta 26an egingo dituzte.

Lau obra, lau istorio ezberdin

Lau obra prestatu dituzte ikasleek: *Irakasle gaiztoak*, dirua lortu nahian irakasle sartu diren hiru gaizkileren kasua; *Bederatzi ez da bederatzi*, etxe oso bat arakatu ostean atariko zembakian okertu den detektibearen gaineko komedia; *Gaixo tranpatiak*, egoera xeble eta barregarrien artean eskarmentu ederra jasoko duten tranpatien istorioa; eta *Musu baten bila*, barneko sentimendu ezkutua askatu osteko ondorioak taularatuko dituen antzezlan.

Erriberara irteera egingo dute Abaroako erretiratuek

J.B. | ARRASATE

Abaroako erretiratu elkarteak irteera antolatu du Nafarroako Erriberara datorren hilaren 19rako. Egun osorako irteera izango da: Castejonon egingo dute hamaiketako eta Azagran bazkalduko dute. Tartean, besteak beste, Bardeetako parke naturala eta Yugoko Birjinaren ermita bisitatuko dituzte. Izena apirilaren 11n eman behar da, 10:30ean; 27 euro ordaindu behar dira. Txartelak hilaren 18an banatuko dituzte, 11:00etan.

Bestalde, 1958an jaiotakoek urteroko hitzordua egingo dute apirilaren 30ean; Hilarion jatetxean bazkalduko dute. Interesatuek Jose Riviereri deitu beharko diote -943 79 10 57 edo 943 79 66 11 - apirilaren 24a baino lehen. Aurrez 20 euro ordaindu behar dira.

Apirilean 4.000 euro banatuko ditu Ibai-Arteko oparitan

Ibai-Arteko bazkide diren saltokietan txartela erabiltzen dutenen artean 4.000 euro zozketatuko dira opari txartelatan. Bezeroak unean bertan jakingo du saritua irten den ala ez. Zortekoa den bezeroak opari txartelaren saria egokitu zaion saltoki horretan trukatu ahal izango du hurrengo erosketan.

Hautesleer errolda ikusgai dago BAZen, astelehenera arte

Maiatzaren 22ko Udal eta Foru hauteskundeetarako botoa emateko aukera izango dutenen zerrenda ikusgai dago BAZen, hilaren 11ra arte. Herritar guztiei komeni zaie egiaztatzea botoa emateko aukera izango dutela. Aste-egunetan, 08:30etik 19:00ak arte, eta, zapatuetan, 09:00etatik 13:00ak arte egongo da zabalik BAZeko bulegoa.

Aralarrek Etxeberria aurkeztu du alkategai, hirugarrenez

J.B. | ARRASATE

Joxe Etxeberria hirugarrenez izango da Aralarren Arrasateko zerrendaburua. Duela zortzi urte egindako Plan Orokorra berrikusi egin behar dela uste du Etxeberria eta Arrasateren hazkundera, era kontrolatuan egiteaz gain, San Josepe aldera bideratu behar dela. Babes ofi-

zialeko etxe guztiak alokairukoak izatea eta erdialdean TAOren antzeko sistema bat aplikatzea "beharrezkoa" dela uste du Etxeberria. Rebeka Ubera Deba Urola barrutiko zerrendaburua ere izan zen agerraldian: Aralar hauteskundeetara "umiltasunez baina tinko" aurkezten dela adierazi zuen.



Rebeka Ubera eta Joxe Etxeberria, eguaztenez, Kulturatan. | TXOMIN MADINA

AGAKOK 20. urteurrenaren oihartzuna kalera ekarriko du asteburu honetan

Batzarra, herri bazkaria eta 20 urteon gaineko mahai-ingurua, besteak beste

J.B. | ARRASATE

Aste bukaeran 20. urteurrenaren oihartzuna kalera ekarriko gura du AGAKOK eta badirudi, gainera, horretarako eguraldi aproposa izango dutela. Gaur asanblada orokorra egingo dute (18:00), hau da, arrasatear oro gonbidatu dute gaztetxeko barne funtzionamendua ezagutu eta euren ekarpenak egin dezaten. Gero, 22:00etan, *Herio heroi* antzezlan.

Bazkaria Seber Altuben

Biharko egun osoko plana egin dute. Goizean mendi martxa egingo dute -Ferixalekuan geratu dira, 09:00etan- eta gero poteoa egongo da. Eguneko ekitaldi potoloena, baina, Seber Altube plazan egingo duten bazkaria izango da, 14:30ak aldera: "Halakoetan gaztetxea txiki geratu izan zaigu, eta gainera, ospakizuna kalera ateratzea



Iaz gaztetxean egin zen bazkaria. Bihar Seber Altube hartuko dute. | MONDRABERRI

gura genuen. Gainera, noiz egin da halako bazkari bat Seber Altuben? Zapatua da horretarako eguna!", dio Jon Azkoaga gaztetxeko kideak. Hortik aurrera parranda, eta gauean, ska doinuak Bilbo-

matiks eta Materia Gris taldeen eskutik (22:30). Domekan, azkenik, mahai-inguru irekia egingo dute gaztetxean (18:30): 20 urteotan izan diren bizipen eta esperientziak entzun ahaliko dira.

ESKAINITZA

- 3,45 x 1,55 m-ko sukaldeko altzaria.
- 4 cm-ko Duropal entzimera.
- 178 cm-ko hozkailu integratua.
- Ontzi-garbigailu integratua.
- Labe-bitrozeramika multzoa.
- Kanpai apaingarria, 60.
- 27 kolore aukeran.
- Lehenak salmentetan EUROPA.

5.550 €*
MUNTAIA eta BEZa barne

5 URTEKO GARANTIA

* Baldintzak eta modelo desberdinak denda ikusgai. Osagarriak ez daude barne.



ARITZ erreformak sukaldeak

Tel.: 943 03 78 73
Zerrajera kalea 1 L-2
20500 ARRASATE

- Sukaldeko altzariak
- Koltxoak
- ZAHARBERRITZEAK (Gremio guztien koordinazioa)
- Lurzoruak, ateak eta armairuak

MADE IN GERMANY

TRT Racing Team taldeak Nafarroako Openean garaipena

Igoeretako probak zirkuituko lasterketengatik aldatu dituzte Arrasateko Orobengoa anaiek: "Kilometro gehiago egiten ditugu, eta gehiago gozatu"

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasateko TRT Racing taldea lagun koadrila ederrak osatzen du, zirkuitutara lehiazera, edo beste proba batzuk ikustera joaten direnak. Lehiatzea tokatzen denean, Iker eta Igor Orobengoa anaiek ibiltzen dira Seat Ibiza Cupra D autoaz, eta hasi dira emaitzak jasotzen, Nafarroako Open probako lehen lasterketa puntuagarrian -Los Arcosko zirkuituan- azkarrenak izan ziren -eta euren klasean, eta hirugarren sailkapen orokorrean.

Esandako moduan, baina, Garagartzako anaiekin batera lagun hauek osatzen dute TRT Racing Team, lasterketak boxetatik jarraitzen dituztenak: Alain Solupe, Asier Arana, Xabi Altzelai, Iñaki Veci, Unai Arana, Orkatz Askasibar, Iñigo Garai eta Iñaki Juldain.

Podiumera igota

Orobengoa anaiek urteak darमतate Euskal Herriko lasterketetan -igoera eta ralliesprintetan- parte hartzen. Iaz, baina, zirkuituan ibiltzen hasi ziren, eta aurrez uste zutena baino askoz ere gehiago gozaten: "Batetik, ekonomikoki bideragarriagoa da, zirkuituan ibiltzea igoera batera joatea baino apur bat garestiagoa izan arren askoz ere kilometro gehiago egiten ditugulako; hala, lehian egiten dugun kilometro bakoitza merkeago ateratzen zaigu zirkuituan", adierazi digu anai gazteenak, Iker Orobengoa.

Labur esateko, igoera batean parte hartzeko pilotuek 180 euro ordaindu behar izaten dute, eta egun horretan 15 kilometro baino ez dituzte auto barruan egiten, 5 kilometroko tramuari hiru itzuli. Zirkuituan ibiltzeko 300 euro ordaindu behar izaten dituzte, baina egun horretan 200 kilometro egingo dituzte auto barruan: "Egia da zirkuituan gurpilak errazago gastatzen ditugula, baina hori beste kontu bat da", dio Ikerrek barrez.

Probak erabat ezberdinak

Autoa gidatzerako orduan ere, Ikerrek onartu digu erabat ezberdina dela igoeratan edo zirkuituan ibiltzea: "Normalean anaia ibiltzen da gidatzen, eta hari ez zaio gustatzen autoa zeharkatuta eramatea, garbi trazatzea gustatzen zaio, ahalik eta azkarren joatea". Eta, horrela gidatzea atsegin dutenek gehiago gozaten dute zirkuituan: denborak hartzea, zirkuituko zona bakoitza ondo ezagutzea, beste auto batzuk aurreratzea... zirkuituetako salta, azken batean: "Beste batzuek dako posible da aspergarri bilakatzea, zirkuitu berdinean itzuliak



Igor Orobengoa, Seat Ibiza Cupra autoaz, boxetara sartzen; eta Iker, mekanikari lanetan, korrika. | ARGAZKIA: BURU (TRT RACING).



Igor Orobengoa, eskuinaldean, podiumean. | ARGAZKIA: BURU (TRT RACING).



TRT Racing taldeko kideetako batzuk, Los Arcosen. | ARGAZKIA: BURU (TRT RACING).

egin eta egin ibiltzea. Dena dela, egia da igoerek ere badutela xarma berezi bat: ezusteko gehiago egon daitezke. Baina, zirkuituan ibiltzearen ez ditugu igoerak alde batera utziko. Aurten, Igorrek Gatzagako igoera egingo du, eta nik Udanakoa".

Zirkuituan ibiltzea seguruagoa ere bada: "Urte hauetan guztietan gurasoak ez dira sekula lasterketetara etorri, eta aurrekoan Los Arcosko zirkuituan izan ziren.

ESANAK

"Pozik hartuko genuke babesleren bat, inor animatzen bada..."

IKER OROBENGOA | TRT RACING

Ikusleek ere gehiago gozaten dutela esango nuke, igoeratan tartetxo bat baino ezin delako ikusi, eta zirkuituan, berriz, ia lasterketa dena. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiegu gurasoei, urte hauetan izan duten pazientziagatik".

Lehenengo garaipena

Nafarroako Openeko lehenengo lasterketari dagokionez, ezin da esan Garagartzakoek asteburua nahi moduan hasi zutenik: "Entrenamendu saio libreetan nahiko gaizki ibili ginen. Autoa gidatzeko zapatilak etxean ahaztu eta 4-5 itzuli baino ezin izan genituen egin [Barre]. Bigarren saioan, berriz, entrenamendu saioak hobeto hasi genituen, eta denborak irteten hasi ziren. Hala, Pole-rako laugarren denbora onena egin genuen [2.05]".

Hala, domekan 17 autotatik postu aurreratu samarrean hasi zuten lasterketa. Baina irteeran komisarioek arazo bat izan zuten semaforoarekin. Argiak banabanaban itzali ziren batera, eta Igor gaizki irten zen, bi postu galduaz. Eta, hortik aurrera, erremontada ederra: "Irteeran aurrea hartu ziguten bi autoak kurba gutxitan gaintitu zituen Igorrek, bietan barrutik, eta hurrengo sei itzulitan ondo ibili ginen, hirugarren sailkatzeraino -euren kategorian lehenengo. Orduan, baina, gurpilekin arazoak izaten hasi ginen, alboetatik gastatzen hasi ziren, eta Igorri muturretik joaten zitzaion autoa. Zorionez, bigarren lasterketarako gurpilak aldatu eta podiumean amaitu genuen lasterketa".

ZALDIBAR

EMAITZAK

Ekaitz-Dublin	9-4
Iritzu-McAwenDauen	4-8
Lasagabaster-Abokajarro	4-4
Dribling-Cipris	2-3
Betrayer-Fuxxion	13-6
Steaua del Grifo-Iluntz	2-9
Fidel & Disc-Portaboleiros	4-5
Abokajarro-McAwenDauen	2-6

SAILKAPENA

A LIGA	P	J
1 Dribling	9	4
2 Cipris	9	4
3 Abokajarro	7	4
4 McAwenDauen	6	4
5 Ekaitz	6	4
6 Dublin	4	4
7 Iritzu	3	4
8 Lasagabaster	2	4

B LIGA	P	J
9 Betrayer	10	4
10 Portaboleiros	8	4
11 Fuxxion	6	4
12 Fidel & Disc	6	4
13 Iluntz	4	4
14 Steaua del Grifo	0	4

PARTIDUAK

APIRILAK 9, ZAPATUA

10:00 Fuxxion-Portaboleiros / Steaua
11:00 Steaua-Fidel & Disc / Portabolei.
12:00 McAwenDa - Ekaitz / Fidel&Disc
13:00 Abokajarro-Dublin / Ekaitz
16:00 Betrayer-Iluntz / Lasagabaster
17:00 Dribling-Lasagabaster / Iluntz

Domekan ez dute Zaldibarren partidurik jokatu

Oraingo asteburuan Zaldibarko txapelketako norgehiagoka guztiak zapatuan jokatu dituzte, goiz eta arratsalde. Horrekin batera, Ciprisek eta Iritzuk jokatu beharreko norgehiagoka atzeratu egin da. Hala, A ligako fase berriko lau jardunaldi jokatu dituzte dagoeneko, eta pil-pilean dago dena.

Oraingo asteburuan jokatu dute B ligako azken jardunaldia

B ligan ere inork ez du amorerik eman nahi. Bihar jokatu dute multzo horretan ligako azken jardunaldia, eta Steaua del Grifo taldekoak dira, partidurik irabazi barik, aurrera egiteko aukerarik ez duten ordezkari bakarrak.

Gazte mailako errugbi taldeak Gaztedi hartuko du zapatuan

Mojategin jokatu dituzten partiduen artean, gazte mailakoek Gaztedi hartuko dute, bihar, 16:30ean. Eta lehenago kadeteek jokatu dute, eguerdian (12:00) Durangoren kontra. Senior mailakoak, berriz, kanpora joango dira, Zarautzera, bihar (16:00). Infantilak, azkenik, Iparraldera joango dira lehiazera.

Arrasate Musikaleko orkestra eta Goikobalu elkarrekin

Udaberriko Musikaldiaren barruan kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak eta Goikobalu abesbatzak elkarrekin eskainiko dute kontzertua bihar San Frantzisko elizan. Udaberri musikaldiaren barruan antolatutako ekitaldia da. 20:00etan da kontzertua.

Zapatuko kontzertua

1975ean Juan Artzamendik sortutako orkestra da Arrasate Musikalekoa. Gaur egun Arrasate Musikaleko orkestra bertako ikasle, irakasle eta eskolatik pasatako ikasleek osatzen dute. Zuzendaria Iker Olazabal da.

Hain zuzen ere, 2009ko udaberriko musikaldian eskaini zuen lehenengo kontzertua Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak. Orduetik hona, Gabon inguruan egiten duten zarzuelan parte hartu izan du orkestrak. Goikobalu abesbatzarekin elkarlanean eskainiko dute kontzertua. Arrasaten dagoen musika korarekiko ilusio eta zaletasunaren fruitua da Goikobalu. Iñaki Maidagan da abesbatzako zuzendaria.

Misa en sol –Franz Schubert–, *El cazador furtivo* –Carl Maria Von Weber– eta *Bailando con*



Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoa. | ARRASATE MUSIKAL

lobos –John Barry– lanak eskainiko dituzte bihar San Frantzisko elizan.

Gaur, EHUko abesbatza

Gaur, egubakoitza, EHUko abesbatzaz eta Hodeiertz abesbatzaz gozatzeko aukera egongo da San Juan parrokian, 20:00etan.

Enrique Azurzaren zuzendaritzapean jardungo dute bi abesbatzek. *De Missa Brevis*, *Beati quorum via*, *Ave maria* eta *Misa para doble coro* lanak abestuko dituzte.

Herriko txistulariak

Bihar, zapatua, Arrasate Musikaleko txistulariek kontzertua eskainiko dute Herriko Plazako arkupeetan. Normalean Kulturaren egiten dituzte euren emanaldiak txistulariek, baina oraingoan Herriko Plazara aterako dituzte txistu doinuak. 12:30ean da hitzordua. Euria eginez gero, udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da kontzertua. Parte hartuko dute Musika Eskolako txistu ikasleek. Haiek izango dira protagonista nagusiak.

Film laburren emanaldia martitzenean Kulturaten

Kepa Errasti aretxabaletarra Kulturaten izango da emanaldien ondoren solasaldia egiteko

A.E. | ARRASATE

Laburbira film laburren bira Arrasatera iritsiko da martitzenean. Zirkuituak geldialdia egingo du Kulturaten, hain zuzen, 19:00etan.

Topaguneak antolatuta

Euskarazko film laburren bira da Laburbira, Topaguneak antolatutakoa. Aurtengoa zortzigarren edizioa da.

Bederatzi ikus-entzunezko eskainiko dituzte emanaldian; tartean, bi debagoiendarren lanak: Asier Altunaren *Artalde* (2009) eta Kepa Errastiren *Maritxu* (2010). Emanaldiek, guztira, ordubeteko iraupena izango dute eta emanaldien ondoren aukera egongo da solasaldia egiteko Errasti aretxabaletarrarekin.

Kameratoia lehiaketa

Topaguneak Kameratoia lehiaketa antolatzen du 18 eta 35 urte bitarteko gazteendako. Hala, aurtengo Laburbiran 2010eko Kameratoia lehiaketako hiru lan aukeratu dituzte: *Biak bat*, *Barrura begira* eta *Nire bista favoritoa*.

LABURBIRA 2011 FILM LABURRAK

Artalde

Zuz.: Asier Altuna

Ondar ahoak

Zuz.: Angel Aldarondo

Blanc Postcards

Zuz.: Artola, Gurtubai eta Vigil-Escalera

Maritxu

Zuz.: Kepa Errasti

S@rtalde

Zuz.: Juan Artola Artano

Esku-titi

Zuz.: Saioa Aizpurua

KAMERATOIA

Biak bat

Zuz.: Zapatillas film taldea

Barrura begira

Zuz.: Trastaka taldea

Nire bista favoritoa

Zuz.: Kontraplano taldea



Bilbomatiks talde bilbotarrak zapatuan eskainiko du kontzertua. | MYSPACE

'Herio heroi' antzezlan eta skate festa gaur eta bihar gaztetxean

A.E. | ARRASATE

AGAKOK 20. urteurrenaren ospakizunekin jarraitzen du. Horren harira, hainbat hitzordu antolatu dituzte aste bukaerarako. Gaur, esaterako, *Herio heroi* antzezlan aurkeztuko dute gaztetxean. 22:00etan da hitzordua.

Cafe Bilbao saria eskuratu duen Oier Guillanek idatzitako *Herio Heroi* lana aurkeztuko dute Oier Guillan (Orereta), Ainhoa Alberdi (Zarautz) eta Donostiako Amaia Corral aktoreek. Musika Ander Fernandezek jarriko du.

Hasiera baten *Herio heroi* lanaren irakurketa dramatizatu egiten hasi ziren. Horrela egin zuten, esaterako, Oñatiko gaztetxean. Baina, denborarekin, akto-

reek pertsonaiei forma eman eta antzezlan izatera pasa da.

Antzezlanak etorkizuneko Euskal Herrira eramaten ditu ikusleak; hildakoak usteltzeari utzi dioten garaira, bizidun zein bizigabeak elkarrekin bizi izatera behartuta dauden garaira.

Skate festa zapatuan

Zapatuan, 22:00etan hasita, skate festa egingo dute gaztetxean. Taula gainean jardungo dute Bilbomatiks eta Materia Gris talde bizkaitarrek.

Reggae eta ska musika egiten dute bi taldeek. Materia Gris taldeak, gainera, jamaikar eragina du. Bada, giro bikaina jarriko dute gaztetxean.

Harkaitz Canok zinema-gida aurkeztu du

Martitzenean egin zuen zinema-gidaren aurkezpena Harkaitz Cano idazleak. Ondoren, *La guerra* eta *The complete short films* laburrak eskaini zituzten. Arrasateko Udal Bibliotekaren ekimenez egindako monografikoa da zinema-gida. Zinema ardatz hartuta, 10 lagunen ekarpenak jasotuzte; tartean, Canorenak.



AMAIA TXINTXURRETA

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



ILUSTRAZIOA Bergarako Errege SEMINARIOA

4. DBH

M^a Jose Alvarez Txapartegi (Ipinza BHIko Irakaslea)
Conchi Corcostegui Salzar (Ipinza BHIko Irakasle ohi)
Arantzazu Oregi Goñi (Bergarako udal artxibaria)

txapartegi@irakasle.net

2011-01-01

Webquest-aren lehenengo orrialdea. | GOIENA

Ilustrazioari buruzko unitate didaktikoa jarri dute sarean ikasleendako

'Webquest'-a da eta hilaren 12an aurkeztuko dute osoko bilkuren aretoan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ilustrazioa. Bergarako Errege Seminarioa unitate didaktikoa aurkeztuko dute apirilaren 12an osoko bilkuren aretoan. Unitate didaktiko hori *webquest*-a da; hau da, sarean eta sareko baliabideak erabiliz ikasleek lan egiteko tresna.

Elkarlanaren fruitu

Ilustrazioa. Bergarako Errege Seminarioa webquest-a elkarlanean egindako lana da eta hiru alderdi uztartzen ditu: historiaren irakaskuntza, teknologia berrien erabilera irakaskuntzan, eta artxiboko dokumentu-ondarearen eta jatorrizko iturrien erabilera.

Lehenengo alderdiari dagozkionez, Ipinza institutuko irakasle Maria Jose Fernandez Txapartegik eta zentro bereko

irakasle ohi Kontxi Korkostegik *Ilustrazioari* eta *Errege Seminarioari* buruzko unitate didaktikoa garatu dute.

Eibarko Berritzeguneko kide Lydia Fernandez de Luco eta Arrate Uranga arduratu dira *webquest*-aren alderdi teknologikoaz, eta Udal Artxiboko Pili Azkarate eta Arantzazu Oregik *webquest*-a egiteko agiriak aurreratu eta digitalizatu dituzte Errege Seminarioko fondoak erabilita. Horrekin batera, beste informazio iturri batzuetara ere jo dute.

Ikasleendako

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko lehen eta bigarren mailetako gizarte ikasleei zuzenduta dago *webquest* hori. Ikasleek lana, batik bat, sarean garatzea da

helburua eta ikuspuntu metodologikotik gidatutako ikerketa baten bitartez ikasten dute.

Webquest-a kontsultagarri dago honako bi helbideetan: http://www.eibarpat.net/Webquest/Ilustrazioa_Bergarako_Errege_Seminarioa/index.html eta http://www.eibarpat.net/webquest/ilustracion_Real_Seminario_Bergara/.

Aurkezpena udaletxean

Ilustrazioa. Bergarako Errege Seminarioa unitate didaktikoa datorren martitzenean aurkeztuko dute, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. Ekitaldian parte hartuko dute Agurne Barruso alkateak, Kontxi Korkostegi Ipinza institutuko irakasle ohiak eta Arantzazu Oregi udal artxibozainak.

Lana eta bizitza pertsonala kontziliatzearen gaineko jardunaldia egunean

Udalak antolatu du eta osoko bilkuren aretoan izango da; izenematea 943 77 91 26 zenbakian da

M.B. | BERGARA

Udalak lana eta bizitza pertsonala kontziliatzeari buruzko jardunaldia antolatu du apirilaren 14rako. Batez ere, herriko eta eskualdeko lan arloko eragileei zuzenduta dago, baina irekita dago interesa duen edonorentzat.

Iaz Udalak emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren inguruko lehen plana onartu zuen. Plan haren ardatze-

tako bat da bizitzaren maila guztietan bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna sustatzea, bizitza-maila guztiak –pertsonala, familiarra eta lanekoa– uztartu ahal izateko. Hala, jardunaldian, gaiaren inguruko hausnarketa ahalbidetu nahi dute.

Lau hitzaldi

Lau hitzaldi izango dira: 10:15ean, *Modelo horario laboral. Una rara*

avis en el ambito europeo izeneko hitzaldia egingo du Nerea Martiartuk, Deloitteko gerenteak; 11:00etan, *Kontziliazioa, arazoak eta irtenbideak* gaia landuko du Mari Carmen Ugartek, LAB Emakumeak-Gipuzkoako ordezkariak; 12:00etan, *Resistencia y cambios en los hombres ante los ciudadanos y conciliación en el mundo de la empresa* izango du berbagai Josetxu Rivierek, Emakundeko Gizonduz programako idazkaritzako ordezkariak; eta 12:40an, *Kontziliazioa asmakizun bezala: zer erakusten du ezkutatu bezain beste?* gaia jorratuko du Jone Miren Hernandezek, EHUKo Gizarte Antropologiako irakasleak.

Parte hartu nahi dutenek deitu egin beharko dute, apirilaren 12a baino lehen (14:00ak arte), telefono honetara: 943 77 91 26.

Umeendako olinpiadak antolatu ditu Jardunek

LHko 4., 5. eta 6. mailetako ikasleendako dira eta maiatzeko zapatuetan jokatuko dira

M.B. | BERGARA

Zabalik dago Jardunek urtero antolatzen dituen haurrentako –LHko 4., 5., eta 6. mailetako ikasleak– olinpiadetan izena emateko epea. Hamaikagarren olinpiadak jokatuko dira aurten eta maiatzeko zapatuetan izango dira norgehiagokak, 16:00etan hasita. Hain zuzen ere, zapatu bakoitzeko talde bakoitzak puntuazio bat lortuko du eta proba guztiak amaitutakoan puntuazio altuena lortu duen taldeak irteera bat jasoko du

sari gisa –oraindik zehaztu gabe daukate.

Honako egitaraua egingo dute: maiatzaren 7an Herri Kirolak egingo dituzte, Munibe Plazan; maiatzaren 14an, igerilekuko probak egingo dituzte, Agorrosinen; maiatzaren 21ean, bolo-toka eta igelera jardungo dute, San Joxepen; eta maiatzaren 28an, Muniben sormen jolas bat egingo dute.

Izenematea zabalik dago maiatzaren 4ra arte Jardunen bulegoan (943 76 36 61).

Sendabelar ikastaroa emango du Alberto Altubek maiatzean, eta izenematea zabalik dago

Maiatzerako sendabelar ikastaroa antolatu dute Udalak eta Bizikasik. Maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n izango dira eskolak, 17:00etatik 19:00etara bitartean, eta eskolak Alberto Altubek emango ditu.

20 lagunendako lekua dago ikastaroan eta izena emateko azken eguna maiatzaren 3a da, kultura etxean edo 943 77 91 59 telefono zenbakian. Prezioari dagokionez, 20 euro da ikastaroa.

Pazkoetarako goitibehera lehiaketa antolatzeko batzarra deitu du Udalak apirilaren 12rako

Iaz, Mendekoste jaietan goitibehera jaitsiera egin zen San Martzialgo maldan. Lehenengo jaitsiera hark harrera ona izan zuen herritarren artean eta aurten ere egitea nahi lukete udal arduradunek. Hala eta guztiz ere, iazko ekitaldiaren balorazioa egitean, jaitsiera antolatzeko jende gehiago behar zela ondorioztatu zuten. Hala, batzarra antolatu dute udal arduradunek apirilaren 12rako, martitzena, 18:30ean, kultura etxean.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA



Leku diren lekuak

Arrasaten azaldutako pintada batean oinarrituta, gure bailarako talde batek abesten du, gure herrietan badirela ez diren lekuak. Erabilera eta esanahirik ez duten espazio hutsei egiten zaie erreferentzia, asfaltoz bete, eta zakarrontziekin apaintzen diren horiei. Irudipena daukat, azken urteotan izandako urbanizazio lanetan, etxe eta etxe artean sortzen diren espazio apur horiei, ez zaiela behar bezalako garrantzirik ematen.

Horren harira, berri pozgarria jaso dugu bergararrok, Arrizuriagako parkea zabalduko dutela jakitean. Gaur arte, ikusi bai baina ukitu ezin izan

den artelan abandonatua izan da, baina aurrerantzean, herritarrok ere espazio honetaz gozatzeko aukera izango dugu. Herriko beste koadro batzuekin konparatuta gainera, koloretsua eta erabilgarriagoa da.

Hala ere, onar dezagun leku berriak sortzea ez dela nahikoa izaten sarritan, herritarrok gurea leku bakoitzari bere esanahia ematen diogunak. Izan ere, leku berean biraka ehunka kilometro egiten dituzten erretiratuak eta lurtean pilotzen diren pipa azalik gabe, parke bat sekula ez da parkea izango. Horregatik, geu ere bagara leku diren lekuak ez izatearen errudunak.

Dena den, ziur nago erretiratu osasuntsu eta ume pipa zaleek eskertuko duten proiektua dela Arrizuriagakoa.

"Berri pozgarria da Arrizuriaga irekiko dutela jakitea"

Kanpoko igerilekuko berdeguneko belarra berriro erein beharko dute

Udalaren arabera, gertu izango da udako denboraldiaren hasierarako

EDU MENDIBIL | BERGARA

Azken bi urteotan belar tapizek emandako arazoak direla-eta, Udalak belarra erein zuen Agorrosingo kanpoko igerilekuan joan den irailean, baina udaberriarekin batera albiste txarra etorri da: udan gertatu bezala, berdeguneko lurra ureztatuta azaldu da berriro (antza saihesbidetik dator ura Agorrosineraino) eta gauzak horrela atzera belarra ereingo dute datozen egunotan. Udaleko brigadako langileek eta Antzibar enpresak dihardute lanean Agorrosinen azken asteotan.

Berdegunea jaso ondoren, lur berria eta area gehiago bota dute azken egunotan kanpoko igerilekuaren ondoko zelaian, eta belarra ereitea baino ez da falta. Udaleko iturrien arabera, kanpoko igerilekuko berdegunea udako denboraldiaren hasierarako gertu egongo da.

Udako denboraldia ekainaren 15ean zabaltzea aurreikusten dute. Irailaren 11ra arte iraungo du aurtengo kanpainak.

Udako eskaintza: izenematea

Bestalde, Udaleko kirol zerbitzuak kaleratu du dagoeneko haurrei

zuzendutako udako eskaintza. Igeriketa (maila ezberdinak), tenisa, irristaketa, batuka eta multijarduera izango dira, bi txandatan banatuta: lehenbizikoa ekainaren 27tik uztailearen 8ra bitartean eta bigarrena uztailearen 11tik 22ra. Udalak jakitera eman duenez, taldea aurrera ateratzeko parte hartzaile kopuru minimo bat egon beharko da.

Izenematea, baina apirilaren 16ra arte dago zabalik. Argibide guztiak Agorrosin Kirol Gunean (943 77 70 95 telefono zenbakian) edo www.agorrosin.net webgunean dituzue eskuragarri.



Lur berria eta are gehiago bota ondoren, belarra ereitea baino ez da falta Agorrosinen. | E.M.

Bergarako ordezkari itxi eta Arrasatera eroango du Goienak

Oraingoz, ez du egoitzarik edukiko Bergaran

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Goienak Bergarako egoitza itxi egingo du gaur eta Arrasatekoan batuko da Bergarako lantaldea. Hortaz, astelehenetik aurrera, Goienak ez du egoitzarik izango Bergaran. Bezero, irakurle, ikus-entzule eta bestelako erabiltzaileok Goienarekin harremanetan jartzeko moduak izango dira: Arrasateko egoitzan; telefonoz; webgunearen bidez eta postaz (elektronikoz zein ohikoz).

Irizar utzi beharra

Iaz, urte hasieran, Bergarako Udalak Irizar jauregia hustu, berri eta beste erabiltzaile batzuk kokatu nahi zituela jakin zuen Goienak eta udal agintariekin jarri zen harremanetan. Zurrumurrua baieztatu eta udaberri-rako egoitza hustu eta utzi egin beharko zuela adierazi zitzaion Udaletik. Irizar jauregirako beste lehentasun batzuk zituen Udalak.

Arcelorko bulego izandakoen eraikina, Labegaraietan, eskaini zion Udalak Goienari. Tratua, halere, Arcelorrekin zuzenean egin behar izan zuen Goienak. Hala, Arcelorrek eta Goienak urtebeterako hitzarmena sinatu zuten lehenengoak bigarrenari egoitza prekarioan uzteko.

Kontratua amaituta, egoitza errentan hartu edo erostea proposatu dio Arcelorrek Goienari aurtun. Hori ezin jasan, eta egoitza utzi eta lantaldea birkokatzea erabaki du, Arrasatera eroanda. Arrasateko Udalak utzitako lokal batean dago Goienaren egoitza, Otalora Lizentziaduna 31n. Horre-

gatik, aurrerantzean hantxe batuko da Bergarako lantaldea.

Edozelan ere, Goienak nahiko luke herritarrekin harreman gertukoak edukitzeko Bergaran bulegoren bat eduki, eta, horretarako, Udalarekin harremanetan dago.

Egoitza berria

Bestalde, urte eta erdi edo bi urte barru, Goienak bere lantalde osoa egoitza bakarrean batu nahi du eta proiektu ilusionagarri bat dauka esku artean hori gauzatzeko. Aretxabaletako Tubos bezala ezagutzen den fabrika izandako orubean eraikin berria egin nahi du, MUren ondoan.

Izan ere, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko adar bat, ikus-entzunezkoa, gaur egun Eskoriatzan dagoena, Aretxabaletako Tubosera joango da. Eta haren ondoan kokatuko du Goienak bere egoitza. Helburua da proiektu berritzailea abiatu eta ikasketa zentroa eta hedabide talde bat, Goiena, elkarren ondoan egotea, hainbat ekimen elkarlanean garatzeko eta bide berriak urratzeko.

Bergaran ordezkari itxi

Goienaren Batzar Orokorak joan den astean eman zion baietza proiektuari. Hala, litekeena da 2012ko udazkenean MU eta Goiena Aretxabaletan batzea, elkarren ondoan, baina bi eraikinetan. Hori hala izanda ere, aipatu bezalaxe, Goienaren nahia izango litzaiteke Bergaran egoitza txiki bat edukitzea hiruzpalau lagunendako, herritarrek artatzeko.

OHARRAK

PAZKOETAKO SUKALDARITZA LEHIAKETA

Udaleko Kultura zerbitzuak jakitera eman duenez, martitzenean, irailaren 12an, Mendekoste jailetako sukaldaritza lehiaketa antolatuko bilera berri bat egingo da kultura etxean, 20:00etan. Bergarako elkarte guztiak animatzen dituzte aipatutako bileran parte hartzera. Ekainaren 10etik 14ra ospatuko dira Pazkoak.

ODOL ATERALDIA EGUAZTENEAN

Datorren eguaztenean, apirilaren 13an, odol ateratzea egingo dute Seminarioko lokalean. Ohiko ordutegian egingo dute, 18:30ean hasita. Parte hartzeko deia zabaldu diete elkartetik herriko odol emaileei. Apirilean beste odol ateratze bat egingo da, hilaren 27an. Data hauetan odol falta dagoela abisatu dute.

SEMINARIOKO INDUSKETAK 'TEKNOPOLIS' SAIOAN

Seminarioko indusketen gaineko erreportajea eskainiko dute domekan, hilaren 10ean, ETB-1eko *Teknopolis* saioan. ETB-1en 15:15ean ikusi ahal izango da eta ETB-2an zertxobait lehenago, goizeko 11:00etan, hain zuzen. Era berean, saioa errepikatuko dute ETB-3n datorren eguaztenean, irailaren 13an, 23:00etan.

AVILESEKO MARGOLARIEN ERAKUSKETA GAURTIK

Avileseko margolarien erakusketak zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegin, 18:30ean. maiatzaren 1era arte izango da zabalik, ohiko ordutegian. Bear-teko kideekin egindako elkartruke bati esker Asturiaseko hamar margolarien lanak izango dira ikusgai Barrenkaleko aretoan. Bear-teko kideak Avilesera joan-

go dira gero, data oraindik zehaztu ez duten arren.

ERIZAIN LAN POLTSA MIZPIRUALDE EGOITZAN

Mizpirualde zaharren egoitzak jakinarazten du erizainen lanpoltsa sortu nahi duela. Informazio gehiago www.bergara.net web orrian eta zaharren egoitzan (943 76 13 68) bertan eskuragarri dute interesatuek.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira

ile-apaindegia edertze gela


Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Iturgintza
Beregintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sumofic taldekoak oso gustura daude Espainiako kopan egindako lanarekin

Asturiasen eta Katalunian ibili ostean, orain etxeko probak izango dituzte

XABIER URTZELAI | BERGARA

Espainiako gazte mailako kopa txapelketarako bi probatan egon ondoren, Lokatza-Sumofic taldeko ziklistak, oraingoan, Euskal Herriko probetan bakarrik lehiatuko dira. Euren esanetan, baina, Asturiasko eta Kataluniako lasterketan bizi izandakoa "erabat positiboa" izan da. Nahiz eta azken lasterketa horretan ezusteko bat edo beste izan duten.

Etap gorabeheratsua

Sumofic taldeko mutilak Olost-en egon ziren domekan, Bartzelona iparraldean: "Oraingoan, ziklis-

tendako berria izan den ibilbide mota aurkitu dute. Txirrindularitzan gogaikarria den ibilbidea, gorabehera handikoa, eta errekupeatzeko tarterik uzten ez duen horietakoa". 120 lagun batu ziren irteera puntuan, eta tartean gazte mailako estatuko ziklista onenak ziren.

Kategoria horretan lehen urtekoak diren Xabier Gallastegik eta Andoni Lasak ez zuten lasterketa amaitu, antolakuntzak segurtasuna bermatze aldera 70. kilometroan talde nagusitik atzeratutako guztiak deskalifikatu egin zituen-eta. Nagusiagoak diren

Hodei Orobengoa eta Mikel Aristi, berriz, lasterketa osoan onenekin batera ibili ziren. Orobengoa tropel nagusiarekin iritsi zen, kopako faborito guztiekin batera. Aristiri, berriz, ziklistaren aurpegi makurrena bizi izatea egokitu zitzaion. Lasterketako garaipenagatik lehiatzeko prestatzen zebilela -azken 10 kilometroetan sartuta-, jaitziera azkar batean aurreko ziklistak erori eta Bergarakoak errepide bazterreko hesia jaso zuen, eta kolpe gogorra hartu. Hala, bertan behera utzi behar izan zuen proba.



SHOTOKAN

Lezotik dominak jantzita

Domekan egin zuten, Lezon, Gipuzkoako eskolarteko txapelketa, eta Josu Zalakain, Mikel Gallastegi eta Iker Osinaga lehenengo sailkatu ziren, Andoni Muxika eta Jon Barragan bigarren eta Mikel Sanchez hirugarren. Horrekin batera, domekan Euskadiko selekzioa ordezkatzeko Iker Osinaga eta Josu Zalakain Santanderren izan ziren, Errioxa, Aragoi, Nafarroa eta Kantabriako selekzioen kontra lehiatzen, eta euren pisuetan lehenengo postuak lortu zituzten. Hala, Apirilaren 16an eta 17an Espainiako txapelketan izango dira, Santanderren.



Bi segundoko zigorraz Ugaldek podiumerako aukerak galdu zituen. | BETI-BUSTI

Beti-Bustiko zortzi ordezkari Huescan

Espainiako kopako bigarren proba izan da

X.U. | BERGARA

Fragan (Huesca) egin zuten asteburuan Espainiako Koparako bigarren proba puntuagarria, eta parte hartu zuten 251 piraguisten artean Beti Bustik zortzi orde-

kari izan zituen. Zapatuan, Kuxi Gallastegi veterano mailan eta Josu Mentxaka seniorretan sailkapenetik kanpo geratu ziren. Domekan, berriz, finalerdietarako sailkatzeko lehenengo txandan

Antxon Etxabek (seniorra), Iñaki Usabiagak (gaztea) eta Jokin Labaienek (kadetea) agur esan zioten txapelketari.

Finalerako sailkatuta, Aritz Gimbert bederatzigarren izan zen eta Patxi Ugalde bosgarren -epaileak hartutako erabaki txar baten ondorioz bi segundoko zigorra jaso zuen-. Eta kadete mailan, Beñat Lizarralde jaitziera ona egin eta zilarrezko domina irabazi zuen. Hala, zapatuan Hernanin lehiatuko dira.



Neurriak
38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Udaberria-Uda

Rocka, bluesa eta whiskia: zapatu gaua berotzeko osagaiak

The Riff Truckers eta Sarkor taldeak zuzenean gaztetxean bihar, 22:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Giro beroa izango da, duda barik, bihar gaztetxean. Eako The Riff Truckers eta Gernikako Sarkor taldeek eskainiko dute kontzertua, eta argitaratu berri dituzten disko abestiak eskainiko dituzte gaztetxean.

The Riff Truckers 2005ean sortutako rock-and-roll taldea da. Bluesa eta countrya nahasten dituzte euren kontzertuetan bizkaitarrek; eta, whiskia lagun izaten dute. *On route* izeneko disko berriko abestiak aurkeztuko dituzte bihar.

Bilbo Hiria pop-rock saria

The Riff Truckers 2010eko Bilbo Hiria pop-rock lehiaketako irabazleak izan ziren. Batez ere jarrera nabarmentzen dute adituek taldeari erreferentzia egiterakoan. Jarrera eta teknika ona dituzte taldekideek oholtzaren gainean. Zuzeneko bortitzak eskaintzen dituzte, inor axolagabe uzten ez duten horietakoak.

2009ko udaberrian Muxikako Muxik-On estudioan *On route* diskoa grabatu zuten bizkaitarrek. Zortzi abestiz osatutako diskoa da, autoekoiztua, eta, oraingoz, Gernikako tabernetan, kontzer-



The Riff Truckers Eako taldea da. | MYSPACE

tuetan eta Internetez taldearen webgunean eros daiteke.

Sarkor gernikarrak

Sentimendu gabe diskoa aurkeztuko dute gernikarrek bihar gaztetxean. Hamar abestiz osatutako diskoa da; disko landua, serioa eta zuzena da. Muxikako Muxik-On estudioan grabatu zituzten abestiak, eta iaz uztailean argi-

taratu zuten lana. Diskoaren aurretik bi maketa argitaratu zituzten gernikarrek.

Emanaldia bihar, zapatua, izango da, 22:30ean. Sarrera hiru euro da. Kontzertua zuzenean ikusteaz gain, aukera egongo da Txapa Irratiaren bidez zuzenean jarraitzeko, FMko 97.2an eta www.txapairratia.org atarian.

Musikari modernoan lehia izango da domekan

A.E. | BERGARA

Musika eskolak antolatuta III. musika moderno lehiaketa jokatuko dute etzi, domeka, Zabalo-tegi aretoan. 11:00etan hasiko dute ekitaldia eta 20:00ak arte iraungo du.

Azkenaldian musika eskoletan gero eta eskaera gehiago dituzte instrumentu berriak irakasteko. Bergaran orain dela bost urte hasi ziren gitarra elektrikoak, baxua eta beste irakasten. Hala, pop, rock eta blues estiloetako hainbat talde sortu dira musika eskoletan. Hori ikusita erabaki zuten horrelako ekitaldia antolatzea.

Domekako saioan Gipuzkoako hainbat herritako taldeek parte hartuko dute.

Zineklubaren ondoren gaur egungo gizarte ereduaren gainean jardungo dute

A.E. | BERGARA

Domekan, 18:00etan, *Compr, tirar, comprar* filma eskainiko dute gaztetxeko zineklubean. Cosima Dannoritze zuzendaria- ren lana da, 2010ean ekoiztua. Filmak gaur egungo gizarte ereduaz aztertuko du eta hainbat galdera landuko ditu: tresna elektronikoen iraungitze data

jakina dute? Bizitza erabilgarri mugatuarekin ekoizten dira produktuak? Horiek dira galderak, besteak beste.

Ondoren solasaldia

Filmaren ondoren *La historia de las cosas* film laburra eskainiko dute eta ondoren mahai- ingurua izango da.

Gaurtik aurrera Ramon Arantzabalen margolanak egongo dira ikusgai Nahikari tabernan

Ramon Arantzabal arrasatearrak margo erakusketa zabalduko du gaur Nahikari tabernan. Apirilaren 30era arte egongo dira ikusgai artelanak. Gainera, bisitariarekin konplizitate sortzeko koadro bat zozketatuko dute apirilaren 29an. Horretarako, iradokizunak bota beharko dira erakusketan egongo den kutxatxoan. Arantzabalek espazioekin, argiekin eta itzalekin jolastu nahi izan du margolanetan; horretarako, koloreak minimizatu egin ditu. "Lana sinbolismoz bete dut", adierazi du.

Apirilaren 15a izango da Musika Eskolaren udaleku musikaletan izena emateko azken eguna

Musikaren mundu zoragarria ezagutu, ulertu eta bizi izateko, udaleku musikalak antolatu ditu aurten ere Musika Eskolak. Izena emateko epea datorren egubakoitzean amaituko da, apirilaren 15ean. Ekainaren 27tik uztailearen 8ra izango dira udalekuak, 09:30etik 13:00etara. Izena emateko, Kutxaren 2101 0070 81 0012342622 zenbakian 115 euro sartu behar dira -musika eskolako ikasleek 105 euro-. Udalekuak 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta daude eta helburua musikarekin gozatea da.



Maria Isabel Otaño
(Body balanceko monitorea Giartzu gimnasioan)

"Gorputza eta burua erlaxatzeko balio du"

Maria Isabel Otaño bergararrak lanaldian tarte bat egin digu eta harekin jardun dugu berbetan body balancearen gainean.

Lehenengo egunean, adibidez, ez dute batere orekarik izaten hona etortzen direnek, baina 3 edo 4 egun barru oreka izugarri irabazten dute. Azken finean, zuk zure buruaren kontra duzun borroka da body balancea. Emaitzak epe motzera ikusten dira eta horrek eragiten du jendea motibatzea.

Maria Isabel, txikitatik duzu kirola egiteko ohitura?

Bai, hala da. Gazte-gaztetatik ibili naiz kirola egiten eta benetan dut gustuko. Gimnasioan ibiltzen naiz buru-belarri, baina, noizean behin, eskiatzera irteeraren bat ere egiten dut.

Gaur, body balancea zer den azalduko diguzu.

Bai, halaxe da. Body balancea irakasten dut, eta benetan gomendagarria den teknika da. Izan ere, pilatesa, tai txia eta yoga uztartzen dituen ariketa da.

Gainera, body balancea irakasteko irakasle ofiziala zara.

Urtean lautan gutxienez Less Mills eskolan ikastaroak egiten ditut. Horregatik da Giartzu body balancea egiteko Bergarako zentro ofizial bakarra.

Zer eskaintzen du body balanceak?

Lasaitasuna, elastikotasuna... probatu arte ezin da jakin zer den hau.

Edonori zuzendutako teknika da, ez dauka kontraindikaziorik. Muskulatura ere asko lantzen da. Ariketak berak ez dauka inolako salto edo min hartzeko moduko birarik. Postura asko lantzen da, adibidez. Zuzen ibiltzeko balio du, sorbaldak igota. Bizkarrarendako oso lan ona da.

Oreka ere lantzen da.

Nori zuzendutako ariketa mota da?

14 urtetik aurrera edonor has daiteke body balancea egiten. Estresa dutenendako da egokia, eta baita lesioak saihesteko ere. Mutilak ere asko etortzen dira; hasiera batean, mutilek indar fisiko handiagoa dutenez ematen du ez dutela gogoko izan behar, baina behin probatzen dutenean asko gustatzen zaie.

Pasatu gara salto eta bira asko zuten kiroletatik (aerobika, stepa...) guztiz lasaia den ariketara.

Zoru pelbikoa lantzen da body balancean.

Abdominal hipopresiboak egiten dira body balancean betidanik. Gaur egun oso modan dago zoru pelbikoa lantzea, baina abdominal mota horiek beti egin izan ditugu hemen.

Gorputza eta burua erlaxatzeko balio du.

Body balancean indar estatikoa erabiltzen da. Hala, gorputzeko indar guztiak indartzen eta nabarmentzen dira. Gorputza hobetzeaz gain, gogo-aldartea ere hobetu egiten da.

Anekdotarik izan duzu ikastaroetan?

Askotan gertatu izan zait jendeak lo hartzea. Azkeneko ariketan erlaxazioa lantzen dugu, eta jendeak lo hartu izan ohi du. Bestalde, behin body balancea probatu duenak, ez du beste kirolik gura.



GIARTZU gimnasioa / estetika zentroa

Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com

DATUA

10

TALDE

Izena eman duten 10 taldeetatik, bi talde bergararrak dira.



EAJren zerrendako kideetako batzuk Joseba Egibarrekin. | MIREIA BIKUÑA

Oñati "humanoagoa eta bizi izateko hobea" lortu gura du EAJk

Martitzenean aurkeztu zuten udal hauteskundeetarako zerrenda

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

EAJk Oñatin udal hauteskundeetarako prestatu duen zerrenda aurkeztu zuten martitzenean, hilaren 5ean: 10 gizon eta 10 emakume. Lourdes Idoiak aurpegi berriak aurkeztu zituen, eta eskerrak eman zizkien orain arte zinegotzi izan eta jarraituko ez dutenei; hain justu ere, Rosarito Galdosi, Mikel Iturrosperi eta Jose Mari Igartuari. Oñatiko kultura etxean egindako ekitaldian, Gipuzku Buru Batzarreko presidente Joseba Egibarren zuten.

Bost ardatz nagusi

Lourdes Idoiaga alkateak hartu zuen hitza lehenengo, eta hauxe esan zuen: "Gure ardatz nagusia pertsonak dira: hemen jaio eta kanpotik etorri direnak".

Idoiagak esan zuen jeltzaleen programak bost ardatz nagusi dituela: pertsonak; gizarte politika; ingurumena eta landa garapena; irisgarritasuna; eta kultura, kirola eta turismoa. "Lehenetasunetako bat gizarte politika izango da; izan ere, adinekoek inguruko zaintzapean jarrai-

dezaten nahi dugu, egoera larrian eta bazter egoeran daudenak babestuko ditugu, eta enpleguaren sorrera sustatuko dugu", esan zuen Idoiak.

Bestalde, hondakinen sorrera murrizteko bosgarren edukiontzia alde egingo dutela eta herri mugikortasun iraunkorra bultzatzen jarraituko dutela esan zuen. Azkenik, kultura, kirol eta turismoaren gainean egin zuen berba. "Gazteendako gune eta programa berriak eratuko ditugu, eta gune irekietan azterketa bultzatuko dugu aisialdi eta kirolguneak berreskuratzeko. Gainera, turismoaren plan estrategikoaren inguruko ekintzak egiten jarraituko dugu".

Joseba Egibarren hitzak

Gipuzku Buru Batzarreko presidentek hauxe esan zuen: "Herri-gintzan lan egiterakoan ez zaie beldurrik eduki behar ez herriari ezta herritarrei ere. Herritarrak ekintzaile bihurtu behar ditugu. Abertzaletasunak aurrera egiten badu elkartasun eta lan horri esker izango da".

EAJ-REN ZERRENDA

1. Lourdes Idoiaga
2. Ainhoa Galdos
3. Angel Biain
4. Andoni Gartzia
5. Jabi Baltzategi
6. Tina Kortabarria
7. Faustino Aranburu
8. Angel Mari Biain
9. Amaia Erostarbe
10. Miren Elgarresta
11. Marijo Etxegoien
12. Aitor Arregi
13. Nerea Altube
14. Mikel Gartzia
15. Mireia Arregi
16. Jabier Galartza
17. Luis Anduaga
18. Arrate Markiegi
19. Nekane Maiztegi
20. Jose Antonio Urteaga

Gerrako aurpegiak bila dihardu Gogoratu Guran Taldeak

M.B. | OÑATI

Gogoratu Guran Taldeak bi urte daramatza 36ko gerrak Oñatin izan zituen ondorioak aztertzen. Hainbat herritarrek lagundu diete bidea egiten, eta batutako informazioarekin liburu argitaratzeko asmoa dute: *Gerrako garrak Oñatin* delako liburua. Dena den, liburua behar bezala osatzeko hil zirenen argazki batzuk falta zaizkie, eta deia egin gura dute herritarren artean.

Falta zaizkie fusilatuta hil zirenen batzuen erretratuak; hain justu ere, Jose Kortabarria Bareño, *Kortabarriarena*; Jose Lete Ugarte, *Estañokua*; Francisco Arrizabalaga, *Portalekua*; Fructuoso Aberasturi Lazkanoiturburu, *Treintena*; Markos Aldazabal Etxebeste, *Errendetikua*; eta Guillermo Martinez, *Jefe Zaharra*.

Erreketenak ia erretratu guztiak dituzte. Gudari, miliziano eta soldaduenak oso gutxi

batu dituzte. Bi bakarrik: Anastasio Zabaleta Zugastirena eta Bernardo Ugarterena.

Informazioa nora bidali?

Argakiren bat edo informazioa duenak bi bide ditu Gogoratu Guran Taldearekin hartu-emanetan ipintzeko: 678 24 20 31 telefonoa (Juan Ramon Garai) eta garaibengoa@hotmail.com helbidea.

Gerran 114 oñatiar hil zituzten: 58 matxinatuak, 56 frontean eta bi espetxeko erasoetan.

DATUA

114

PERTSONA

Horiek dira 36ko gerran hil zituzten oñatiarrak; gehienak, matxinatuak.

OHARRAK

IZENEMATEA

Uztailako udalekuan parte hartu gura duten neska-mutikoendako eta begiraleendako izenematea zabalik dago hilaren 15era arte. Udalekuak egingo dituzte uztailaren 1etik 29ra.

POSTA BIDEZKO BOTOA

Maiatzaren 22an botoa eman ezin dutenek batzokian egin ahal dituzte tramiteak. Astelehenetik egubakoitzera egongo

dira, 18:00etatik 20:00etara, posta bidezko botoa ematen laguntzeko. Informazio gehiago gura dutenek 943 78 01 17 telefonora dei dezakete.

INGELESEZKO IPUINAK

Liburuaren Eguna ospatzeko ingelesezko ipuin kontaketa egingo dute haur liburutegian hilaren 12an, 18:00etan. 7 eta 9 urte arteko neska-mutikoendako emanaldia izango da.

Ulma Fundazioak antolatuta IIartargi taldeak behaketa astronomikoa egingo du gaur Torrealdean

IIartargi astronomia taldeak behaketa egingo du gaur Torrealdean. Ulma Fundazioak antolatutako ekimena irekia da eta herritar guztiek parte hartu ahal dute. 20:30ean batuko dira, plazan, eta guztiak elkarrekin joango dira Torrealdera. Eguraldiarengatik behaketa atzeratzen bada, www.fundacionulma.com atarian jakinaraziko dute.

Erretzen uzteko ikastaroan parte hartzeko izenemate epea zabalik dago hilaren 16ra arte


Udaleko Prebentzio Sailak Hazkunde erakundearekin batera erretzen uzteko ikastaroa antolatu du maiatzetik uztailera arte. Interesatuak izena eman ahal dute hilaren 16ra arte 943 03 77 00 telefonoan (Ainhoa). Izena ematerakoan 75 euro ordaindu beharko dituzte. Eskolak emango dituzte maiatzaren 5ean, 12an, 19an eta 26an; ekainaren 10ean eta 24an; eta uztailaren 21ean. Guztiak hasiko dituzte 18:30ean kultura etxean.

Gipuzkoako txapelketan parte hartuko duten oñatiarrak Santa Anako bertso saioan

Oñatiko bertso eskolak antolatuta bertso saioa egingo dute domekan Santa Ana antzokian, 19:00etan. Emanaldian parte hartuko dute Gipuzkoako bertsolari txapelketan jardungo duten oñatiarrek: Beñat Alberdi, Andoni Goitia, Josu Igartua eta Urko Egaña. Euren gongo dira oñatiko gainera Aitor Sarriegi eta Beñat Gaztelumendi. Sarrerak bost eurotan saltzen dihardute.

NIRE USTEZ

OLATZ OSA



Bar Guria

Munduko bolia dakot esku artian eta bertan 60m²-ren mugak marraztu guran nabil. Izan be, lurrazalian ixa ikusten ez dan ttantta horretan loratu da batzuontzat mundua, zuek oin-

dala 65 urte hasitako abenturari esker, geure egin dogun mundua: Bar Guria. Ez dakot akorduan kristalezko atia noiz kruzau neben lehenengoz. Kuadrillian babesian, seguruenek. Eta poteua aitzakixia zan orduan be. Ondo hartu ginduzuen, bai horixe! Ze fan dia egunak, fan hilabete eta urtiak, eta kristalezko atia zabalketan jarraitu dogu. Atalasia kruzau dot ustez zerbeza bat hartzeko, baina benetan lagunak begiradei autopsia egiteko sartu izan naiz tabernara; bakardadia kirikixo bat balitz moduan sabelian leheru xatenetan, zauriak goxaketa-

ko; Gurianeko damiakin tertulixan egon eta bere ahotik -bazoiaz?- ezti bat entzuteko; Errosarixo bixamonian elkarrekin zoraketako; intelijentzia dosixak paretetan zintzilik ikusteko; ez-lekueetatik bueltan, etxian nauela sentititeko... Argi bat betirako itxungitten dan bakoitzian, beste bat ixuketan ei da. Laister, kristalezko atia betirako zarraitten danian, Gurianeko zentimetro bana gordeko dogu poltsikotan, hor nunbaiten, noraeza gaidiketetan dogunian, beste mundutxo bat altzau dagigun. Plazer bat izan da lagunak, biba zuek, biba gu, biba Bar Guria!

Udaberri txapelketa hasiko dute bihar

Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. maila artekoek parte hartuko dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

34. udaberri txapelketa aste bukarran hasiko dute. Ekainaren 11ra arte lehiatuko dira Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 4. mailara arteko neska-mutiko eta gazteak. Tennis eta esku-pilota jarduerak astegunetan egingo dituzte, eta gainerakoak zapatuetan, 09:00etatik 12:00etara arte. Udaberriko txapelketako azken

jaia eta sari banaketa ekitaldia ekainaren 18an egingo dute, kiroldegian. Iaz, 750 neska-mutiko lehiatu ziren.

Udaberriko txapelketaren antolatzaileek bi jarduera eskaintzen dizkiete parte-hartzaileei: alde batetik, kirol txapelketak, barkaka edo taldeka. Besteak beste, areto-futbola, futbola, saskibaloia, eskubaloia, zazpiko errugbia,

squasha, tenisa eta patinajea. Beste alde batetik, kirol eta jarduera fisikoko jardunaldiak: fite-bikea, aerobik-batuka, ezkutaketa jolasak eta *Altxorraren bila*.

Gustu bakoitzerako kirol bat

Udaberri txapelketako eskola kirolaren barruan sartzen da. Urritik hona hainbat kirol eta jarduera egin dituzte. "Helburu

nagusia da interes ezberdinei egokitzen diren kirolak eskaintzea, neska-mutikoek euren gustukoa den kirola aukeratzeko aukera izan dezaten", diote antolatzaileek.

Gainera, Oñatiko eskola kirola DBHn eskaintzen dute. "Eurek eskatuta antolatu izan ditugu fite-bike eta aerobik jarduerak. Gainera, txapelketetan parte hartzeko aukera izan dute".

Udaberri txapelketa bukatu ondoren -ekainaren 18an- udako kirol kanpaina abiaraziko dute: ekainaren 27an.

BETERANUAK

EMAITZAK

Doolygans-Xaguxar	2-2
Albok-Kalañatasaray	1-0
Gaur Bai-Etxaitat	0-4
Bundeswehr-Indar 85	1-2
Ankarteko-Txuskos	1-2

SAILKAPENA

1. TALDEA		P	J
1 The Gibel Boys	4	2	
2 Joxely	4	2	
3 Txarrixak	3	2	
4 Zorrobero	0	2	

SAILKAPENA

2. TALDEA		P	J
1 Xaguxar	4	2	
2 Doolygans	4	2	
3 Albok	3	2	
4 Kalañatasaray	0	2	

PARTIDUAK

ZAPATUA, ABRILAK 2	
13:00	Xaguxar-Albok / Moli
14:30	Kalañatasaray-Doolygans / Arrilla
18:30	Txarrixak-The Gibel Boys / Mattin
DOMEKA, ABRILAK 10	
13:45	Zorrobero-Joxely / Lazkano

Final erdiatarako lehen taldeak ezagutuko ditugu

Doolygans, Xaguxar eta Albok taldeen artean egongo dira final erdiatarako txartelak. Albo eta Xaguxar lehen tokia-gatik lehiatuko dira. Doolygans irabazi egin behar du.



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Bigarren maila gainditzearen diploma jaso zuten

2009-10 ikasturtean bigarren maila gainditu zuten ikasleek diplomak jaso zituzten martxoaren 31n musika eskolakoek egindako udaberriko kontzertuan. Goiko argazkian daude saria jaso zuten ikasleak eta haien irakasleak.

Bestalde, Jose de Azpiazu musika eskolako ikasle Sara Biainek Euskadiko musikari gazteen V. lehiaketan parte hartuko du gaur. 12 eta 15 urte artekoekin lehiatuko da B mailan Bilbon.



PROIEKTUA ETA
AURREKONTUA DOAN

Behar duzun
OBRA EDO ERREFORMA
DENBORA ERREKORREAN
egingo dizugu.

ZELAIA
ONATI
www.zelaia.net

41
urte
elkarrekin
1970-2011

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

Gizarte zerbitzuetako jarduerendako laguntzak

Gobernuz kanpoko erakundeen artean 75.000 euro banatuko ditu Udalak; egun, 13 taldek jasotzen dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteendako dirulaguntzak iragarri ditu Udalak. Bi eratako laguntzak dira: batetik, Gizarte Zerbitzuetan jarduerak garatzen dituztenendako; eta bestetik, garapenerako lankidetzak programak lantzen dituztenendako, hau da, hirugarren munduan proiektuak dituztenendako.

Laguntza horien oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituzten eguaztenean, apirilak 6, eta orain, hilabete dute interesatuek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskaerak aurkezteko.

Araozak dituztenei lagundu

Gizarte zerbitzuetan jarduerak garatzen dituzten 15 elkarteek jaso zuten iaz Udalaren laguntza, horien artean Aratz taldeak. Baldintzen artean ez dago derrigorrez aretxabaletarra izan beharrik; hortaz, elkarte askok egiten dutela eskaera diote Gizarte Zerbitzue-



tako teknikariek. Hala ere, herrian edo gutxienez eskualdean jardun beharko dute lanean. Talde horien eginbeharren artean daude: parte-hartzea sustatu; gizarte-laneko boluntarioak eta herritarren arteko solidaritatea bultzatu; eta gizarteratze arazoak dituzten taldeei lagundu: umeak, emakumeak, ezinduak, hirugarren adinekoak, gutxiengo etnikoak, preso ohiak, drogazaleak...

Horretarako 5.300 euro bideratuko ditu Udalak.

Aretxabaletako lau talde

Garapenerako bidean diren herrialdeetan proiektuak dituzten gobernuz kanpoko erakundeendako 75.000 euro bideratu dituzte aurtun. Iaz baino gutxiago da, eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariek argitu dute: "Gainerako laguntza gehienek legez behera egin dute". Iaz, 13 elkarteek jaso zuten laguntza, horien artean lau aretxabaletar daude: Hiruatx; Iesbaa; Boheri; eta Felix-Baltistan fundazioa. Udal ordezkariak jakinarazi dute, gainera, zehaztutako kopuruaren %10 gorde egingo dutela, urtean zehar gerta litezkeen larrialdi egoeretara bideratzeko.

Laguntza horren helburua da garapenerako lankidetzak programak antolatu eta garapen bidean diren herrialdeetako biztanleen egoera sozio-ekonomikoa hobetzea. Gainera, gurean egiten dituzten sentsibilizazio kanpainak ere kontuan hartzen dituzte Gizarte Zerbitzuetako kideek jarduerak baloratzeko orduan.



Udalbatzako kide guztiak azkeneko ohiko osoko bilkuran. | M.A.

Drogazaletasunaren gaineko ikerketa egiteko eskatu dute

M.A. | ARETXABALETA

Hauteskunde aurreko azken ohiko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuen PSE-EE alderdiak Jaurlaritzari eskatzeko drogazaletasunaren gaineko ikerketa egitea.

Sei urte prebentzio lanetan

Droga kontuetan Aretxabaletako egoera zein den jakin gura dute sozialistek eta horretarako ikerketa egiteko eskatuko diotela Jaurlaritzari Droga-menpekotasun Zuzendaritzari jakinarazi zuten. Mozioko puntuen artean zeuden: droga kontsumoa prebenitzeko programa eta ekin-tzak abian jartzea; eta ikastetxe

eta guraso elkarteekin elkarlanean drogaren adikzioak dakartzan arriskuen berri ematea.

Inaxio Garro alkateak erantzun zien sozialistek mozioko abian jarrita dituela Udalak, eta abstenitu egin ziren Aralarkoak; gainerako zazpi zinegotziek, ostera, alde bozkatu zuten.

Udaleko Prebentzio teknikariak argitu gura izan du "ikerketa egin gura badute aurrera", baina mozioko gaineko puntuak dagoeneko betetzen dabilzala: "Sei urte badira droga kontsumoa prebenitzeko lanetan gabiltzala, eta programak ondo finkatuta daude".

OHARRAK

UDALEKUETAN BEGIRALE IZATEKO AZKEN EGUNA

Gaur, apirilak 8, bukatuko da udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea; curriculumak Arkupera edo Gazteria Zerbitzura bidali behar dira: gazteria@aretxabaleta.net.

GURUTZE-BIDEA EGUBAKOITZETAN

Garizumako egubakoitzetan meza esan beharrean gurutze-bideak egiten dituzte parrokiak (19:00). Domeketan, ostera, bezperak egiten dituzte otoitz agustindarren monasterioan (18:30).

ELIKAGAIEN MANIPULATZAILE TXARTELA ESKURATZEA

Ikastaroa egingo dute apirilaren

28an eta 29an elikagaien manipulazile txartela eskuratzeko. Izena emateko Udaleko Enplegu Sailera jo (20 euro); azken eguna, hilaren 18a.

UDA-REN ZUZENDARITZARAKO HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Aretxabaleta Kirol Elkarteak zuzendaritza osatu gura dutenek apirilaren 20a arte dute epea hautagaitzak aurkezteko -angelzubi@euskaltel.net-.

BERAKATZ-ZOPA TXAPELKETA

Loramendi elkarteak antolatutako olinpiaden barruan berakatz-zopa txapelketa egingo dute gastronomia elkarteek hilaren 15ean, Larrinoko elkarteak.


Literatura Asteari agur irakur maratoiarekin

Literatura Asteari bukaera emateko 20. irakur maratoia egin zuten atzo, hilak 7, Kurtzebarri eskolan. Aurtun, poesiarekin gozatzeko aukera izan dute ikasleek astean zehar; baita Pello Añorga idazlearekin egoteko ere. Karmele Igartua poeta, lagun eta lankide izan zutena omendu zuten atzoko maratoiaren bukaeran.



M.A.


MAPFRE



INBERTITU GUREKIN

%5
BIZITZA GUZTIRAKO

Errekabarren 3 ARETXABALETA

Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

Iber

Loteria
Paper denda
Liburuak

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jou Díaz


Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Korrika Batzordeko kideak, eguaztenean egindako batzarrean, azken kontuak lotzen. | M.A.

Jaialdia, Ain_1 taldearen kontzertua eta bertso-afaria gaur

Korrika abian dela ospatzeko antolatu dute; materiala egongo da salgai

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Korrika 17k hasi du ibilbidea, eta, hori ospatu eta haren etorrera girotzeko, jaia egingo dute gaur, Korrika Batzordeak antolatuta.

Umeendako ekitaldiekin hasiko dute jai giroa arratsaldean: tailerrak plazan (17:00), gazteleku-kideen laguntzarekin; erraldoiak eta buruhandiak gaitariekin (18:00); txistorra mokadutxo ardoarekin, plazan, trikitalariek girotuta (19:00). Eta Korrikak ateratako materiala izango dute salgai.

Arkupeko Zaraia aretoan, ostera, Ain_1 musika talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du (19:00). Eta gauean bertso-afaria izango da Uratz Alde elkarrean (21:30), Gazte Ekimenak antolatuta. Unai Iturriaga eta Miren Amuriza bertsolari bizkaitarrak izango dira afalordua girotzen.

11 kilometro saldua

Korrikaren lekukoa eguenean, hilak 14, iritsiko da gurera Aramaiotik bueltan (13:25 inguruan); Untzilla

pasatuta San Antonio ermitan jaso du lehenengo korrikalariak. Bost kilometro egingo ditu gurean, 1.632tik 1.637ra, baina 11 kilometro saldu dituzte; hona erosi duten taldeak: Udala; Copreci-Mondragon Assembly; Aralar-UDA; Ezker Abertzalea; Murrukixo-Loramendi; Gazte Ekimena-Arteman; Aretxarte-Belar Meta; Herri Eskola; Arizmendi ikastola; emakume taldea; eta Lanbide eskola. Guztien artean, herritarrek lagun, Ederlan lantegiraino eroango dute lekukoa eskorriatzerre emateko.

dute gazteek: zapatuan, afari-merienda egingo dute; eta domekan, hilak 17, Eskoriatzako eta Aretxabaleako gazteen arteko areto-futbol txapelketa jokatu.

Hilaren 28tik 30era Elantxoben

Aste Santuko egunetan itxita egongo da gazteleku eta ondoren, Pazko Astea, irteera egingo dute; Elantxoben (Bizkaia) pasatuko dituzte hiru egun: apirilaren 28a, 29a eta 30a. Izena emateko epea zabalik dago gaztelekuan.

Elantxobera joango dira gazteak apiril bukaeran

Gaur plazan izango dira Korrikako ekitaldietan eta bihar 'Altxorraren bila' jardungo dute herrian

M.A. | ARETXABALETA

Gazteleku gazteek ekitaldiz betetako hilabetea hasi dute eta gaur Korrika dela-eta antolatuta tailerretan jardungo dute umei

laguntzen. Bihar, hilak 9, ostera, *Altxorraren Bila* ibiliko dira herrian. Hurrengo egubakoitzean, hilak 15, oporrak hartuko dituzte ikastetxeetan eta hori ospatuko

Kultura proiektuak garatzeko dirulaguntzak iragarri dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Kultura proiektuendako eta grabazioak egiteko laguntzak iragarri ditu Udalak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen oinarriak martxoaren 22an eta eskaerak egiteko epea zabalik dago.

Irabazi asmorik gabeko kultura taldeendako dirulaguntzak arautu ditu Udalak, kultura proiektuak eta urteko egitarauak gara ditzaten horiek. Aretxabaletan jardun beharko dute lanean elkarte horiek, eta ez dituzte aintzat hartuko beste partida edo deialdi batetik dirulaguntza jasotzen duten ekintzak. 17.000 euro bideratu ditu Udalak laguntza horietara.

Grabazioendako laguntzak

Bestalde, grabazioak egiteko masterrak eta beste produkzio kultural batzuetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak ere onartuta daude. Norbanako zein herriko taldeentzat dira laguntza horiek. Helburua da aurten produktutako masterrak grabatzearen kostuen zati bat eta beste ekoizpen kultural batzuk laguntzea, eta horretarako 3.000 euro gorde dituzte.

Bi laguntza horietarako eskaerak Udaleko Kultura Sailera bideratu behar dituzte interesatuek. Kultura ekintzen kasuan ez dago eperik aurkezteko, eta grabazioen kasuan azaroaren 2a arte dago.

Poltsikoko telefonoa ondo erabiltzen erakutsiko diete Basotxoko erretiratuei martitzenean, hilak 12

Kutxak antolatuta, poltsikoko telefonoaren gaineko oinarriko argibideak jasoko dituzte Basotxoko erretiratuek apirilaren 12an, martitzena, egoitzan bertan (17:30). Asmoa da erretiratuei erakustea telefonoek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzen, batez ere bizi kalitatea hobetzen lagun diezaieketen zerbitzuak; baita deien kostuen berri eman ere.

Apirilaren 18an, astelehena, ostera, osteoporosiaren gaineko berbaldia izango dute Lanbide Eskolako aditu baten eskutik.




M.A.

Leire Arana, Aretxartek saritua

Udaberriko zozketa egin du Aretxarte merkatarien elkarteak eta Begira argazki-dendan banatutako txartel sarituaren jabea Leire Arana izan da. Montmelo zirkuituan maiatzaren 22an jokatu den 1-Formulako Espainiako Sari Nagusia ikustera joateko sarrera bi eskuratu ditu eta aste bukaera Bartzelonan pasatzeko hoteleko egonaldia. Pozik dago Leire sariarekin, baina hark ez du joaterik izango.

30. Eguzkigraf. Koop. Elk. 1979-2009 urteurrena

Aretxabaleako Industrialdea F-0-4, Araba ibilbidea, 20550 Aretxabaleta. Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941. E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF inprimategia

jai egitarauak
kartelak
gonbidapenak
tarjetak
aldizkariak
inpresoak
errekordatorioak
liburuxkak

Onartu dituzte zaharren egoitzako estatutu berriak

"Parte-hartzaile eta demokratikoagoak" direla diote patronoen juntakoek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako zaharren egoitzako estatutuak aldatzea onartu zuen udalbatzak, joan den astean egindako osoko bilkuran. Ezker Batua-Berdeak taldearena izan ezik, gainerakoen aldeko botoa jaso zuen proposamenak. Esandako taldeko Juan Luis Merino zinegotzia abstenitu egin zen. Orain arteko estatutuak 1918koak dira.

Hango patronoen juntako kide eta PSE-EE alderdiko zinegotzi Iñaki Pierruguesen arabera, "demokratikoagoak eta parte-hartzaileagoak" dira estatutu berriak. Historikoki fundazioko presidentea herriko abadea edo alkatea izan bada ere, estatutu berriek kargu horren izendapena patronoen juntak erabaki dezala aurreikusten dute; Pierruguesen arabera, "organo horren izaera presidentzialista desagertzen da". Horretaz gainera, honako kideek osatuko dute esandako junta: Olazar erretiratuen elkarteko eta elizako kide bana, zaharren egoitzako langileen eta han bizi direnen edo haren senitartekoen ordezkari bana. Bestalde, estatutu berrien arabera, Udalean



Zaharren egoitza kudeatzen duen patronatuak estatutu berriak ditu. | MIRIAN BITERI

ordezkatuta dagoen talde bakoitzak ere kide bat izan ahalko da patronoen juntan. Orain arte, herriko abadeak, alkateak, Udaleko gizarte-ongizateko arduradunak, hiru eskoriatzarrek, erlijio-elkarteko ama nagusiak eta egoitzako zuzendariak osatu izan dute esandako junta.

Jose Arana fundazioa

Bestalde, fundazioaren izena aldatzea ere onartu zuten. Patronatuaren sortzaileen borondatea berreskuratu nahi izan dute, Jose Arana izena jarrita. Estatutu hasieran gogorarazten da Eskoriatzako herriari utzitako legatua (1908. urteko

200.000 pezeta) edateko ur-horniketa sarerako, ikastetxerako eta ospitalerako bideratu zela. Horrela, gaur egun gizarte-ongizate bezala ezagutzen dugunaren oinarritzko pilareen eraikuntzan aitzindaria izan zen Arana.

Osoko bilkura berean, udalbatzak bat egin zuen Usurbilgo Itunarekin. EAJ eta Hamaikabat alderdietako zinegotzien aurkako botoak, PSE eta Elizateetako abstenzioak eta gainontzeko zinegotzien aldeko botoak jaso zituen proposamenak. Horren arabera, hondakinak kudeatzeko errausketa baino modu osasuntsu eta errespetuzkoagoak badira.

Jose Luis Cantero aurkeztu du PSE-EEK alkatetzarako

Oraingo zinegotzi Iñaki Pierrugues "harro" dago bi agintaldietan egindako lanarekin

M.B. | ESKORIATZA

Gero eta gutxiago falta da udal eta foru hauteskundeetarako eta alderdiak alkatetzarako hautagaiak aurkezten hasi dira. Asteon, PSE-EEKo zerrendaburua Jose Luis Cantero izango dela jakinarazi du. Udal politikan ibilitakoa da Cantero; gaur egun PSE-EEKo bozeramaile da Urretxuko Udalean.

Canterok 48 urte ditu eta abokatua da 1986a ezker; genero indarkerian, immigrazioan eta zuzenbide penalean espezializatuta dago. Iñaki Pierrugues ordezkaturako du. Azken zortzi urte egin ditu zinegotzi moduan Eskoriatzako Udalean. "Harro" dago Pierrugues egindako lana-



Jose Luis Cantero. | PSE

rekin, "bizi-kalitatea eta ongi-zatea" hobetzen lagundu duela. Haren esanetan, "zinegotzi kargua uzteko ordua heldu da, herrialde honen askatasuna defentsatzeagatik hil direnak gogoraraziz eta bakea lortuko dugun eguna gero eta gertuago dagoela itxaropenarekin".

Begiraleak behar dira uztaileko udaleku irekietarako

M.B. | ESKORIATZA

Urtero moduan, udaleku irekietarako dei egin dute. Uztailearen 4tik 22ra egingo diren udalekuetarako begiraleak behar dira eta zabalik dago curriculumak bidaltzeko epea; hilaren 15era arte.

Interesatuak hiru bide izango dituzte: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 16:30etik 19:30era, Tortolis ludotekara eramanda; kultu-

ra etxean aurkeztuta; edo gazteria@eskoriatza.net helbidera bidalita.

Euskara maila handia

Begiraleek, euskara maila ona izateaz gain, 18 urtetik gorakoak izan behar dute. Lehenetsiko da Eskoriatzako izatea eta begirale titulua eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak edukitzea. Esperientzia izatea ere baloratuko da.

Arizmendiko Ibone Andresentzat saria

Ibone Andresek irabazi du Jaurilaritzak hauren eskubideen konbentzioaren XXI. urteurrenaren harira egindako *Eskubideak eta betebeharrak: Zer iruditzen?* lehiaketa. Batxilergoko 1. mailako ikasle da, Arizmendin. Eskoriatzako ikasle Julen Perales finalistaren lana ere saritu du epaimahaiak.



GOIENA

OHARRAK

UDABERRI FESTA

Gaur, egubakoitza, udaberri festa egingo dute Tortolis ludotekan, 18:00etan.

KIROL HITZORDUAK

Astero moduan, kirol hitzorduak daude asteburuan kiroldegian. Bihar, 10:30ean, 2. mailako kadeeten saskibalo partidua dago Eskoriatza eta Soralue Bergara artean. Arratsaldean, 18:00etan, seniorretan, Donostiako Tecnun

taldea hartuko dute etxeok. Etzi, 11:00etan, gazteen areto-futbola izango da.

DISKO-JARTZAILEA

Etzi, domeka, DJ Minimal tailerra izango da gaztelekuan.

HITZALDIA IBARRAUNDIN

Martitzenean, *Elektromagnetismo eta osasuna* hitzaldia izango da Ibarraundin, 19:00etan. Euskaraz izango da hori.



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63

Mendirako irteerak hilerro, Arrolarekin

lazko ekintzen balorazio positiboa egin zuten urteko batzarrean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Eguaztenean egin zuen urteko batzarra Arrola elkarteak eta, Zuzendaritza Batzorderako kide berriak izendatzeaz gain, iazko balorazioa eta aurtengorako asmoak azaldu zituzten bertan.

Joan den urteko balorazio positiboa egin zuen Zuzendaritza Batzordeak. Joan den urtean antolatutako ekintzen artean izan ziren arrakastatsu batzuk: Arrolara egiten den urteko lehen irteeran 60 bat lagun bildu ziren; Pirinioetara egindako aste bukarrak irteerara 25 bat lagun joan ziren; eta GPS ikastaroan 15 lagun ibili ziren (gehiagorendako lekuri ez zegoen). Ekintzekin batera, Arrolako argazki bildumarekin

egindako lana azpimarratu nahi izan zuen zuzendaritzak. Joxe Mari Iturbe, Jabi Etxaniz eta Iñaki Legorbururi eskertu zieten argazkiak digitalizatu eta Interneten jartzen egindako lana.

Zuzendaritzarako boluntarioak Sei lagunek osatzen dute Zuzendaritza Batzordea eta urtero batzordea osatzeko arazoak izaten dituztela nabarmendu zuten. Arrolako bazkideei dei egin zieten zuzendaritzan parte hartzerak animatu daitezten.

Ondoko taulan dituzue aurtengorako asmoak. Herriko taldeekin elkarlanean ere ekintzak antolatu nahi dituzte; Oñati bidea garbitzea, adibidez.

AURRERA BEGIRAKO ASMOAK

MAIATZA

- ▶ Antzuolako bira
- ▶ Mendi irteera

EKAINA

- ▶ Antzuolako bira
- ▶ Umeen irteera

UZTAILA

- ▶ Pirinioetan aste bukaera

IRAILA

- ▶ Finalista eguna eta bira

URRIA

- ▶ Egun osoko irteera

AZAROA

- ▶ Argazki emanaldia

OHARRAK

FUTBOLA: INFANTILAK

Infantil mailan zortziko futbolearen jokatzeko nesken Ordiziako nesken kontra jokatuko dute partidua domekan, 11:30ean, Ordiziako Altamiran. Mutilek, berriz, Hernaniren kontra jokatuko dute zapatuan, 09:00etan, Hernaniko Zubipen.

KARTEL ERAKUSKETA

Aurreko asteburuan moduan, honetan ere, Martxoaren 8ko kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa egongo da Olaranen. Zapatuan eta domekan egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.

HITZALDIA

Emuneko Larraitx Madinabeitiak euskararen inguruko *Zer egin?* izeneko hitzaldia egingo du apirilaren 12an, martitzena, 18:00etan, Torresoroan.

KORRIKA TXIKIA

Apirilaren 13an, eguaztena, egingo dute umeek Korrika Txikia. 12:00etan irtengo dira, Errekaldetik.

UDALEKU IREKIAK

Uztaileko udaleku irekietan parte hartzeko eta begirale lanetan aritzeko apirilaren 11, astelehena, da izena emateko azken eguna.

ARGAZKI LEHIAKETA

Antzuola eta antzuolarrak IV, argazki lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna maiatzaren 5a izango da. Antzuola izango dute protagonista argazkiek. Oinarriak www.antzuola.com webgunean.



Pilar Agirrezabal, Carmen Egaña eta Francisco Moreno dira kide berriak. | U.A.

Hiru kide berri izendatu dituzte Erretiratuen Elkarteko batzordean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den zapatuan, apirilak 2, egin zuten urteko batzar orokorra Erretiratuen Elkartean. Batzordeak proposatutako puntu guztiak onartu zituzten.

Hauek izan ziren landu eta onartu zituzten gaietako batzuk: batzordekideen iraupena lau urtetik hirura aldatu da; batzordean zortzi kide beharrean bederatziz izango dira; Angelita Ena eta Mari Aguadok laga dute batzordea eta Pilar Agirrezabal, Carmen Egaña eta Francisco Moreno dira berriak; 2009ko akta eta 2010eko memoria eta diru-kontuak onartu zituzten; aurtengo ekintzen programaren aurrekontua azaldu eta onartu zen.

Antzerkia

Apirilaren 13an, eguaztena, antzerki emanaldia egingo da Torre-

oroan, 17:00etan, herritar guztiei zabaldua. Oñatiko Pake-Lekuko erretiratuek *Problemas de pareja, soluciones aquí* izeneko antzez-lana taularatuko dute.

Urte bukaeran hasiko dituzte Sagastiko biribilguneko lanak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den urtean irailean onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-632 errepidetik Sagastira sartzeko bidegurutzean biribilgunea egiteko proiektua. Lanak hasteko tramitazioa aurrera doa, datorren astean lurra hartu aurreko aktak sinatuko dituzte, eta, Foru Aldunditik adierazi digutenez, gutxi barru irtengo dira lehiaketara lanak.

Behin lehiaketa publikoa amaituta eta dagozkien tramite administratibo guztiak egin da, urteko laugarren hiruhilekoan hasiko dituzte lanak. Hala, 2012ko udarako lanak amaituta egotea espero dute.

Antiguako bidea berritu

GI-632 errepidearen eta Sagasti kalearen bidegurutzean eraikiko dute biribilgunea. Puntu hori hori baino 200 metro aurrerago dagoen Antiguako auzorantz doan bidea ere berrituko dute. Hartara, Deskarga aldera doazen ibilgailuek ez dute ezkerretara egin behar izango, gaur egun gertatzen den moduan. Bestalde, biribilgunearen proiektuak aurreikusten du erdiko lerro bat jartzea Sagastitik Bergara aldera doazen ibilgailuentzat.

Foru Aldundiak 567.000 euro inbertituko ditu lan horietan, biribilgunea egin eta bideko segurtasuna hobetzeko.

Kontzertua egingo dute gaur gaztetxean herriko bi taldek; kantu-afaria bertan behera gelditu da

Gaur, egubakoitza, Klakson eta Los Viernes al Ron taldeek kontzertua eskainiko dute gaztetxean, Korrika Kultureko ekintzei hasiera emateko. Domekan umeendako film emanaldia egingo da Torresoroan, 18:00etan: *Nanny McPhee eta Big Bang-a* filma emango dute. Zaturako kantu-afaria zegoen antolatuta, baina bertan behera gelditu da, jende gutxi eman duelako izena.

Patxiko Txerrenen aurtengo ediziora aurkeztutako lanen emaitzak jakinaraziko dira zapatuan

Antzuolako eskolan diharduten 1. mailatik 6. mailara arteko neska-mutiko guztiek aurkeztu dituzte ipuinak Patxiko Txerrenarako. Zapatuan, 18:00etan, Torresoroan, ipuin onenak zein izan diren jakinaraziko dute eta saritxo bat jasoko dute egileek. Apika taldekoek gidatuko dute saio guztia eta jakinarazpenaren ondoren ipuin-kontaketa egingo dute.

Memoria lantzeko tailerra eta ezinduak zaintzeko formazioa eskainiko dituzte Gizarte Zerbitzuek

Memoria lantzeko ikastaroa egingo da maiatzaren 2tik ekainaren 8ra bitartean, astelehen eta eguaztenetan, eguneko zentroan. Izena emateko epea zabalik dago apirilaren 15era bitartean. Maiatzaren 9an, 10ean, 11n, 16an eta 17an, berriz, familian pertsona ezinduak dituztenen formazioa emango dute. Apirilaren 20rako eman behar da izena udaletxean edo Gizarte Zerbitzuetan.

Zestoaren kontra jokatuko du futbol talde nagusiak zapatuan, mailaz igotzeko aukerari eutsi nahian

Joan den zapatuko garaipenari esker (3 eta 0 irabazi zuen Antzuolako Lazkaoren kontra), laugarren postuan dago Antzuolako taldea eta zazpi puntura dauka bigarrena, mailaz igotzeko aukera emango liokeen postua. Zestoaren kontra jokatuko dute zapatuan, 15:30ean, Zestoako Iraeta futbol zelaian.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEIA**

Sukalderako eta bainurako altzariak Altzari rustikoetan espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Gasteizko Malatu taldeak jazz doinuak eskainiko ditu gaur Iturrieta sagardotegian (22:30). | GOIENA

Ekintzaz lepo dator aste bukaera, Korrika girotzeko

Kilometro guztiak saldu dituzte asteen; batzordeak egindako ekarpena eskertu gura die kolaboratzaileei

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaiora apirilaren 14an helduko da Korrika, eta atzerapenik ezean, 12:25ean helduko da Ibarra auzora. Asteon lortu dute Aramaio kilometroak saltzea. Herriko talde, eragile, alderdi politiko, elkarte gastronomiko, denda eta tabernak lagundu dute zeregin horretan eta Korrika batzordeak bereziki eskertu gura izan du horien guztien ekarpena. Eta noski, hilaren 14an parte hartzeko deia egin die: "Korrikalariak behar ditugu!", adierazi dute.

Musika, dantza, bertsoa...

Korrika Kultureko ekitaldiak gaur eta bihar izango dira. Gaur, Gasteizko Malatu taldeak -atzo Arrasaten izan ziren, gaztetxean-joko du Iturrieta sagardotegian (22:30). Jazz doinuak ekarriko dituzte batez ere, euskaraz. Hala ere, bihar izango da egun handia: 18:30ean Papargorri eta Bixente Goikoetxea abesbatzen saioa izango da Sastiñan, eta 19:00ean, Lagunartea dantza taldeak herri-tarrak dantzan jarriko ditu. 20:00etan gorantz egingo dute, txistu-

larien laguntzaz. Goian, kultura etxearen inguruan, *Esaera zaharren bertso poteoa* bataiatu duten saioa egingo dute herriko bertsolariak. Azkenik, 21:00etan Ustekabe fanfarrea egongo da plazan. 19:00etatik aurrera basurde pintxoak eta ardoa egongo dira plazan eta patata tortilla pintxoak eta sagardoa goialdean. Pintxoak eta tragoa euro baten jarriko dute salgai. Arropa postua egongo da bihar arratsaldean eta baita Korrikaren laguntzaile egiteko aukera ere.

Euskal Herriko historia mitiko ezezaguna liburu baten, Julen Arriolabengoari esker

J.B. | ARAMAIO

Julen Arriolabengoa idazleak (Aramaio, 1960) euskal historia-kondaira ezezagunak batu eta liburu bihurtu ditu. *Jaun zuria-aren askazia* da liburuaren izenburua eta Alberdaniak argitaratu du, Ostiral Saila deritzon eta gazteei zuzendutakoa den atalean. Arriolabengoak liburu idazteko erabili duen iturri nagusia Ibar-guen-Cachopinen kronika da.

XVI. mendean enkarguz idatzitako kronika izan zen, eta eskuizkribu horretan jasotako elezahar-rak bildu, antolatu eta ipuin modura argitaratu ditu liburuan, adierazi duenez, "ahalik eta erarik ulertzen zena".

Helduendako ere egokia

Gazteendako liburu bada ere, helduendako ere aproposa dela adierazi zuen editoreak.

Lagunarteko pilota partiduak izango dira domeka goizean, hurren artean pilota sustatzeko asmoz

Domeka goizean Zuiako Koadrila mailan pilota partiduak izango dira etxeko txikienean artean. Bigarren urtea da ekimena martxan jartzen dena eta helburua da Arabako pilota sustatzea. Topaketa modura planteatzen dute, eta, beraz, emaitza gutxienekoa izango da. Lau maila izango dira: aurre-benjamin, benjamin, alebin eta infantil mailak. 10:00etan hasiko dira, kiroldegian.

'Pa negre' gaur (21:45) eta 'Astroboy' domekan (17:00), zinema eskaintzak ez du etenik kultura etxean

Gerraosteko Katalunian girotutako filma da *Pa negre*, eta Andreu izeneko haur batek basoan gizon baten eta haren semearen hilotzak aurkitzen dituenetik abiatzen da istorioa. Oso kritika onak jaso ditu Agusti Villarongaren filmak. Gaur ikusi ahalko da, 21:45ean hasita, kultura etxean. Sarrera euro bat da. Bestalde, haurrendako eskaintzarik ez da faltako. Domeka honetan *Astroboy* izeneko filma izango da ikusgai, 17:00etan.

Hauteskundeetarako hautesle-errola ikusgai egongo da udaletxean apirilaren 11ra arte

Apirilaren 4a ezkerreko ikusgai dago udaletxean maiatzaren 22ko udal eta batzar nagusietarako hauteskundeetarako hautesle-errola. Udal bulegoko ordutegiaren barruan kontsultatu ahalko dira zerrendak, apirilaren 11ra arte. Erreklamazioak jarri gura izanez gero, epe horien barruan egin behar dira. Informazio gehiago: 901 101 900 telefono zenbakira deituta edo www.ine.es webgunera jota.

NIRE USTEZ

ANDERE ARRIOLABENGOA



Orain da momentua!

Joa den asteartean gertakari historiko bat bizi izan genuen. Lehenengo aldiz euskal gehiengo sindikala, sindikatu galego, katalan eta kanariarrek batera Madrilgo kaleetan zehar ibili zen Espainiako Gobernuak azkenaldian inposatutako neurri antisozial sakonei eta izaera ekonomikoa duten neurri gogorei planto egiteko asmoz.

Mobilizazioak festa kutsua izan arren -gaita eta txalaparta doinuek egin zieten ongi-erria Lan Ministerioaren aurrean- interbentzioak sakanak eta kritikaz beteak izan ziren. Ozen aldarrikatu zuten, gainera, herrialde bakoitzeko langileria eta orokorrean gizar-

tearen erabakitzeko eskubidea. Euskaldunok urteak daramatzagu gure lan harremanetarako esparru propioa aldarrikatzen. Aldarrikapen honen mui-nea gai laboral eta sozialetan lege ahalmena dago, lan harremanetan eta babes sozialaren sistemaz nahiz Euskal Herrian izan behar duen negoziazio kolektiboaren eredu bermatzen duen lege ahalmena, alegia.

Orain da momentua. Langile, pentsiodun, etxekoandre... Denok batu behar dugu gure eskubideak defendatzeko. Euskaldunak gara eta Euskal Herria da gure erabaki gunea. Bertan hartu behar dira gai laboral eta sozialei dagozkien erabakiak. Astearteko mobilizazioa abiapuntua izan zen, ez helmuga. Egin dezagun bidea denok elkarrekin!

"Denok batu behar, gure eskubideak defendatzeko"



Extremadura aldean ederto ibili dira Alaiak elkarteak

ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

Martxoaren 28tik apirilaren 3ra Extremadura aldean ibili ziren Alaiak erretiratu elkarteak. Honako herri eta hiriak bisitatu zituzten, besteak beste: Plasencia, Guadalupe -irudian, talde osoa Guadalupeko Ama Birjinaren elizaren atarian-, Trujillo, Merida, Caceres, Badajoz eta Elvas. 45 lagun batu ziren, eta, adierazi dutenez, "oso gustura" ibili ziren hara eta hona. Alaiak elkarteak urtean behin antolatzen ditu halako irteerak.

ELGETA

Pakita Mateos | AGIPAD elkartearen prebentzio arduraduna

"Nerabezaroa aldaketa garaia da; oso aberatsa zentzu askotan"

Pakita Mateos adituak lau saio egin ditu Elgetan 12-18 urte bitarteko nerabeen gurasoendako; hamar bat lagunek jarraitu dituzte haren azalpenak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Nerabezaroak hasiera eta amaiera duela azpimarratu du Pakita Mateosek Elgetan egindako saioetan. Gurasoak baikorrak izatera animatu ditu.

Nerabezaroak zergatik du hain fama txarra?

Nerabezaroa aldaketa garaia da; aldaketa garrantzitsua dira eta gainera bat batean ematen dira. Horrek tentsioa sortzen du familian eta horregatik du hain fama txarra. Baina nire ustez fama txar hori ez dago justifikatuta. Testuingurutik ateratzen dugu berez naturala den prozesu bat. Askotan, gainera, gazteak egiten ditugu gure gizartearen zoritxar guztien erantzule. Ez dira errudunak, gure gizartearen parte bat besterik ez dira.

Ze harreman dute gizarte motak eta nerabezaroak?

Zuzena, azken batean hezi ditugun gazteak ditugu eta guk sortu dugun gizarte bizi dira. Une sozial bakoitzak bere nerabezaroa dauka. Gaur egungo nerabezaroak ez du zerikusirik 70. hamarkadako nerabezaroarekin. Sasoi horretan ematen diren aldaketa batzuk unibertsalak dira baina beste batzuk testuinguruak markatzen ditu.

Ze aholku emango zenieke nerabeak dituzte gurasoei?

Motxila batekin iristen gara nerabezaroa ere horregatik oso



Pakita Mateos, Elgetako Salvador kalean martitzenean. | L.Z.

"Nerabe gehienak oso dibertigarriak dira; denbora eskaini behar diegu"

garrantzitsua da gure seme-alabei ematen diegun haurtzaroa. Gizarte hau autoritarismotik gainbesean oinarritutako heziketa estilora pasa da eta muturreko jarrerak ez dira sekula onak. Arauak eta mugak beharrezkoak dira, nerabezaroan inoiz baino

gehiago. Azken finean nerabeek mugak eta arauak behar dituzte apurtzeko besterik ez bada. Helduok argi utzi behar diegu zer espero dugun euren gaindik eta ondo azaldu behar diegu zeintzuk diren inolaz ere gaintitu ezin ditzaketan mugak. Malguak izateko sasoi ere bada. Hortxe dago koska. Nerabe gehienak oso dibertigarriak dira, baina ez diegu denborarik eskaintzen. Oso aberasgarria da gurasoendako ere seme-alabak hartzen eta lehenengo erabakiak hartzen ikustea. Merez du benetan.

Gaur bertso-poteoa, afaria eta kontzertua; eta etzi, domeka, kantu-bazkaria Korrikaren alde

L.Z. | ELGETA

Gaur, barikua, 19:00etan hasiko dira herrian Korrikaren aldeko ekimenak. Gaztetxetik bertso poteorako gonbita egin dute. Ondoren, afaria egingo dute; paella, solomoa piperrekin, postrea eta kafea.

Korrika Kulturalaren barruan sartzen diren ekimenak dira. Afariaren ostean, gainera, kontzertua egingo da gaztetxean. Ez! eta Eutsi taldeek emanaldia egingo dute, 22:30ean hasita. Sarrera hiru euro da.

Gaurkoak ez dira Korrika Kulturalak Elgetan emango

dituen ekitaldi bakarrak. Etzi-ko, domeka, kantu-bazkaria antolatuta dute Ozkarbi elkarteak. 14:30ean emango diote hasiera kantu-bazkariari.

Papiroflexia tailerra

Udalak antolatuta, bihar, zapatua, papiroflexia tailerra egingo du umeendako zein gurasoendako Mari Joxe Atientzak gaztelekuan. Bina orduko bi saio egingo ditu; 16:00etan hasita, 7 urtera arteko umeendako eta 18:30etik aurrera 7 urtetik gorakoendako. Parte-hartzea doan da.

Gas faktorekin lotuta 50 kexatik gora jaso dituzte udaletxean

L.Z. | ELGETA

Udaletxean herritarren eskaerak jasotzen jarraitzen dute. Oxel Erostarbe alkateak bilera eskatu du Repsol enpresako arduradunekin eta bilera horretan herritarren ezinegona zenbaterainokoa den azaldu nahi die.

Azken hilabeteetan gas propanoaren prezioak nabarmen egin du gora eta etxe gehienetan min handia egin du martxoaren fakturak. Egoera horren aurrean, Udalak herritarren kexak jasotzeko epea zabaldu zuen. "Honezkeroko 50 idatzitik gora jaso ditugu", azaldu dute

Udaletik. "Herritarrek bete behar duten inprimakia prest dugu eta idatziak jasotzen jarraituko dugu Repsoleko arduradunekin bilera hori egin bitartean".

Fakturak aurkezteko eskaera

Udalak prestatu dituen inprimaketan datu pertsonalak eman behar dituzte herritarrek eta udal arduradunek eskatzen dute idatziarekin batera fakturak ere aurkezteko; "Epe bereko fakturak konparazioa egin ahal izateko", adierazi dute. Inprimakia *Elgeta.org* udal webgunean ere izango duzue.

III. FRONTENIS TXAPELKETA

Bihar, zapatua, hiru finalerdi

Amaitu da ligaxka III. Frontenis txapelketan eta bihar, zapatua, hiru finalerdi jokatu dituzte. Gainerakoak, apirilaren 16an jokatu dituzte. Bi finalak, berriz, apirilaren 30erako iragarri dituzte.

SAILKAPENAK

GIZONEZKOEN TXAPELKETA

1. Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi
2. Mikel Beretxinaga-Iñaki Olaortua
3. Iban Retolaza-Xabier Ubera
4. Ibon Untzetabarrenetxea-Asier Untzetabarrenetxea
5. Andoni Elortza-Eneko Maguregi
6. Adrian Gorostiza-Asier Osoro
7. Mikel Arkarazo-Ander Gorosabel
8. Oskar Sarasua-Xanti Dosuna

TXAPELKETA MISTOA

1. Maider Osa-Anartz Agirre
2. Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo
3. Idoia Serna-Mikeldi Garmendia
4. Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez

ASTEBURUKO PARTIDUAK -Zapatua, 10:00

- Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi/Asier Untzetabarrenetxea-Ibon Untzetabarrenetxea
- Maider Osa-Anartz Agirre/Olaia Jimenez-Aitzol Jimenez
- Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo/Idoia Serna-Mikeldi Garmendia

LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako etxeen bigarren lehiaketa deia egin du Udalak

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketako mendi etxeak esleitzeko bigarren lehiaketa deia argitaratu du Udalak astean, otsaileko deira ez zelako inor aurkeztu. Hainbat baldintza aldatu egin dituzte oinarrietan, interesatuak ager daitezten, eta eskaintzak aurkezteko azken eguna apirilaren 23a da.

Hilean 300 euro

Orain arte legez lau, urterako esleitzeko dituzte etxeok Udalak, 20 urte arte luzatzeko aukerarekin bi aldeak bat etorritik gero. Ezarritako diru kopurua, osterara, aldatu egin du Udalak, egoera ekonomikoa kontuan hartuta. Hala, hasieran, etxeen ardura hartzerakoan, ordaindu beharko

duten kopurua 67.000 euro da -lehen 67.550 euro-, eta 2012ko maiatzaren 1etik aurrera hilero ordaindu beharko dutena 300 euro -lehen 1.550 euro-. Kopuru hori hobetu egin beharko dute eskaintza egiten dutenek. Udal ordezkariak uste dute baldintza berri horiekin agertuko direla interesatuak.

Argibide gehiago gura dituenak udaletxeko harrerara jo dezala -edo webgunera: www.leintzgatzaga.com-; baita eskaintzak aurkezteko ere.

Domekan Mañaria aldera Ozkarbi mendi taldearen eskutik

Mendizaleek Ozkarbi aurrean egin dute hitzordua domekarako, 08:00etan. Lauzpabost orduko mendi buelta egingo dute; Urkiola-Leungane-Mañaria, hain zuzen ere. Adin txikiak guraso edo nagusi baten ardurapean soilik joan daitezke. Prezioa, garraio gastueta-rako, bost euro da.

Erretiratuendako hitzaldia eta podologia zerbitzua

Eguaztenean, apirilak 13, 17:30ean hasita, zahartzarorari aurre egiteko baliabide pertsonalen inguruko hitzaldia egingo du Jose Luis Martin adituak. Biharamunean, apirilak 14, podologia herrian izango da. Ezinbestekoa da aurrez txanda hartzea: 943 76 80 77 (Nati).

Bertso-afaria gaur eta antzerkia eta ikus-entzunezkoa bihar, Korrika dela-eta

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Gaur, egubakoitza, bertso afaria izango da kultura etxean Korrika Batzordeak antolatuta. Uxue Alberdi eta Alaia Martin bertsolari gazteak lagun hartuta, giro bikaina izango dute.

Eta bihar, zapatua, jarraipena izango dute Korrikaren aldeko ekitaldiek: jolasak (16:30) eta antzezlanak umeendako Tende-

rete antzerki taldearen eskutik (17:30) eta ilunkeran (19:00) *Gatzaga atzo eta gaur* diapositibaren emanaldia kultura etxean.

Korrika 17, osterara, eguenean, hilak 14, iritsiko da Gatzaga (14:30), Eskoriatzatik bueltan. Herritar guztiei egin diete dei batzordeko kideek, Korrikaren lekukoari atzetik jarrai diezaiten herritik pasatzerakoan.

SARRERAK

Juan Tamariz ikuskizunerako sarrerak

Juan Tamariz kartomagian espezializatutako ilusionista ikusteko 4 sarrera (irabazle bakoitzari bi).

**KORRIKA-KO ARROPA**

17.korrika

eskalaya

aek

WWW.KORRIKA.ORG

Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

PILOTA

Aitor Mendizabal finalean izango da

- ▶ Partidu parekatuaren ostean Garraldari 22-20 irabazita sailkatu zen Antzuolako
- ▶ Datorren martitzeneko finalean Berako Etcheverri izango du aurrean

XABIER URTZELAI | BERGARA

Bergarako Lau Terdiko Soralue sariaren bigarren edizioan debagoiendar bat izango da finalean, Aitor Mendizabal (Martitzena, 19:30, Bergarako pilotalekua). Ikusleen gozamenerako, martitzenean Garraldak eta Mendizabalek jokatu zuten partidua, jaialdiko bigarrena, ederra izan zen. Finalerdi batek behar zituen osagarri guztiak izan zituen: gorputzaldi onean dauden bi pilotari, tanto ederrak, lehia estua eta emozioa azken unera arte.

Etcheverri, beste finalista

Lehenago, Ezcarayko Victorrek -Aspe enpresarekin hasi berri den Gorka Estebanen anaia- aurreikusi baino gehiago estutu zuen Berako pilotari Etcheverri (22-18). Partidua amaitutakoan Victorrek onartu zuen ez zela batere gustura geratu egin zuen partidurekin, baina harmailetan batutako zaleek beste iritzi bat zuten. Pilotak indarrez irteten zuten haren eskutik, abiaduraz,

eta partiduko minutu askotan ondo estutu zuen kontrarioa.

Etcheverrik beteranotasunez jokatu zuen. Errioxarrak protesta egin zuen, pilota astintzerakoan Berakoa gurutzatu egiten zitzaio-lako. Baina haserrealdiek ez zioten Victorri onik egin, kontzentrazioa galtzen zuelako; gazte eta odolbero, ikusleek behin baino gehiagotan adierazi zioten Ezcaraykoari tantoa galdu ostean ohiukatzen zituenak soberan zeudela, baina beste partidua batzuetan baino lasaiago ibili zen. Kantxatik kanpo, jarrera erabat umila zuen.

Azken tantoetan Victorrek txikitu egin zuen Etcheverrik zuen alde, baina Berakoak esperientziaz jokatu zituen azken tantoak, finalerako txartela lortzeraino (22-18).

Bigarren partidua, onena

Ondoren etorri zen arratsaldeko partidua onena. Txarto hasi zen Mendizabal, hainbat pasa eginez, hotz eta pilotalekuan eroso sen-



Finalerdietako bigarren norgehiagokan, Garraldari

Etcheverrik beteranotasunez jokatuta lortu zuen txartela

Mendizabalek eta Garraldak lehia ederra izan zuten

FUTBOLA

Bergarak eta Mondrak geratzen diren hiru derbietako lehena jokatu dute bihar

Ligan ahalik eta goren sailkatzeko borrokan sartu dira gure ordezkariak

X.U. | BERGARA

Aretxabaleta izango da debagoiendarren artean ohorezko erregionaleko talderik onena, ia segurua da hori. Inork ez du lorpen hori saritzen, baina helburu handiagoak eskura ez daudenean, etxekoen arteko pike sanoa mantentzeko balio du, sikiera.

Sei jardunaldi geratzen dira liga amaitzeko, eta gureko ordezkarien artean Aretxabaleta (50) eta Aloña Mendi (34) daude punta banatan; matematiketik diote Juananen mutilek oraindik posible dutela hirugarren mailara igotzeko lehiatzea, eta baita posible dela Aloña Mendi oraindik larri ibiltzea; baina, oso zaila izango da bietako edozer gertatzea. Hala, helburu motibagarri handiagoei faltan, Bergara (39) eta Mondra (35) Aretxabaletakoen itzala harrapatzeko lehiatuko dira derbian.



Lehen itzulian Bergarak 1-2 irabazi zuen Mojategin. | JOSETXO ARANTZABAL

Hiru derbi geratzen dira

Liga amaierara aurreikusten zena baino lasaiago iritsiko dira Aloña, Bergara eta Mondra. Eta eskerrak, kontrako egoeran geratzen diren hiru derbietan txispak irteten behar zirenetan

Hala, bihar Bergarak Mondra hartuko du Agorrosinen. Aretxabaletak, berriz, sailkapenean pega-pega eginda duen Anaitasunaren kontra jokatu du Ibarrran domekan. Aloñak, azkenik, Oartzunen jokatu du.



eta Mendizabal, partiduko epaileekin. | XABIER URTZELAI

AITOR MENDIZABAL
PILOTARIA**"Partidu oso gogorra izan da, Garraldak ondo mugitzen du pilota ezkeraz"****Ondo izerditutako garaipena izan da, baina finalean zaude.**

Bai, hori da garrantzitsuenaren. Oso partidua gogorra jokatu dugu, hasieratik ez naiz batera eroso sentitu, hiru-lau pasa egin ditut, baina partidu erdi inguruan markagailuan kontrarioengana gerturatu naiz, zorte apur batekin, hori ere esan beharra dago, eta hortik aurrera hobeto ibili naiz.

Garraldak momentu erabakigarrietan egin ditu huts handienak.

Bai, pare bat huts inozo egin ditu partidua azken zatian, eta horiek ondo aprobeztatu irabazi dit.

Martitzeneko finalean Etcheverri izango duzu zain.

Izen handiko pilotaria da, txapelketa oso ona egiten dabil eta pilotari oso onak kanporatu ditu. Baina finala irabaztera etorriko gara gu.



X.U.

titu ezinka (4-0). Garraldak markagailuan aurrea hartzeko aprobeztatu zuen hori, baina poliki-poliki Antzuolakoa partiduan sartzen joan eta lehia berdintzeko gauza izan zen (11-11).

Hortik aurrera tanto ederrak, bai batenak eta baita bestearnak: bi paretak, zabalera dejakak, txokora... teknika landua dutela erakusteko erakustaldiak zirudien hark –biek hala biek lurrean amaitu zituzten hainbat tanto–, baina akaso, Mendizabalek baino korrikaldi handiagoak egin behar izan zituen Garraldak, eta tantoek

aurrera egin ahala, Huartekoa fisikoki behera etorri zen.

Nekearen ondorioz egiten diren hutsak egiten hasi zen, eta tanto erabakigarrietan, gainera. Mendizabal 16-19 aurreratu zen, bazirudien bideratuta zuela garaiena, baina Huartekoa ez zegoen amore emateko gertu (19-19). Hor hustu zen Garralda, eta azken tantoetara gorputzaldi hobean iritsita, Mendizabalek finalerako txartela irabazi zuen (20-22). Astelenean, finalaren atarian Mendizabal *Harmailatik* saioan izango da (20:45, 22:30).

ATLETISMOA**Bikote mistoen lehen lasterketa Oñatin, Berdintxiketan**

X.U. | BERGARA

Donostiako Lilaton eta Arrasateko Takarraran lasterketen ondorekin, Oñatin ere berdintasunaren aldeko kirol hitzordua prestatu dute, Berdintxiketan.

Hala, lehenengo aldiz bikote mistoen lasterketa egingo dute apirilaren 15ean, egubakoitzean, Oñatin. 19:30etik 22:30era izango da lasterketa. Enpresagintza Fakultateko Kirol Zerbitzuak, Berdintasun taldeak eta Lein graduako ikasleen Snatu konpainiak antolatuko dute, Oñatik Udaren laguntzaz. Ibilbideak 5 kilometro izango ditu, Enpresagintza Fakultatean irtengo dira korrikalariak, eta Foruen Enparantzan amaituko dute proba. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko jo honako webgunera: <http://berdintxiketan.wordpress.com>

SASKIBALOA**Oñatikoa Goierri, Arrasatekoak Iruñera**

X.U. | BERGARA

Sustrai Aloña Mendiko mutilek gipuzkoarren arteko derbia izango du oraingo asteburuan, Goierri Verkol taldearen kantxan jokatuko dute eta zapatuan, 18:00etan. Bigarren postuan mantentzeko lehiaren, etxeko partiduak irabaztea ezinbestekoa izango da, baina kanpoan lortu ahal dituzten puntu guztiak eskertzekoak izango dira.

Bestalde, Mondragon Unibertsitateak Iruñean jokatu du, kategoria galtzeko aukera guztiak dituen San Inazio UPNaren kontra (domeka, 12:00). Nahiz eta joan den astean galdu (80-81), Arrasatekoek bigarren postuan jarraitzen dute, liderrarengatik –Viajes Marfil– garaipen bateko aldeaz.

ESKUBALOA**Ford Mugarrik Iturripen hartuko du Basauri, bihar**

X.U. | BERGARA

Euskadiko Txapelketan, Ford Mugarri Arrasateko jaitziera postuetatik irteteko puntu beharrean dagoen Indupime Basauriren kontra jokatu du bihar, zapatua, 18:00etan. Orgazten mutilek tinko jarraitzen dute igoera fasean, bigarren, hirugarren dagoen Askartzarekiko abantaila nabarmenez.

Hain zuzen, Askartzaren kontra jokatu du domeka eguerdian (12:00) Soraluze BKEk, Leioan. Kanpoan, eta kontrario gogor baten kontra; ezin hobeto Bergarakoendako. Izan ere, Josetxo Muniategiren taldeak, aurten, erronka gogorren aurrean erakutsi du aurpegirik onena, hainbat talde indartsuren etxean ezustea eman dute eta.

ASTEBURUKO HITZORDUAK**FUTBOLA****LEHENENGO MAILA**
Atletico de Madrid-Real
Domeka, 19:00. Calderon.**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**
Aretxabaleta-Arenas
Zapatua, 16:30. Ibarra.**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Bergara-Aurrera Vitoria
Domeka, 18:00. Ipintza.**OHOREZKO ERREGIONALA**
Oñatikoa-Aloña Mendi
Zapatua, 16:30. Oñatikoa.
Bergara-Mondra
Zapatua, 17:30. Agorrosin
Aretxabaleta-Anaitasuna
Domeka, 16:30. Ibarra.**ERREGIONAL PREFERENTE A**
Amaikak Bat-Aretxabaleta B
Zapatua, 16:00. Errotazar.
Mondra-B-Mutriku
Zapatua, 17:00. Moiategi.
Zestoa-Antzuola
Zapatua, 15:30. Iraeta.**ERREGIONALA, IGOERA**
Bergara B-Martutene
Zapatua, 15:30. Ipintza.**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**
SBB Mutrikuarrek-Aretxabal.
Domeka, 17:30. Mutriku.**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**
Aloña Mendi-Ordizia
Domeka, 16:30. Azkoagain.
Oñatikoa-Mondra
Zapatua, 15:30. Oñatikoa.**GAZTEAK, IGOERA FASEA**
Arizmendi-Dunboa-Eguzki
Zapatua, 11:30. Almen.**GAZTEAK, KOPA**
Bergara B-Arizmendi UDA B
Zapatua, 11:30. Ipintza.
Aretxabaleta B-Soraluze
Domeka, 11:30. Ibarra.**OHOREZKO KADET. KOPA**
Bergara-Vasconia
Domeka, 11:30. Ipintza.
Hondarribia-Aretx. Arizmendi
Domeka, 17:00. Ondartzar.**KADETEAK, IGOERA**
Dunboa-Arrasate
Zapatua, 12:00. Iruñ.
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka, 12:00. Azkoagain.**KADETEAK, KOPA**
Soraluze-Bergara B
Zapatua, 11:30. Eozia.
Eibarrak B-Aretxabaleta B
Zapatua, 13:30. Unbe.
Arizmendi-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Almen.**OHOR. INFANTILAK. TXAP.**
Aretx. Arizmendi-Bergara
Zapatua, 11:30. Ibarra.**OHOREZKO INFANT. KOPA**
Elgoibar-Aloña Mendi
Domeka, 12:00. Mintxeta.
Arrasate-Zarautz
Zapatua, 10:45. Moiategi.**INFANTIL PARTE-HARTZE**Eibarrak-Aretxabaleta
Domeka, 14:30. Unbe.
Mutriku-Leintz Eskola Kirola
Zapatua, 11:30. San Miquel.**INFANTIL TXIKIEN KOPA**
Arrasate-Elgoibar
Zapatua, 12:30. Moiategi.
Bergara-Hondarribia B
Domeka, 16:15. Ipintza.**INFANTIL-TXIKI PARTE-HAR.**
Aloña Mendi-Lizeotarrak
Zapatua, 11:15. Azkoagain.**EMAKUMEZKOEN IGOERA**
Mondra-Arizmendi
Zapatua, 14:45. Moiategi.**EMAK. GAZTEAK, TXAP.**
Añoaga-Bergara
Zapatua, 18:30. Rezola.**EMAK. GAZTEAK, KOPA**
Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua, 16:30. Azkoagain.
Oñatikoa-Arizmendi
Zapatua, 17:30. Oñatikoa.**EMAKUMEZKO KADETE F11**
Mondra-Mutriku
Domeka, 12:30. Moiategi.**EMAK. KADETE F11, KOPA**
Ordizia-Bergara
Domeka, 10:00. Altamira.
Aloña Mendi-Arizmendi
Domeka, 10:30. Azkoagain.**ARETO FUTBOLA****EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza
Atsedena.**GIPUZKOAKO BIGAREN M.**
Azpeitiko-Aretxabaleta
Zapatuan, 15:00. Azpeitiko.**HIRUGARREN MAILA**
Aloña Mendi-Joxe Mari Tab.
Zapatua, 18:30. Zubikoa.**GAZTEAK**
Azpeitiko-Ceramicas Nogaes
Domeka, 12:00. Zubikoa.**ESKUBALOA****EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri Arrasate-Basauri
Zapatua, 18:00. Iturripe.
Askartzar-Soraluze
Domeka, 12:00. Leioa.**TERRITORIAL MAILA, KOPA**
Izarraitz Aloña-Ordizia
Zapatua, 17:00. Oñatikoa.**FEDERAZIO SARIA, GAZTEAK**
Bergara-Urola
Zapatua, 16:00. Labegaraieta.**ALDUNDI SARIA, KAD. GIZ.**
Bergara Soraluze-Leizaran
Zapatua, 17:30. Labegaraieta.**SASKIBALOA****LEHENENGO MAILA, IGOERA**
Goierri Verkol-Sustrai Aloña
Zapatua, 18:00. Iruñeta.**LEHEN MAILA, JAITZIERA**
San Inazio UPNA-MU
Domeka, 12:00. Iruñeta.**LEHEN MAILAKO SENIORRAK**
TAKE Orbeta-MU
Zapatua, 18:00. Tolosa.**BIG. MAILAKO SENIORRAK**
Hiercor Goierri-Sustrai Aloña
Zapatua, 16:00. Iruñeta.
Soraluze BKE-Easo Zahar
Domeka, 17:00. Labegaraieta.**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
Eskoriatza-Tecnun
Zapatua, 18:00. Intxaurtxueta.**GAZTEAK, PARTAIDETA**
Soraluze BKE-Aloña Mendi
Zapatua, 10:00. Bergara.
MU B-Gamon Cafeteria
Domeka, 11:45. Musakola.**EMAKUME GAZTEAK, PART.**
Bera Bera-Aloña Mendi
Domeka, 12:00. Donostia.**KADETE GIZON. ERRENDI.**
Mondragon Uniberts.-EASO
Zapatua, 10:00. Beasain.**KADETE GIZON. PARTAIDETA.**
Aloña Mendi-BideBide
Domeka, 12:00. Oñatikoa.Soraluze BKE-Cafes Aitona
Domeka, 11:00. Labegaraieta.
MU B-Antigua Luberri
Zapatua, 10:00. Musakola.**KADETE EMAK. PARTAIDETA.**
Arizmendi Esko.-Soraluze Ber.
Zapatua, 10:30. Intxaurtxueta.**INFANT. GIZO. ERRENDIME.**
Soraluze BKE-Zubiri Manteo
Domeka, 11:00. Labegaraieta.
LEK Ointxe-Easo 98
Zapatua, 12:00. Musakola.**PILOTA****SORALUCEKO LAU T'ERDIKO**
TXAPELKETA, FINALAK
Martitzena, 19:30ean hasita,
Bergarako pilotalekuan.**TXIRRINDULARITZA****ARETXABATEKO SARIA,**
ALEBIN ETA INFANTILAK
Zapatua, 16:30. Aretxabaleta.**GIMNASIA ERRITMIKOA****B MAILAKO ESKOLA ARTEKO**
TXAPELKETA, 2. FASEA
Zapatua, 11:00ean eta 16:45ean
hasita, Uarkapen.

ARTXIBOA: JOSETXO ARANTZABAL

EMAKUMEZKOEN DERBIA Igoera fasean dabilzan Mondrak eta Arizmendik derbia jokatu dute zapatu arratsaldean (14:45) Moiategin.

Bakearen aldeko kontzertua

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA
LARUNBATA, APIRILAREN 30 EAN, 12:00 ETAN

Haurren lau koruk oso abesti ezagunak abestuko dituzte bakearen alde

Easo Eskolania (Donostia)
Donostiako Orfeoi Txikia
Bilboko Kontserbatorioko korua
Amici Musicae haurren korua (Zaragoza)

300 haur kantari



Sarrerak salgai:

- Servikutxa eta Kutxaren kutxazainetan
- Arantzazuko dendan
- Oñatin kultura etxean eta Turismo Bulegoan

Sarreraren prezioa:

15 €



Sarrerak lortzeko:
deitu 943 25 05 05 edo
idatzi kluba@goiena.com

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

**bazkideendako
100 sarrera doan***

*Pertsona bakoitzeko bi sarrera. Sarrerak agortu arte.
Sarrerak jasotzeko azken eguna: apirilak 19

Babesleak:



Hedabide laguntzailea:



KULTURA



Arrasateko gaztetxean aurkeztu zuten astlehenean *Buah txabal!* antzezlanak. | MIRIAN BITERI

"Lan tresna ezin hobea da"

ITXARO ARTOLA | AED-KO KIDEA

Gazteengana heltzeko "ahalegin berezia" egin du AEDk obra hori ekoizten. Hain justu, gazteei euskararen inguruan ausardiak "argi eta garbi" hitz egiteko ahalegina. AEDko kide Itxaro Artolaren arabera: "Euskgintzan eta bereziki lan egiten dugunondako lan tresna ezin hobea da gazteek euskararen inguruan hitz egin dezaten". Ez da gaztetxoei zuzendutako lana; 17 urtetik gorakoendako da.

"Bizipenetatik eraiki dut Gari"

JON ZUBIAGA 'OSORON' | AKTOREA

Arrasateko aktorearen esanetan: "Nire bizipenetatik pertsonaia eraikitzen saiatu naiz; kutsu sinpatikoa eman nahi izan diot, gertutasuna bilatu dut. Ez da bakarrik gazte baten gatazka, bizi garen gizarte diglosiko honetan edozeinek dauka identifikatzeko aukera". Esan bezala, gertutasuna erabili du gazteengana heltzeko, eta mezua "barruan" pizteko. "Algarak ez dira entzungo; asmo nagusia da barne eztabaida piztea".

Iturriaga, 'Osoron' eta AED 'Buah txabal!' antzezlanean

- ▶ AEDk ekoiztutako bakarrizketaren protagonista da Jon Zubiaga
- ▶ Maiatzaren 13an Arrasateko gaztetxean ikusi ahalko da emanaldia

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Arrasateko AED beste egitasmo baten dago murgilduta: *Buah txabal!* izeneko antzezlanaren ekoizpenean, hain justu. Gazteek eta eleaniztasunaz diharduen bakarriketa umoretsu eta zuzena da hori. Astlehenean aurkeztu zuten emanaldia Arrasateko gaztetxean; AEDko kide Itxaro Artola eta antzezlan horren egile Unai Iturriaga eta aktore Jon Zubiaga *Osoron* izan ziren han.

Iturriagak azaldu zuen antzerki emanaldi horretan Garikoitz Kortabitarte *Beti* gaztearen istorio zati bat kontatzen dela. 20 urte bueltako gazte bat da, eta goitizena beti gazte lokalean sartuta egotetik dator. Egilearen arabera, "gaur egun horren hedatuak dauden gazteen lokal batean bizi dela esan daiteke. Han egiten du bere bizimoduaren zati handi bat; handik irteteko ohitura handirik ez du, eta harreman sozialerako gaitasuna ere han gartu du".

FITXA
ANTZEZLANA
BUAH TXABAL!
Generoa: Umorea.
Egilea: Unai Iturriaga (Durango, 1974).
Ekoizlea: AED.
Aktorea: Jon Zubiaga <i>Osoron</i> .
Iraupena: 45 minutu.

Kortabitarte gazte "normal" bezala aurkeztu zuen durangarrak: aita euskalduna eta ama euskara ikasitakoa, eta *Beti* ikastolan ibilitakoa bada ere, kalean gaztelaniaz berba egiteko ohitura duena. Iturriagaren esanetan: "Arrasateko kasua ez dut horrenbeste ezagutzen, baina Durangon eta herri askotan horrelako kasu asko daude bai gaur egun eta baita orain dela 20 urte ere. Istori horretan, mutikoak euskarekin duen harreman gatazkatsua

azaltzen saiatu naiz". Behin parrandan irten eta poltsikoko telefonoa galtzen duenean du abiapuntu antzezlanak.

Telefonoa galdu

Iturriagaren arabera, "gaur egun telefonoa galtzea tragedia hutsa da; buah txabal!". Hori kontatzen duen bitartean, euskararekin duen harreman gatazkatsua, bere izaera xeblea eta lokaletako gazteen gaineko topikoen parodia muturreko baten lekuko egingo ditu ikusleak: "Umerez landuta dago, ironiaz eta sarkasmoz idazten saiatu naiz, barruraino iritsi dadin".

Zubiagak Iturriagak idatzitako lanari "gorputza" eman dio. *Osoron*-ek azaldu du "umore puntu handia" duela, baina "hausnarketarako" gonbita egiten duen umorea dela gaineratu du: "Ni, behintzat, testu horrekin identifikatuta sentitu naiz. Nerabe aratik irteterakoan euskal giroarekin eta Garik daukan gatazkarekin

ESANAK

"Iturriagaren testuarekin identifikatuta sentitu naiz"

JON ZUBIAGA 'OSORON' | AKTOREA

"Gaur egun telefonoa galtzea tragedia hutsa da"

UNAI ITURRIAGA | EGILEA

"Ekoizpen xumea da, baliabide gutxi ditugu-eta"

ITXARO ARTOLA | AED-KO KIDEA

identifikatuta sentitzen den generaziokoa naiz. Gari euskalduna da, baina bere ohiturek euskara albo batean uzten dute. Testu-ingurua eguneratuta dago gazte lokalarekin, baina gatazka ez da berria. Gazteei pentsarazten ematea da Garik bilatzen duena, bere bizipenak kontatuta".

Estreinaldia, etzi

Domekan, hilak 10, estreinatuko dute AEDk ekoiztutako emanaldia Markiñako Uhagon kultura gunean. Debagoienara maiatzaren iritsiko da: maiatzaren 13an Arrasateko gaztetxean izango da antzezlanak.

Astleheneko aurkezpenean, AEDko kide Itxaro Artolak nabarmendu zuen oso ekoizpen "xumea" dela, "baliabide gutxi" dituzte-eta. Alde horretatik, eskerrak eman nahi izan zizkien Iturriaga eta Zubiagari "ahalegin berezia" egin dutelako euren lana euskara elkartearen baliabideetara ekoizteko.

Motxila 21 eta gonbidatu bereziak Elgetan bihar

Down sindromea duten gazteek eta boluntarioek osatzen dute Motxila 21 taldea; 19 lagun, guztira

ARANTZAZU EZKIBEL | ELGETA

Nafarroako taldea da Motxila 21. Talde berezia da; izan ere, down sindromea duten eta musika munduan izen handia duten musikariek osatzen dute taldea.

Elgetan bihar, zapatua, eskainiko dute saioa, 19:00etan. Taula gainean jardungo du musikari talde bikainak. Alde batetik, Motxila 21 taldeko kideak diren 19 lagunak –tartean *El Piñas*– eta bestetik, Marea taldeko Kutxi izango da gonbidatu berezia Espaloiko agertokian. Gainera, Barri-cadako *El Drogas*-ek ahaleginak egingo ditu Zaragozan duen beste ekitaldi batetik garaiz iristeko Elgetara.

Bost urteko ibilbidea

Orain dela bost urte sortu zuten Motxila 21 taldea. Musikarekiko zaletasuna eta oztupoak gainditzeko ilusioa lagun izan zituzten taldea martxan jartzeko orduan. Down sindromea duten 12 gaztek eta 7 boluntarioek osatzen dute taldea. "Hasiara baten, Nafarroa-



Taldeko kideak kontzertu amaieran eskerrak ematen. | MOTXILA 21

ko down sindromea dutenen elkarteko Gabonetako ekitaldian jotzen genuen, baina orain, musika talde moduan ibiltzen gara", azaldu du Ainhoa Lizarraga elkarteko kideak.

Lehenengo kontzertu handia Iruñeko Gallare aretoan eskaini zuten, iaz; ordutik hona, hainbat agertokitan izan dira, baita Aretxabaletan ere.

Bederatzi abesti jotzen dituzte

Platilloa, bonboa, kaxa, tinbala, saxoa, akordeoia, gitarra eta baxua jotzen dituzte. Dagoeneko bederatzi abesti egin dituzte, denak bertsioak dira. Badute abesti bat taldeko ikurra dena: *Somos la banda motxila 21*; azken hori *El Drogas*-ek sortutakoa da. Musika eta giro bikainarekin, ilusioa gainezka izango dute, duda barik.

Umore absurdoaren bitartez inkomunikazioaz jardungo dute

A.E. | ELGETA

Gaur izango da antzezlanaren Elgetako Espaloia antzokian. Monstrenko taldeak *Tenemos que hablar* antzezlanaren taularatuko du; eta, hain zuzen, gaia inkomunikazioa izango da.

Lagunen gorabeherak

Euren onenean ez dauden hiru laguneko istorioak ekarriko dituzte Elgetara Monstrenko taldeko kideek. Zuloan daude aktoreak, baxu batean: leku txiki, ilun eta itxian.

Baxuan bizi dira hiru lagunak. Nekez bizi ere. Direna eta izan zitezkeena erakutsiko digute; izan zirena eta izan zitezkeena. Norberaren gezurrak sinisterrainoko koplak kontatu-

ko dituzte, dagoeneko kanpamunduaz lotura zuzena ere galduta izan arren.

Umore absurdoaren bitartez inkomunikazioaren gaia landuko dute. Barne inkomunikazio eta egunerokoa. Horrela lortuko dute ikuslea eszenografiaren parte izatea.

2009an egindako lana

Lau aktorek osatzen dute Monstrenko taldea: Txubio Fernandez de Jauregi, Jon Elola, Andres Bezares eta Jason Guerra. 2009an hasi ziren *Tenemos que hablar* antzezlanaren aurkezten.

Antzezlanaren gaur izango da, barikua, 22:30ean, Espaloian. Sarrerak txarteldegian bertan egongo dira salgai.



Monstrenko taldeko kideak. | GOIENA

www.korrika.org

17. ^{æek} korrika

BADATOR!

TREBIÑU-DONOSTIA 2011ko apirilaren 7tik 17ra

maitatu, ikasi, ari...

eskalera



Gosek jarri dio musika eta letra Korrikari 17ri. | GOIENA

"Pausoz pauso gelditu barik" girotuko dute eguen gaua Gosek eta Angerrek Arrasaten

Korrika 17 egitarauaren barruan izango da saioa; 22:00etan hasiko da

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Korrika gurera iritsiko dela ospatzeko kontzertu berezia antolatu dute datorren eguenerako. Arrasateko gaztetxean Gose eta Anger taldeen doinuak entzuteko aukera egongo da. Korrika 17ren *Euskalakari* abestia egin duen talde arrasatearrak etxekoan aurrean abestu, dantzatu eta gozatu du "pausoz pauso".

Trikitia elektronikarekin uztartuta abesti bikaina egin dute Ines Osinagak, Iñaki Bengoak eta Jon Zubiaga *Osoron*-ek.

Angerrek zabalduko du gaua

Taula gainera Anger taldekoak igoko dira lehenengo. Arkaitz Biain taldekideak azaldu du azkeneko diskoa aurkezten dihardutela azkeneko urte eta erdian,

eta, hain zuzen, abesti horiek eskainiko dituztela gaztetxean. Hala ere, baliteke "sorpresaren bat" egotea.

"Polita izango da herritarren aurrean berriro ere jotzea; gainera, Gosekoak lagun onak ditugu", azaldu du Biainek.

Kontzertua egunean izango da, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita.

Jabier Muguruzaren abesti berriak, Guria tabernan

Kontzertua domekan izango da, 19:00etan

A.E. | OÑATI

Jabier Muguruzak *Taxirik ez* diskoa aurkeztuko du Oñatiko Guria tabernan. Muguruzarekin batera Angel Unzu gitarra-joleak jardungo du.

Laster itxiko dute Guria; hain zuzen, hilaren 30ean. Azkenaldian zuzenekoak antolatzen jardun dute domeketan. Besteak beste, Ruper Ordorika, Quimi Portet eta Mursegok jo dute Guria tabernan azkenaldian.



Jabier Muguruza. | GOIENA

Hamargarren diskoa

Muguruzak bakarka argitaratzen duen hamargarren diskoa da *Taxirik ez*. Nafarroako Katarain estudioan grabatu zuen diskoa, urtebeteko lan gogorraren ondo-

ren. Intimismotik urrunago dagoen eta "argi gehiago" duen diskoa da Muguruzaren azken hori. Atxagak, Canok eta Irazuk idatzi dizkiote abestien letrak, besteak beste.

Mari Asun Pagoaga protagonista den '80 egunean' filmak 'opera prima' saria jaso du Nantesen

Nantesen Espainiako zinemaren jaialdia egin zuten joan den astean. Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendariaren eta Mari Asun Pagoaga aktore arrasatearraren *80 egunean* filmak *opera prima* saria jaso zuen jaialdian. Arrakasta handia izan du filmak mundu osoan; dagoeneko hainbat sari jaso ditu nazioarteko zinemaldietan. Orain, adibidez, Kanarietara joango dira filmeko ordezkariak, Las Palmasko zinema jaialdira, hain zuzen. Beste sariren bat ekartzeko ilusioz joango dira.

LANA ETA BIZITZA PERTSONALA kontziliatu, nola?

apirilaren 14an
BERGARAKO UDALETXEKO
OSOKO BILKURAN
10:00etatik 13:30era

10:00-10:15 Jardunaldien aurkezpena
AGURNE BARRUSO. Alkatea

10:15-11:00 Lehenengo hitzaldia

"Modelo horario laboral. Una rara avis en el ámbito europeo"

NEREA MARTIARTU. Deloitte-ko gerentea. Estrategiaren eta Antolakuntzaren Aholkularitza Gunea..

10:15-11:00 Bigarren hitzaldia

"Kontziliazio arazoak eta irtenbideak"

M. CARMEN URTEAGA. LAB Emakumeak-Gipuzkoa.

11:40-12:00 Kafea

12:00-12:40 Hirugarren hitzaldia

"Resistencia y cambios en los hombres ante los cuidados y conciliación en el mundo de la empresa"

JOSETXU RIVIERE. Emakumenderen Gizonduz programako idazkaritza.

12:40-13:30 Laugarren hitzaldia

"Kontziliazioa asmakizun bezala: zer erakusten du ezkutatu bezain beste?"

JONE MIREN HERNANDEZ. EHUKo Gizarte Antropologiako irakaslea.



Asistentziaren konfirmazioa:

apirilaren 12an 14:00ak arte,
943 77 91 26 telefonoan.



Izaro Sanchez | Artista

"Nire liburuak etxeko lanez beteta egon beharrean, marrazkiz beteta egoten ziren"

ARRITXU BARRUSO | ARETXABAETA

Izaro Sanchezek (Aretxabaleta, 1987) txiki-txikitatik argi izan du artista izan nahi zuela. Ilustrazioa ikasten ari da orain, baina Argazkilaritza ere ikasi zuen lehenago. Aurtengoa urte hona izaten ari da harendako: Arrasateko eta Aretxabaletako Aratusteetako kartel lehiaketak irabazi ditu.

Ilustrazioa ikasten ari zara. Ez da oso ohikoa. Zer egiten duzue?

Ez da oso ohikoa, jendeak irtenbide gehiago edo lana errazago topatzeko balio duten ikasketak egiten ditu. Ilustrazioan, batez ere, marraztu eta marraztu egiten dugu. Lehenengo urtean teknika ezberdinak erakusten dituzte, baina batez ere eskuz margotzen genuen, metodo tradizionalan. Bigarren urtean gehiena ordenagailuz egiten dugu: animazioa, 3-D, maketatze programak...

Eskuz ala ordenagailuz nahiago?

Nahiago dut lanak eskuz egin, gehiago gustatzen zait. Eskuak zikintzea dibertigarria da. Ordenagailuz egitea ere gustuko dut, baina ordenagailuek buruhauste gehiago ematen dituzte...

Argazkilaritza ikasi zenuen lehenago. Gustatu zitzaizun?

Asko gustatu zitzaidan, baina guztiz ezberdina da. Biak ere sormena erakusteko balio dute, bakoitza bere modura, ilustrazioan ordu ugari pasa behar dira marrazten, probak egiten, bozetoak egiten... eta argazkilaritza, ordea, begiratzen ikasi behar da, momentu egokiak topatzen, enkadratzeak egiten... bi mundu ezberdin dira, baina biak zoragarriak; biak dira artea.

Bi ikasketetan ere zer da ikasi duzun garrantzitsua?

Argazkilaritza makinaren erabilpena eta iluminazio ezberdinak, eta begiratzen ikastea. Ilustrazioan, berriz, teknika ezberdinak ikastea oso garrantzitsua iruditzen zait; baita bakoitzaren sormena paperean plasmatzen ikastea. Eta bietan ikasi dut oso garrantzitsua dela besteen obrak begiratzea, batzuetan kopiatzea.

Badirudi argi zenezukala artista izan nahi zenuela...

Bai. Txikitatik. Nire ondoan zegoen jendeak ere, familiak, bazekien. Nire nota onenak beti plastikan izan dira eta eskolako liburuak, askotan, etxeko lanez beteta egon beharrean marrazkiz beteta zeuden.

Ze teknika da gehien erabiltzen

duzuna eta zein gehien gustatzen zaizuna?

Gehien erabiltzen dudana teknika akuarela da, baina gustuko dudana teknika collagea da. Oso gustuko dut margoak eta beste material batzuk nahastea.

Nola inspiratzen zara eta non?

Idea gehienak gauean etortzen zaizkit, ametsetan nagoela. Autobusean noala ere ideia asko etortzen zaizkit burura. Inspirazioa, berriz, edonondik etor daiteke, baina gehienetan, besteen lanak ikusita, asko laguntzen du horrek.

Izango duzu zuk zeuk egindako lanen artean bat kuttunena...

Egin ditudan lan asko gustatzen zaizkit. Bat aukeratu behar banu oso zaila izango litzateke.

Arrasateko eta Aretxabaletako Aratusteetako kartel lehiaketak irabazi dituzu aurten. Ez dago batera txarto. Pozik?

Oso pozik nago. Horrelako sariak beti laguntzen dute.

Zer sari irabaztea gustatuko litzazuke?

Oso zaila da, baina gustatuko litzaidake irabaztea, adibidez, Bilboko, Gasteizko, sanferminetako... lehiaketa. Sari horiek oso atseginak dira.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Non lan egin gurako zenuke?

Orokorrean, ez diot etorkizunari begiratzen. Etorri behar duena etorriko da. Dena dela, gustatuko litzaidake umeentzako liburuak ilustratzea. Hori esanda, eta elkarrikeria irakurtzen egon daitekeen edonorendako, nik datorren urtean azken proiektua egin behar dut eta asko gustatuko litzaidake nire proiektua horrelako liburu baterako lana izatea. Eta eskatzen hasi naizenez [Barre], aurten praktikak egitea tokatzen zait eta gauzak dauden moduan oso zaila da. Norbaitek mundu horretan kontakturen bat edukiz gero, eskertzekoa izango da nirekin harremanetan ipintzea.

MARRA AZKARREZ

Bidaiatzeko toki bat: Mundu osoan zehar bidaiatuko nuke, zaila da bat aukeratzea.

Bizi izateko leku bat: Aretxabaleta.

Janari gustukoena: Makarroiak.

Kolore ilunak ala argiak? Argiak nahiago, baina biak erabiltzen ditut.



Izaro Sanchez, bere lanez osatutako liburu esku artean duela.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 72 metro erakiko etxebizitza salgai. 50 metro koadro erabilgarri. Erdigunean. Jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 64 67 38

Arrasate. Etxebizitza salgai Zarugalden. Hiru logela, bikomun eta egongela handia. Oso eguzkitsua. Iggogailua eta berokuntzaren. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 19 10 95 edo 646 97 36 79

Bergara. Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, bertututa eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komunak, bi balkoi eta sukaldea. Iggogailua eta sotanoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 625 70 84 55

Oñati. Bidebarrieta kalean 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela, bi bainugela, ganbara eta garajea. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 79 88 12.

Oñati. Kalebarria 32an 80 metro koadroko etxebizitza ederra salgai. 9 urteko aintzinasuna. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela handi bat. Iggogailua eraikin berean garaje-raino dauka. Kalitate handiko etxebizitza, diseinuzko altzariz hornitua. Prezio negoziagarria. Garaje itxia aukeran. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 42 83 18

Oñati. Kalebarria 37an 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komunak, guztiz hornitua. Patio erabilgarria eta ganbara. Garaje itxia aukeran. Prezio ona. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 71 77 98

Oñati. Kalebarria 54an, Etxaluzen, etxebizitza salgai. Sukaldea, trastelekuak, bi balkoi, lau logela, bi komun, egongela edo jangela, ganbara, igogailua. Garajea aukeran. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 24 80 02

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Kontzezino kalean etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi komun, igogailua, berokuntzaren. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 626 58 31 17

Eskoriatza. Baserria ematen da errentan Eskoriatzan, erosteko aukerarekin. Deitu 19:00ak eta 20:00ak artean 693 80 40 47 telefono zenbakira.

Marina D'Or. Oropesa del Mar, Castello. Apartamentua ematen da errentan Aste Santu, Bergarako jaietan edo udako denboraldira. Marina D'Or urbanizazioan. Lehenengo ilaran. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea eta terraza handia. Itsasora begira. Aparkaleku plaza. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 75 62 51

104. ERRENTAN HARTU

Bergara edo Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617 12 61 44

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Bainugela duen logela ematen da errentan. Etxe berria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 682 70 32 17

Aretxabaleta. Gela baten bila nabil Aretxabaletan sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 77 44

Arrasate. Logela ematen da errentan sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 00 08 28

Bergara. Herri erdialdean hiruko pertsona bat behar da. Aitor eta Jon. Deitu 608 42 23 51 edo 628 45 10 37 telefono zenbakietara.

Bergara. Logela bat ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

